EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

**ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA**
*Plangintza eta Enplegu Sailburuordetza*
Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES**
*Viceconsejería de Planificación y Empleo*
Dirección de Servicios y Régimen Jurídico

# POBREZIARI ETA GIZARTE DESBERDINTASUNEI BURUZKO 2012KO INKESTA

# EMAITZA NAGUSIAK

Azken txostena: 2012ko azaroaren 15a

EOB Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila (Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza)

# 0. Emaitza nagusien laburpena

Dokumentu honetan Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko 2012ko Inkestaren (PGDI-2012) emaitza nagusiak bildu ditugu. Xede nagusia Euskal Autonomia Erkidegoko pobreziaren eta ongizate-gabeziaren adierazleak aztertzea da, Europar Batasunak (EB) erabiltzen dituenei eta PGDIn berariaz txertatutakoei lehentasuna emanda. Txosten honek, era berean, biztanleen arteko baliabideen banaketan epe ertainera edo luzera eragina duten egiturazko joera nagusiak aintzat hartzen ditu, 2008-2012 aldiari erreferentzia berezia eginez. Horrez gain, pobreziak eta prekarietateak Euskadin duten lurralde- eta eskualde-banaketari ere heltzen dio. Txostena irakurterrazago egiteko, gertaera nagusien laburpen bat egin dugu hasierako kapitulu honetan[1].

2012ko PGDIren emaitza nagusiak honela daude laburbilduta, ondoren azalpen txiki batekin:

1. Krisi ekonomikoaren ondorioz, etxekoen unitateek beren ohiko betebeharrei eta gastuei aurre egiteko dituzten zailtasunak igo dira, eta horrek ez du aurrekaririk 1996tik.

2. Horrekin batera, diru-sarrera nahikorik ez izatearekin lotutako pobrezia- eta prekarietate-arriskuko egoerak igo egin dira, eta, hala, 2012an areagotu egin da benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren eta ezkutuko pobrezia-moten intzidentzia.

3. Hala ere, krisiak ez ditu zalantzan jartzen 2008ra arte egindako aurrerapenak. Izan ere, 2012ko benetako pobrezia- eta prekarietate-tasak 1986ko eta 1996ko tasetatik urrun daude. Errealitate hori, hein handi batean, Diru sarrerak Bermatzeko Errentaren (DBE) eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren (EPO) prestazio-sistemarekin lotzen da. Beste faktore batzuekin batera –pentsio-politikaren efektu positiboa kasu–, diru-sarrerak bermatzeko sistema horrek EAEko pobrezia- eta bazterkeria-tasak Europar Batasuneko batez bestekoen azpitik mantentzen laguntzen du, eta Europa mailan desberdintasun-maila txikiena duten gizarteetako bat bezala sendotzen du Euskadi. Alderdi horretan, EAE erabat urruntzen ari da Espainia ezaugarritzen duen egoeratik.

4. Nolanahi ere, horrek ez du galarazi 2008-2012 tartean pobreziarekin eta prekarietatearekin lotutako gabetze-modu larrienak nabarmen handitzea. Horrek agerian uzten du egungo krisi ekonomikoan alderdi sozialak garrantzi handia duela.

5. Pobreziaren eta prekarietatearen eragin sektorialari dagokionez, aurkako bi prozesu nabarmentzen dira. Alde batetik, bateratze-prozesu bat antzeman da pobreziaren eta prekarietatearen intzidentziaren lurralde-adierazleetan, nahiz eta adierazleon joera goranzkoa izan. Alabaina, gizarte-taldeen araberako eraginarekin lotuta, pobreziak eta prekarietateak tradizionalki arriskuduntzat jotako taldeei eragiten diete gero eta gehiago, lanbide egonkor bat lortzeko gero eta zailtasun handiagoak baitituzte. Izan ere, pobrezia murriztu egin da gizarteko talde aberatsenen artean, kuantitatiboki gehiengoa osatzen dutenen artean.

   Horiek horrela, ezusteko paradoxa bat gertatu da: 2012an, handitu egin da erabateko ongizatea eta inolako gabeziarik ez duten biztanleen pisu erlatiboa.

---

[1] Zehaztu beharra dago jarraian aurkezten diren datuak familia-etxebizitzetan bizi diren biztanleen ingurukoak direla. Beraz, egoitza kolektiboetan bizi diren herritarrak eta etxerik ez dutenak ez dira kontuan hartzen (Euskadin modu iraunkorrean bizi diren kolektiboak edo kolektibo ibiltariak izanda ere).

**Krisi ekonomikoaren ondorioz, igo egin dira etxekoen unitateek beren ohiko betebeharrei eta gastuei aurre egiteko dituzten zailtasunak, eta horrek ez du aurrekaririk 1996tik.**

1994 eta 2007 bitarteko oparoaldi luzearen ostean, langabezia-tasa handitu egin da EAEn: 2007an 74.582 pertsona inguru ziren; 2012ko irailean, berriz, 164.139 pertsona zeuden lanik gabe. Bilakaera horren eraginez, handitu egin da 2012an ohiko betebeharrei eta gastuei aurre egiteko zailtasunak dituzten etxekoen unitateetan bizi diren biztanleen proportzioa, eta aurrekaririk gabeko ehunekora iritsi da. 1996-2008 aldian, gehieneko ehunekoa guztizko biztanleriaren % 13,1 izan zen; 2008 eta 2012 artean, berriz, proportzioa % 11,4tik % 24,5era igaro da.

Etxekoen unitateen erantzuna beren gastu-maila doitzea izan da. 1996. eta 2008. urteen artean, aisialdiko eta astialdiko gastuak murriztu behar izan zituzten biztanleen proportzioa % 7,8 eta % 11,3 artekoa izan zen; 2012an, ostera, % 21,6 izatera iritsi da. Oinarrizko gastuak murriztu behar izan dituztenen ehunekoa, bestalde, % 16,7 da, eta horrek nabarmen gainditzen ditu 1996-2008 aldiko % 6,3 eta % 9,1 arteko erregistroak.

**Horrekin batera, behar beste diru-sarrera ez izatearekin loturiko pobrezia- eta prekarietate-arriskuko egoerak igo egin dira.**

Deskribatutako egoera euskal etxekoen unitateen errenta-mailak behera egin izanarekin lotzen da. Izan ere, behar beste diru-sarrera ez izatearekin erlazionatutako mantenuaren alorreko pobrezia- eta prekarietate-arriskuko egoerak areagotzea eragin du. PGDI adierazleek adierazten dute 2008 eta 2012 artean pobrezia-arriskua % 4,1etik % 7,3ra igo dela. Era berean, ongizate-gabeziaren arriskua % 14,6 izatetik % 19,9 izatera igaro da[2]. Adierazle egokituei jarraiki, eta aintzat hartuta prezioei lotutako aldakuntzak, egitura demografikoa eta ongizateari buruzko gizarte-pertzepzioa[3], pobrezia-arriskuak ez du hainbesteko igoerarik izan: 2008-2012 aldian, 1,6 puntuko hazkunde erreala izan du (2008ko % 5,7tik 2012ko % 7,3ra). Ongizate-gabeziaren arriskuari dagokionez, % 16,4tik % 19,9ra igo da.

Europar Batasunak ezarritako adierazleek egonkortasun handiagoa adierazten dute. 2008 eta 2012 bitartean, EAEko diru-sarreren medianaren % 60aren azpitik dauden biztanleen proportzioa % 14,8 izatetik % 15,4 izatera igaro da. Ildo horretan, medianaren %40ren azpitik dauden biztanleen kopurua oso gutxi handitu da: % 3,1etik % 3,5era. EBko pobrezia- eta bazterkeria-arriskuaren adierazle sintetiko berriak (AROPE adierazlea)[4] adierazten duen dinamika, aldiz, PGDI adierazleek erakusten dutenera gehiago hurbiltzen da. Hala, AROPE tasa % 17,9tik % 19,9ra igo da 2008-2012 aldian.

**Diru-sarreren beherakadak, era berean, benetako pobrezia- eta prekarietate-egoerak handitzea eragin du 2012an. Ezkutuko pobrezia-moduek ere gora egin dute.**

---

[2] Mantenuko pobreziako eta prekarietate-arriskuko egoerak, edo sarrera-pobreziarenak, honako hauekin lotzen dira: etxeguneetan oinarrizko beharrei aurre egiteko sarrera nahikorik ez edukitzearekin (pobrezia) edo –edo adierarik zabalenean– EAEkoa bezalako gizarte baten espero den gutxieneko ongizate-mailari eusteko behar diren gastu-beharrei aurre egiteko sarrera nahikorik ez edukitzearekin (ongizaterik eza).

[3] Adierazle doituek neutralizatu egiten dituzte, urte bakoitzean herritarrek hautematen dituzten beharretan, etxebizitza eskuratzeko kostu eta prezioen bilakaerak eta ongizatearen pertzepzioan gertatzen diren aldaketek dituzten ondorio desberdinak. Neutralizatu egiten dituzte, halaber, beharren pertzepzioan egitura demografikoari (adina eta etxeguneen tamaina) lotzen zaizkion aldakuntzak. Ikusitako aldakuntzei jarraipen homogeneoago bat egitea errazten dutenez, oso baliagarriak dira analisi ebolutiboan.

[4] Adierazleok, pobrezia-arriskuko egoerez gain (medianaren % 60), laneko intentsitate txikikoarekin eta zenbait oinarrizko ondasun edo zerbitzu erabiltzeko gabetzearekin lotutako egoerak ere barne hartzen dituzte.

*Benetako pobreziaren eta prekarietatearen eragina handitu egin da.*

Mantenu-pobreziako arriskua handitzearen eraginez, benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren intzidentzia areagotu egin da[5]. Hala, PGDI adierazleek erakusten dute 2008 eta 2012 bitartean, benetako pobreziaren intzidentzia % 3,6tik % 5,3ra igaro dela. Horrek esan nahi du 1,7 ehuneko-puntu igo dela, eta egoera horretan bizi diren pertsonen kopurua % 48,1 handitu dela. Adierazle egokituei jarraiki, intzidentzia % 4,2tik % 5,3ra igo da; hots, 1,1 puntu handitu da. Eta eraginpean hartutako biztanleen kopurua, berriz, % 27,9 handitu da (2008ko 89.706tik 2012ko 114.696ra igaro da).

Benetako ongizate-gabeziako egoerak ere areagotu egin dira. 2012an, arazo horiek EAEko biztanleriaren % 10,1 hartzen dituzte, 2008ko % 8,2 gaindituz (% 7,4, egokitu gabeko adierazleen arabera). Eraginpean hartutako pertsonen ehunekoa % 24,2 handitu da: 175.668 izatetik (2008an) 218.232 (2012an) izatera igaro da.

[5] Benetako ongizate-gabeziaren eta pobreziaren adierazleen bidez, fenomeno horiek duten benetako eraginera hurbildu nahi da, diru-sarreren dimentsioan (mantenuko pobrezia edo estutasuna, prekaritatea) edo epe luzerako bizi-kondizioetan eta etxeguneetako erreserbako ondarean (pilaketako pobrezia edo prekaritatea) arrisku-faktoreak egoteaz haraindi. Benetako pobrezia/ongizatearen egungo PGDI adierazleak bost egoera bereizten ditu: pobrezia, ongizate-gabezia, arrisku-elementuak ongizate-elementuekin konbinatuta, ia erabateko ongizatea eta erabateko ongizatea.

*Ezkutuko pobreziak ere gora egin du.*

Era berean, emantzipatu nahi duten biztanleei eragiten dien pobrezia-arriskua (ezkutuko pobrezia[6] ere deitzen zaiona), handitu egin da azken lau urteetan. Kuantitatiboki, 23.431 pertsonari eragitetik 38.829 pertsonari eragitera igaro da 2008tik 2012ra bitartean.

**Hala ere, krisiak ez ditu erabat zalantzan jartzen 2008ra arte pobreziaren eta prekarietatearen murrizketan egindako aurrerapenak.**

Aurkeztu ditugun datuak negatiboak izan arren, 2012ko erdialdera arte behintzat ezin dugu esan krisiak erabat zalantzan jarri dituenik 1986 eta 2008 bitartean pobreziaren eta prekarietatearen aurkako borrokan Euskadin egindako aurrerapenak.

*Ondareari eta epe luzeko bizi-baldintzei dagokienez, pobreziaren bilakaerak positiboa izaten jarraitzen du 2012an.*

Lehenik eta behin, diru-sarrerekin lotutako pobreziaren adierazleek beherakada gertatu dela behatu badute ere, metatzeari dagokionez, pobreziaren ikerketari eta prekarietateari lotutako adierazleetan behatutako hobekuntza historikoak sendotu egin dira[7].

Hala, sendotu egin da bizigarritasun-arazo handiak dituzten etxekoen unitateetan bizi diren pertsona-kopuruaren jaitsiera. % 14 apur bat gainditzen zuten 1996ko eta 2000ko proportzioak % 10,9ra jaitsi ziren 2004an, eta 2008koak eta 2012koak % 6 baino pixka bat handiagoak dira. Hain zuzen, 2012koa gutxieneko balioa da, % 6,2. Horrez gain, etxebizitza-ekipamenduaren adierazleei dagokienez, gabetze-maila ere txikiagoa da 2012an: oinarrizko ekipamenduetan gabeziaren bat duten biztanleek % 0,6 baino ez dute osatzen; 2008an, berriz, % 1,2 izan ziren.

Ondare-adierazleak ere positiboak dira hainbat alderditan. Hala, inolako aurrezkirik ez duten etxekoen unitateetan bizi den biztanle-proportzioa murriztu egin da 2008-2012 aldian, % 28,5etik % 23,5era. Aldi berean, urte oso bateko ohiko gastuei aurre egiteko nahikoa aurrezkirik ez duten etxekoen unitateetako biztanle-kopurua gutxieneko mailara iritsi da 2012an (% 47,3). Ehuneko hori 2000n (% 57,6) eta 2008an (% 57,8) lortutako gutxieneko balioetatik hamar puntu baino beherago dago[8]. 1996 eta 2008 bitartean modu iraunkorrean igo ondoren (% 0,9tik % 3,2ra), gastu-premiei aurre egiteko ezohiko kredituak eskatu behar dituzten etxekoen unitateetan bizi direnen proportzioa % 2,7an geratu da 2012an. Horretaz aparte, eta 2012an maila gorenera iritsi bada ere –% 2,1–, zorpetze-arriskua

---

6 Pobrezia ezkutuaz ari gara epe laburrean (urtebete baino gutxiago) emantzipazio-prozesuetan ondorioak sortzen direnean, oinarrizko beharrei aurre egiteko diru-sarrera nahikorik ez izateagatik.

7 Pilaketako pobrezia eta prekaritatearen egoerak honako honekin daude lotuta: epe ertain eta luzera onargarri diren bizi-kondizioak finkatzeko eta ezohiko gastu-beharrei aurre egiteko erreserbako ondare minimo bat edukitzeko gaitasun-gabeziarekin. Kontuan hartuta etxebizitzen ekipamendu eta instalazioetan dauden gabeziak, erreserbako ondare erabilgarriaren nahikotasuna eta beste ohiko zerbitzu edo ondasun batzuk (norbere ibilgailua, oporrak…) lortzeko aukera, PGDIk lau posizio ezartzen ditu metatze-pobreziaren/-ongizatearen eskalan: pobrezia, ongizate-gabezia, gutxieneko ongizatea eta erabateko ongizatea.

8 Alderdi negatiboan, aipatu beharra dago EAEko medianaren % 40era iristen ez den *per capita* ondarea duen biztanleriaren ehunekoa % 16,6 dela 2012an, 2008an behatutako % 14,1 baino handiagoa. Hala eta guztiz ere, joera hori egiturazkoa da egoeraren araberakoa baino, eta 1996an % 11,1 lortu zenez geroztik handituz joan da. Beherakada bakarra 2004 eta 2008 urteen artean gertatu zen, % 15,6tik % 14,1era jaitsi zenean.

nahiko baxu eta 1996-2008 aldiko % 1,1 eta % 1,6 arteko tartetik ez oso urrun mantentzen da, ohiko betebeharrei eta gastuei aurre egiteari dagokionez[9].

Datu horiek kontuan hartuta, ez da harritzekoa metatze-pobreziaren adierazleak oso baxu jarraitzea 2012an. Egungo GBDI adierazlearen arabera, biztanleriaren % 1,4 metatze-pobreziaren eraginpean dago, 2008ko ehunekoa (% 1,5) baino % 0,1 gutxiago. Hala, 1996-2004 aldian gertatutako beherakada sendotu egin da. Tarte horretan, % 3,6tik % 4,2ra jaitsi zen. Bestalde, ongizate-gabeziako modu ezberdinek biztanleriaren % 17,5 hartzen dituzte 2012an. Denbora-tarte zabalagoa hartuz gero, 1996an % 25,3ra iritsi ondoren adierazlea jaitsiz joan dela ikusiko dugu: 2004ko balioa % 19,4 izan zen, eta 2008koa, berriz, % 18,6. Gutxieneko tasa, ordea, 2000n lortu zen: % 17,2.

*Era berean, alderdi positibo batzuk aurki ditzakegu mantenu-pobreziarekin/diru-sarrerekin lotutako bilakaeran eta ezkutuko pobreziaren adierazleetan.*

Gizarteko talde txiroenen narriadura-egoera gorabehera, mantentze-pobreziaren tasen gorakadak ez du islatzen etxekoen unitateek beren gastu-betebeharrei eta -premiei aurre egiteko dituzten zailtasunak areagotu izana, 2012an inoiz lortutako mailarik handienera iritsi baitira. EAEn, 2012ko pobrezia-tasa egokituak 2004ko eta 2008ko proportzioak gainditzen ditu (hurrenez hurren, % 5,6 eta % 5,7 izan ziren); hala ere, 2000ko % 7,9aren eta 1986an eta 1996an erregistratutako % 10etik gorako balioen azpitik dago. Are gehiago, medianaren % 40ren azpitik dauden biztanleen ehunekoa (% 3,5) 1996. eta 2004. urteetako % 3,7 eta % 4,8 arteko proportzioak baino txikiagoa da.

Bestalde, 2012an ezkutuko pobrezia-egoeran dauden ia 39.000 pertsonen eragin kuantitatiboa askoz txikiagoa da 2000ko eta 2004ko 60.000 pertsona inguruk izandakoa baino. Hona hemen diferentzia horren arrazoiak. Alde batetik, bizitza independentea izateko arazo ekonomikoak dituzten pertsonen ezkutuko pobrezia-arriskua, 2012an, txikiagoa da (% 50,6; 2004an eta 2000n, berriz, % 61,3 eta % 75,5, hurrenez hurren), eta, bestetik, independizatu gabeko 18 eta 44 urte bitarteko biztanle-kopuruak behera egin du nabarmen. Biztanleriaren talde hori murriztuz joan da: 2000n, 524.889 ziren; 2004an, 436.507; 2008an, 338.787; eta 2012an, 312.987.

[9] PGDIn, zorpetze-arriskua diru-sarrerak baino gastu handiagoak dituzten eta ondoriozko desoreka ekonomikoari aurre egiteko nahikoa aurrezkirik ez duten etxekoen unitateen arazoen isla da.

*Benetako pobreziaren adierazleak 2004ko eta 2008ko gutxieneko balioetatik gertu mantentzen dira.*

Benetako pobreziaren adierazleak erakusten duenez, krisiari lotutako diru-sarreren sistemaren desorekak direla eta, pobrezia-maila 2000n (% 5,1) behatutakora itzuli da 2012an: % 5,3. Alabaina, 2004ko eta 2008ko ehunekoetatik 0,4 eta 1,1 puntu artean baino ez da urruntzen adierazle hori, eta 1996ko % 8,7 baino aski txikiagoa da. Datuok baloratzeko, gainera, alderdi hauek kontuan hartu behar dira. Hasteko, azken hamarkadan bizitza independenteari ekin dio biztanle gazte ugarik, eta baliabide ekonomiko handirik gabeko immigrante asko eta asko etorri dira. Horretaz aparte, 2006an eta 2007an krisi ekonomikoaren lehenengo zantzuak agertu ziren, eta, horren ondorioz, 2008ko amaieraz geroztik langabezia areagotzen ari da Euskadin.

*Era berean, ongizate-gabeziako egoeren prebentzioan egindako aurrerapenak neurri handi batean sendotu egin dira.*

Prekarietatearen aurkako borrokan egindako aurrerapenak neurri batean mantentzea lortu da, eta hori argi eta garbi antzeman dezakegu ongizate-gabeziaren adierazleetan. Era horretan, mantenuaren alorrean ongizate-gabeziako arrisku-tasa egokituak gora egin badu ere (% 16,4tik % 19,9ra, 2008-2012 aldian), 2012ko tasa 2000ko eta 2004ko proportzioen azpitik dago. 2000koa % 24,7koa izan zen, eta 2004koa, berriz, % 21,9an[10].

Metatze-adierazleak hobetu egin diren egungo testuinguruan, 2012ko benetako ongizate-gabeziaren tasa adierazle egokituei jarraiki aztertzen badugu (% 10,1 da, 2008ko % 8,2 baino handiagoa), antzemango dugu 2000ko eta 2004ko % 11 inguruko balioen azpitik dagoela, eta 1996ko % 16,5 baino nabarmen txikiagoa dela.

*Adierazle subjektiboek balio objektiboek adierazten dutena baino pobrezia-arazoen eragin txikiagoa erakusten jarraitzen dute.*

Azpimarratutako gertakari positiboak direla eta, ulergarria da 2012an benetako pobreziaren adierazle objektiboek gizarte-ikuspegiari dagozkien adierazleak gainditzen jarraitzea. Hori horrela izanik, 2012ko adierazleen arabera, biztanleriaren % 5,3 benetako pobrezia-egoeran dago. Alabaina, beren burua *pobretzat* edo *oso pobretzat* duten EAEko etxekoen unitateetako biztanleen proportzioa askoz txikiagoa da: % 3, alegia.

**Prestazio-sistemen efektu positiboa pobreziaren aurkako borrokan**

Pobreziaren adierazle objektiboen eta subjektiboen arteko desoreka hori, neurri batean, prestazio-sistemak EAEn benetako pobrezia-adierazleen bilakaeran eragiten duen efektu positiboarekin lotu ohi da. Alde horretatik, alderdi hauek nabarmendu behar dira:

* EAEko diru-sarrerak bermatzeko sistemak, 2012an, arriskuan dauden biztanleen % 72,6 hartzen ditu[11], 2008ko % 63,6 baino proportzio handiagoa.

---

[10] Medianaren % 60 irudikatzen duen adierazlea (% 15,4 2012an), era berean, 1996-2004 aldiko % 16,4 eta % 17,1 arteko proportzioen azpitik mantentzen da. 2012ko AROPE tasa (% 19,9), bestetik, 2000 eta 2004 urteen artean erregistratutako % 19,6 eta % 19,9 arteko ehunekoen antzekoa da.

[11] Arrisku-taldean benetako pobrezia-egoeran dauden biztanleak eta prestazioen sistemaz baliatzeko aukera ematen duten gabezia-egoerak jota bizi diren biztanleak sartzen dira.

* Ematen diren laguntzei esker, 68.884 pertsonak gainditzen dute benetako pobrezia, EAEko biztanleriaren % 3,2 eta 2012an arriskuan dauden biztanleen % 37,5 osatzen dutenak. Horrek esan nahi du 2008arekin alderatuta (40.858 pertsona), laguntzok barne hartzen duten proportzioa % 68,6 handitu dela. Aztertutako biztanleriaren % 63,2 beren burua pobretzat ez duten etxekoen unitateetan bizi dira.

* Laguntzak ematen badira ere, 64.383 pertsona benetako pobrezia-egoeran bizi dira, 2008an baino % 52,7 gehiago. Talde horrek EAEko biztanleriaren % 3 osatzen du; 2008an, berriz, % 2 zen. Edonola ere, sistemako prestazioei esker, pertsona talde horren barruan, eskuragarri dauden diru-sarreren eta mantentze-pobreziaren atalasearen artean dagoen aldea % 75,9tik % 19,7ra murriztu da. Izan ere, prestazio-sistemako sarrerek talde horren guztizko diru-sarreretan hartzen duten pisua % 70era iritsi da, 2008ko % 56,4ren gainetik.

  Kasu askotan, errealitate horrek oinarrizko premiak betetzea ahalbidetu dezake. Era horretan, eta 2008ko proportzioarekin (% 61,3) alderatuta kopurua nabarmen murriztu bada ere, aztertutako pertsonen % 46,2k uste dute beren diru-sarrerak nahiko direla beren etxekoen unitateetako oinarrizko premiei aurre egiteko. Aztertutako biztanleen % 68k uste dute ez direla muturreko pobrezia-egoera batean bizi, hau da, ez dute euren burua pobretzat edo oso pobretzat hartzen.

**Izan ere, Euskadik berdintasunezko gizarte bat izaten jarraitzen du, eta bere pobrezia- eta desberdintasun-adierazleak Europar Batasunekoen azpitik daude. Aztertutako gizarte-dimentsioan, EAEko egoerak ez du zerikusirik Espainia ezaugarritzen duen errealitatearekin.**

*Europar Batasunean baino pobrezia- eta desberdintasun-maila txikiagoak*

EAEko pobrezia- eta bazterkeria-arriskuen adierazleak EBko mailetatik nabarmen beherago daude, 2008an gertatu bezala; bai egun EB osatzen duten 27 herrialdeak kontuan hartuta, bai garai bateko 15 herrialdeko EB hartuta. Pobreziaren eta bazterkeriaren AROPE adierazlea, 2012an, % 19,9an kokatu da. EB-15eko % 21,7 eta 2010eko EB-27ko % 23,4 baino proportzio txikiagoa da.

EAEko pobrezia-, prekarietate- eta gabetze-adierazle guztiak batez bestekoaren azpitik daude, eta emaitza onenak pobrezia-mota larrienekin lotura zuzenagoa duten adierazleei dagozkie. Hala, esaterako, medianaren % 40 irudikatzen duen adierazlea % 3,5 da 2012an, EBko batez bestekoak baino bi puntu txikiagoa, gutxi gorabehera (EB-15, % 5,4; EB-27, % 5,6).

Oinarrizko adierazleei dagokienez (AROPE tasa, medianaren % 60 eta % 40 eta gabetzea), EBko lau herrialdek baino ez dituzte EAE baino balio txikiagoak. Luxenburgo, Austria, Herbehereak eta Finlandia dira.

Hona hemen Euskadik Europa mailan duen egoera azaltzen duten bi faktore garrantzitsuenak:

a) Lehenik eta behin, aipatu beharra dago, beste herrialde batzuekin alderatuta, Euskadik pobrezia erlatiboaren tasa baxua duela amaierako gizarte-transferentziak gertatu aurreko egoerari dagokionez (horren barruan sartzen dira biztanleriaren diru-sarrerak, oro har lanean jatorria dutenak, eta pentsio-sistema). Medianaren % 60ri dagokion adierazlea hartzen badugu, Euskadiko pobrezia erlatiboaren tasa, gizarte-transferentziak gertatu aurretik, % 22,5 da. Horrek esan nahi du EBko batez bestekoaren azpitik dagoela, hiru puntu baino txikiagoa baita: EB-27ko tasa % 25,9 da, eta EB-15ekoa, % 26,1. Egun, Euskadiko langabezia-tasa EBkoa baino handiagoa da. Pobrezia erlatiboaren tasa baxua azaltzeko elementu nagusietako bat EAEko pentsio-sistemaren eragin positiboa da.

b) Bigarrenez, eta besteekin alderatuta, euskal biztanleriaren dezila ahulenen sarrera-maila nahiko altua da. Alde horretatik, diru-sarrera txikienak dituzten biztanleen % 10i dagokien guztizko diru-sarreren ehunekoak % 3,8 osatzen du 2012an Euskadin. EB-15ean, ehunekoa % 2,3 da, eta EB-27an, % 2,7. Aipatu beharra dago EB-15 izandako herrialdeen artean, Luxenburgo, Austria, Finlandia eta EAE direla ehuneko hori % 3,5ean edo balio handiagotan mantendu duten bakarrak, PGDI aurrera eraman den urte guztietan (1996an, 2000n, 2004an eta 2012an; 2012koa egiteko, 2010-2011ko datuak baliatu zituzten EB-15eko gainerako herrialdeek). Izan ere, EAEk 1996an gainditu zuen atalase hori, urte horretan % 3,7ra iritsi baitzen.

Faktoreoi esker, diru-sarreretan desberdintasun txikiena duten Europako herrialdeen artean dago EAE. Era horretan, Gini koefizientearen balioa, Euskadin, 25,3ra iritsi da. EBk 2010ean lortutako 30,5 baino 5,2 puntu txikiagoa da. EAEn, 2012an, biztanleriaren % 20 aberatsenen eta % 20 txiroenen diru-sarreren arteko ratioa (S80/S20 ratioa) 3,7 da; EB-27koa eta EB-15ekoa, berriz, 5,3 eta 5,8 izan ziren, hurrenez hurren. Adierazle horiek guztiak hartuz gero, Esloveniak, Txekiako Errepublikak eta Suediak baino ez dituzte EAE baino desberdintasun-maila txikiagoak.

*Euskadi eta Espainia: bi gizarte-errealitate desberdin*

Horrez gain, nabarmendu beharreko beste gertakari bat dago: aztertutako gizarte-alorrean, EAEko dinamikak ez du zerikusirik Espainiakoarekin. Horixe adierazten dute pobreziaren eta bazterkeriaren intzidentziari buruzko datuek. Izan ere, AROPE tasa, Euskadin, 7,1 puntu txikiagoa da: % 19,9ra iritsi da 2012an, eta Espainiakoa, 2011n, % 27 izan zen. Pobrezia larriari dagokionez, EAEko medianaren % 40aren adierazlea (% 3,5) Espainiakoa baino 6,6 puntu azpitik dago (2011n, % 10,1 izan zen). 2008-2012 aldian, adierazle hori EAEn lau hamarren igo da (% 3,1etik % 3,5era); Espainian, berriz, 3,3 puntu handitu da, % 6,8tik % 10,1era.

Horrek erakusten du diru-sarreren desberdintasunaren eraginari dagokionez, bi lurraldeon egoera zeharo desberdina dela. EAE desberdintasun txikiena duten Europako herrialdeetako bat da; Espainia, aldiz, maila handiena duten herrialdeen artean dago, Letoniarekin eta Portugalekin batera. 2012an, Gini indizearen balioa 25,3an ezarri da Euskadin; 2011n, aldiz, 34ra iritsi zen Espainian. Bestalde, EAEko biztanleriaren % 20 aberatsenen eta % 20 txiroenen diru-sarreren arteko ratioa (S80/S20 ratioa), aurten, 3,7 da, 2011n, Espainian, 6,8 izan zen bitartean. Azkenik, diru-sarrera txikienak dituzten biztanleriaren % 10ek guztizko diru-sarreren % 3,8 osatzen dute Euskadin, Europako ehuneko handienetako bat. Espainian, berriz, % 1,6ra baino ez da iristen, eta Europako maila baxuena da. Balioaren bilakaera aintzat hartzen badugu, balio hori % 3,5 edo handiagoa izan da Euskadin 1996az geroztik. Espainian, aldiz, 1999 eta 2001 artean, behatutako maximoa 3 izan zen, eta ondoren, murriztuz joan zen, 2009 eta 2011 bitartean, % 1,5 ingurura jaitsi arte.

**Hala ere, 2008-2012 aldian, pobreziari eta prekarietateari lotutako muturreko gabetze-egoerak areagotu egin dira EAEn.**

Aurreko gertakari positiboak, edonola ere, alderdi negatibo bat du: pobreziaren eta prekarietatearen intzidentziarekin lotutako gabetze-modu larrienak areagotu egin dira 2012an. Hona hemen errealitate hori adierazten duten zenbait gertaera:

* Biztanleriaren % 7,1 arrazoi ekonomikoak direla medio, azken hamabi hilabeteotan bigarren eskuko arropak erabili dituzten etxekoen unitateetan bizi dira (2008an, % 3,7 izan ziren). Arrazoi horiek berberak direla kausa, azken neguan zenbaitetan hotzez egon direla adierazi du biztanleriaren % 8,3k (2004an, proportzioa % 4,1 izan zen). Bi arazo horien aurtengo intzidentziak 1996-2012 denbora-tarteko handienak dira. Aurretik, 2004an lortu ziren gehieneko balioak: lehenengo arrazoiaren kasuan, % 5,8 izan zen, eta bigarrenean, aldiz, % 5,5.

* 2012an, ez-ordaintzeek edo atzerapenek biztanleriaren % 5,9ri eragin diete, 1996-2008 aldiko % 2 eta % 2,9 arteko proportzioa nabarmen gaindituz. Hornidura-mozketekin (ura, argia, telefonoa, eta abar) lotutako gertakariek, bestalde, % 2,4 osatzen dute. Ehuneko horrek ere 1996-2008 urteetako % 0,8 eta % 1,6 arteko tartea gainditzen du.

* Elikadura-arazo oso larriak dituzten etxekoen unitateetan dauden pertsonen proportzioa % 3,1era iritsi da, 2008ko balioa baino handiagoa (% 2,1). Era berean, gora egin du urtean zehar noiz edo noiz goseak egon diren etxekoen unitateetan bizi diren pertsonen ehunekoak, % 1etik % 2,1era. Egoera horretan dauden pertsonen kopurua % 116,8 handitu da 2008tik 2012ra bitartean.

* Bestalde, badira ohiz kanpoko neurriak (ondasunak saltzea, etxebizitzaz edo ikastetxez aldatzea) hartu behar izan dituzten etxekoen unitateetan bizi diren pertsonak. Biztanleriaren % 0,8 dira, ondasunen enbargoa jasan dutenek osatzen duten proportzio bera. Ehuneko oso txikiak badira ere –% 1 baino baxuagoak–, 2008tik 2012ra bitartean % 142,2 handitu da enbargo bat izan duten

pertsonen kopurua, eta % 207,8, ondasunak saldu edo etxebizitzaz edo ikastetxez aldatu behar izan direnena.

Deskribatutako egoera, neurri batean, diru-sarrerek mantenu-pobreziaren atalasearekiko duten aldea neurtzen duen indizea handitu izanarekin lotzen da. Laguntza-sistema bat izan arren, indize hori % 13,7tik (2008) % 22,6ra (2012) igo da, 2000ko eta 2004ko mailetara berriro hurbilduz. Bi urte horietan, hurrenez hurren, ehunekoak % 22,5 eta % 21,1 izan ziren.

Horrek agerian uzten ditu biztanleriaren ongizateari ekarriko lizkiokeen arriskuak, egungo egoera ekonomikoak jarraituz gero.

**Pobreziaren eta prekarietatearen lurralde-eragina bateratzeko prozesua (goranzko joerarekin)**

*Lurralde-adierazleen bateratzea*

Aztertutako arazoen intzidentziak gora egin duen egungo testuinguruan, 2012an nolabait bateratu egin dira lurralde bakoitzeko benetako pobreziaren eta ongizate-gabeziaren tasak. Aurreko urteetako datuak konparatuz gero, behatuko dugu 2008-2012 aldian pobreziaren eta prekarietatearen hazkunde handiena Araban eta Gipuzkoan gertatu dela. Horiek, hain zuzen, 2008an bi arazoon eragin txikiena jaso zuten lurraldeak izan ziren. Hala ere, benetako pobreziaren eragin handiena Bizkaiak jarraitzen du jasotzen: % 6,1; Araban eta Gipuzkoan, berriz, % 5,6 eta % 3,8, hurrenez hurren, eta hautemandako kasuen % 60,3 bertan gertatzen dira (2008an, kasuen % 66,5 izan ziren). Gainerako lurraldeekiko aldea apur bat handiagoa da ongizate-gabeziaren kasuan. Bizkaian % 11,3 da, Araban % 9,7, eta Gipuzkoan % 8,2. Hala ere, benetako ongizate-gabeziaren kasuen proportzioak behera egin du Bizkaian, % 65,7tik % 58,6ra.

*Nolanahi ere, eskualdeen artean alde handiak daude*

Eskualde-mailan, Bilbo da EAEko batez besteko orokorra nabarmen gainditzen duen eskualde bakarra. Bertan, benetako pobrezia-tasa % 9,5era iritsi da. 2008az geroztik handituz joan da, urte horretan % 7,6 izan baitzen.

Erdiko mailan zenbait eskualde ditugu; horien guztien pobrezia-tasa % 4 eta % 5 bitarte dago. Talde horren barruan, Bilbo ezkerraldeak eta Gasteizek EAEko batez bestekoa pixka bat gainditzen dute: hurrenez hurren, proportzioak % 5,8 eta % 6,2 dira. Era horretan, ezkerraldea batez bestekora hurbildu da (% 5,1). Tolosa-Goierri (% 4,5) eta Donostialdea (% 4,1) batez bestekoaren azpitik daude. Ezkerraldean, proportzioa bi hamarren baino ez da handitu. Gainerakoetan, alabaina, pobrezia-tasa modu esanguratsuan areagotu da azken urteotan. Zehazki, Donostialdean puntu bat igo da, Gasteizen eta Bilbo eskuinaldean bi puntu inguru, eta gehien handitu den eskualdea Tolosa-Goierri da, 3,2 punturekin.

Alderdi positiboan, aipatu behar dugu gainerako eskualdeetan (Aiaraldea, Bizkaia-kosta, Durangaldea eta Debarroko bi eskualdeak), proportzioak Euskadiko batez bestekoaren azpitik daudela nabarmen, % 2 eta % 3 artekoak baitira.

Benetako ongizate-gabeziaren egoerekin lotuta, tasa handienak Bilbon (% 13,6) eta ezkerraldean (% 12,4) ageri dira. Edonola ere, 2008ko datuetara hurbiltzen ari dira edo horiek baino hobeak dira, urte horretan Bilboko tasa % 13,8 izan baitzen, eta ezkerraldekoa % 11,8.

Benetako ongizate-gabeziaren egoeren eragina % 10 baino handiagoa da Gasteizen (% 10,8) eta Durangaldean (% 10,3). Ezkerraldean, Donostialdean eta Debagoienean % 8,4 eta % 9,1 bitartekoa da. Bilbon eta ezkerraldean ez bezala, aipatutako eskualdeetako ehunekoek egoerak okerrera egin duela adierazten dute. Donostialdean 2,1 puntu handitu da (% 6,6tik % 8,7ra), ezkerraldean, 3,4 puntu (% 5,7tik % 9,1era), Gasteizen, 4,2 (% 6,6tik % 10,8ra) eta Debagoienean (% 1,9tik % 8,4ra) eta Durangaldean (% 3,5etik % 10,3ra), sei eta zazpi puntu artean.

Alde positiboan, aipatu behar dugu Bizkaia-Kostan, Tolosa-Goierrin eta Debabarrenean tasak % 6 eta % 7 artekoak direla. Gutxieneko balioa Aiaraldeak lortu du (% 3,5), eta 2008 eta 2012 urteen artean arazoaren intzidentziak modu nabarmenean behera egin duen eskualde bakarra da. Besteekin alderatuta, beren egoera positiboa den arren, Tolosa-Goierriko eta Debaberreneko benetako ongizate-gabeziaren tasak bi puntu inguru igo dira aipatutako laurtekoan.

**Gizarte-taldeen arteko pobrezia- eta ongizate-mailen bilakaera ezberdinekiko kontrastea**

*Pobreziak eta prekarietateak tradizionalki arriskuduntzat jotako taldeei gero eta gehiago eragiten diete, lanbide egonkor bat izateko gero eta zailtasun handiagoak dituztenak.*

2012an, etxekoen zenbait unitatetan bizi diren pertsonek pobrezia-tasa altuak dituzte, % 15etik gorakoak. Hona hemen unitateok:

* Erreferentziako pertsona moduan Europar Batasunetik kanpoko herritartasuna duen pertsonadun etxekoen unitateak.
* Familia-taldeak, erreferentziazko pertsona enplegu egonkorrik gabeko 45 urtetik beherakoa denean.
* Guraso bakarreko familiak, familiaburuak lan egonkorrik ez duten emakumeak direnean.
* Guraso bakarreko familia bateko arduradunak diren gizonak.
* Edozer sexutako pertsonak, bakarrik bizi eta ekonomikoki aktiboak direnean, eta lan egonkorrik ez dutenean.

Oro har, aipatutako taldeetan sartzen diren pertsonek 2012an hautemandako benetako pobrezia-kasuen % 78,9 osatzen dute, 2008ko % 68,6 gainditzuz. Aztertutako talde bakoitzean sartzen diren pertsonen benetako pobrezia-tasa % 25,4tik % 28ra igaro da 2008 eta 2012 bitartean. Adierazitako etxekoen unitateetan bizi direnen artean ere, handitu egin da 2008-2012 aldian benetako ongizate-gabezia bizi dutenen ehunekoa: % 50,6tik % 61,4ra. 2012an, aztertutako talde guztien benetako ongizate-gabeziaren tasa % 41,5 izan da. Horrek esan nahi du, 2008ko % 36,7arekin alderatuta, proportzioak gora egin duela.

Aztertutako taldeek partekatzen duten alderdi nagusia familiaburuek lan egonkorrik ez izatea da. Arrisku-faktore hori atzerritartasunarekin eta guraso bakarra izatearekin lotzen da, eta, bi pertsona edo gehiagoren inguruan eraikitako familia-taldeen kasuan, gaztetasunarekin[12]. Benetako pobrezia-egoeren % 76,4 kide aktibo guztiak langabezian dauden edo lan egonkorrik ez duten etxekoen unitateei dagozkie; 2008ko % 57,8arekin alderatuta, proportzioa nabarmen handitu da.

---

[12] Azpian dagoen elementun artean, hezkuntza-maila dago. Horrekin lotuta, ondorioztatu dugu oro har, pertsona nagusiaren ikasketa-maila zenbat eta baxuagoa izan, orduan eta pobrezia-arrisku handiagoa egongo da eraginpean hartutako etxekoen unitateetan. 2012an, benetako pobrezia-kasuen % 91,8 etxekoen unitateetako familiaburua ikasketa kualifikaturik gabeko pertsona bat izatearekin lotzen dira.

*Gainerako biztanle-taldeetan, pobrezia- eta prekarietate-arazoak gutxiengoa dira, bai eta bazterrekoak ere batzuetan. Edonola ere, esparru batzuetan adierazleek gora egin dute, ongizate-gabeziako moduen kasuan, batik bat.*

Aurrez deskribatutako errealitatearekin alderatuz gero, gainerako etxekoen unitate-mota gehienetan benetako pobrezia-tasak baxuak direla aurkituko dugu. Egoera onenean dauden etxekoen unitateak lan egonkorra duten familiaburuak dituztenak eta erreferentzia gisa 65 urtetik gorako gizonak dituztenak dira. Etxekoen unitate horietan bizi diren biztanleen artean, benetako pobrezia-tasa murriztu egin da: 2008-2012 laurtekoan, % 1,2tik % 0,8ra jaitsi da. Denbora-tarte horretan, halaber, benetako ongizate-gabeziaren tasa ere murriztu da, % 4tik % 3ra.

Benetako pobreziaren intzidentzia beti % 4tik beherakoa izan den arren, etxekoen zenbait unitatetan bizi direnen artean tasa hori handitu egin da, % 7,2tik % 10,9ra. Honako hiru hauek dira: guraso bakarreko familiak, erreferentziazko pertsonak lan egonkorra duenean; bi pertsona edo gehiagoren inguruan eraikitako familia-taldeak, familiaburua lan egonkorrik gabeko 45 urtetik gorako pertsona bat denean; eta etxekoen unitateak, erreferentziazko pertsona 65 urtetik gorako emakume bat denean. Hirurok benetako ongizate-gabeziako egoeren % 20,5 osatu dute 2008 eta 2012 bitartean.

**Ezusteko paradoxa: 2012an, handitu egin da EAEn erabateko ongizatea eta inolako gabeziarik ez duten biztanleen pisu erlatiboa.**

Aurreko atalean adierazitako bilakaerak eragin garrantzitsua du gizartearen arloan. Alde horretatik, bereziki deigarria den datu bat ageri da. Izan ere, erabateko ongizatea eta diru-sarrerei eta metatzeari (ondasunak eta bizi-baldintzak) dagokienez inolako gabeziarik ez duten biztanle-proportzioak goia jo du 2012an (% 37,4), eta 2008an erregistratutako gehieneko balioa (% 32) nabarmen gainditu du. Erreferentzia gisa hartutako laurtekoan, benetako pobreziaren eta ongizate-gabeziako modu guztien proportzioa % 8,2tik % 10,1era igo da. Horrek adierazten du tarteko taldeek pisu erlatiboa galdu dutela (2008ko % 59,9tik 2012ko % 52,5era jaitsi da). Tarteko taldeok arrisku- eta ongizate-elementuak dituzten etxekoen unitateetan bizi diren pertsonek eta ia erabatekoa baina betea ez den ongizate-maila izan dezaketenek osatzen dituzte.

# 1. Pobreziaren eta prekarietatearen eragin orokorra

## 1.1. Pobrezia eta prekarietatea mantenu-alorrean (errenta erabilgarria)

### 1.1.1. Gabetze-adierazleak

1. 2012an, Euskadiko biztanleriaren zati handi batek arazoak ditu ongizatea eskuratzearekin lotutako baldintzei aurre egiteko. Era horretan, krisi ekonomikoa dela eta, modu deigarrian igo da ohiko betebeharrak eta gastuak estaltzeko zailtasunak dituzten etxekoen unitateetan bizi diren pertsonen ehunekoa. 1996-2008 aldian, gehieneko balioa % 13,1 izan zen bitartean, 2008 eta 2012 urteen artean, erreferentziazko ehunekoa % 11,4tik % 24,5era igaro da.

   Aztertutako arazoak, alde batetik, gure gizarteak espero duen moduan aisialdia baliatzeko eta denbora libreaz gozatzeko moduarekin lotzen dira. Biztanleen % 35,2 premioi aurre egiteko zailtasunak dituzten etxekoen unitateetan bizi dira. Horrez gain, % 13,2k ezin dituzte inola ere aipatutako zailtasunak gainditu. Biztanleria osoaren % 14,4k ezin dute aisialdi-irteera bat egin hamabost egunean behin gutxienez, arrazoi ekonomikoak direla medio. Halaber, arrazoi berberak direla-eta gutxienez astebeteko oporraldia egin ezin duten biztanleen proportzioa % 21,1era iritsi da. Biztanleriak dituen arazoak argi eta garbi ikus ditzakegu azken urtean aisialdiko eta astialdiko gastuak murriztu behar izan dituzten etxekoen unitateetan bizi diren pertsonen ehunekoan. 2008an, proportzioa % 10,2 izan zen; 1996tik 2008ra bitartean % 7,8 eta % 11,3 bitartean kokatu zen, eta, 2012an, berriz, % 1,6ra igo da.

   Nolanahi ere, bilakaera horrek ez du haustura gogorrik eragin aisialdia baliatzeko eta denbora libreaz gozatzeko ohiko moduen adierazleetan. Are gehiago, 2008-2012 urteen artean % 15,3tik % 14,4ra murriztu da arrazoi ekonomikoengatik hamabost egunean behin gutxienez aisialdi-irteerarik egin ezin duten etxekoen unitateetan bizi diren pertsonen proportzioa. Aintzat hartutako laurtekoan, astebeteko oporraldia egin ezin duten biztanleen proportzioa % 20,3tik % 21,1era igaro da. Hala ere, 2,3 puntu handitu da aisialdi-premiak betetzen ez dituzten edo gehieneko doikuntza eginez bakarrik bete ditzaketen etxekoen unitateetan dauden biztanleen proportzioa: erreferentzia gisa hartutako laurtekoan, % 33tik % 35,2ra igo da. Aisialdi-beharrei aurre egin ezin diotela adierazi duten etxekoen unitateetan bizi direnena, bestalde, 3,1 handitu da: % 10,1etik % 13,2ra.

   Aztertutako gabeziak, bestalde, aurreikusi gabeko gastuek eragiten duten segurtasunik ezarekin lotzen dira. Era horretan, biztanleriaren % 21,9 une honetan aurreikusi gabeko 800 euro inguruko gastu bati aurre egin ezin diotela adierazi duten etxekoen unitateetan bizi dira.

2. Horretaz aparte, 2008-2012 aldian antzemandako beherakadak oinarrizko premiak betetzearekin eta pobrezia-egoera gainditzearekin lotura estuagoa duten adierazleei eragiten die. Datu deigarriena zera da, 2008tik 2012ra bitartean % 8,1etik % 16,7ra igo dela azken urtean oinarrizko gastuak murriztu behar izan dituzten etxekoen unitateetan bizi diren biztanleen ehunekoa. Proportzioa asko handitu da. Izan ere, alde batera utzita 1986ko proportzioa –% 28,8 izan zen–, 1996-2008 aldiko % 6,3 eta % 9,1 arteko ehunekoak baino aski handiagoa da.

Horren ondorioz, 2008 eta 2012 bitartean modu esanguratsuan igo da oinarrizko premiak betetzearekin lotutako arazo larrien intzidentzia. Hala, oinarrizko gastuei aurre egin ezin dieten etxekoen unitateetan bizi diren pertsonek, egun, guztizko biztanleriaren % 5,7 osatzen dute. Horrek esan nahi du 2008ko proportzioa (% 3,1) baino 2,7 puntu handiagoa dela, eta egoera horretan dauden pertsona-kopurua % 88,1 handitu dela. Kasu horretan, nolanahi ere, pertsona-kopurua 2004koaren antzekoa da (% 5,4), eta 2000koa baino txikiagoa (% 6,9).

Oinarrizko premiei aurre egiteko zailtasunen ondoriozko alderdi zehatzak aztertu ostean, egiaztatu dugu biztanleriaren % 7,1 arrazoi ekonomikoak direla-eta azken hamabi hilabeteotan bigarren eskuko arropak baliatu dituzten etxekoen unitateetan bizi direla, 2008ko % 3,7 baino proportzio nabarmen handiagoa. Arrazoi horiengatik beraiengatik, azken neguan zenbaitetan hotzak egon direla adierazi du biztanleriaren % 8,3k; 2004an, berriz, % 4,1ek. Bi adierazle horien kasuan, egoera horretan dauden pertsonen kopurua % 93,3 eta % 103,4 artean igo da 2008tik 2012ra bitartean. Gainera, bion intzidentzia 1996-2012 aldiko handiena da. Aldez aurretik, 2004an lortu ziren gehieneko balioak, % 5,8 lehenengo arazoaren kasuan, eta % 5,5 bigarrenean.

Bestalde, azken urtean PGDIn aztertutako (FSS eskala) elikadurako segurtasunik ezarekin lotutako arazoren bat izan duten euskal biztanleen proportzioa % 5,7tik % 7,7ra igo da 2008 eta 2012 bitartean.

3. Behatutako bilakaeraren eraginez, kanpoko laguntza-eskaria modu deigarrian handitu da. Era horretan, biztanleriaren % 12,9 hirugarrenei laguntza ekonomikoa eskatu behar izan dieten etxekoen unitateetan bizi dira, aurretiko gehieneko balioak (2004ko % 7,1 eta 2008ko % 6,4) baino askoz proportzio handiagoa. Bestalde, % 8,7k lagunengana, bizilagunengana edo senideengana jo dute laguntza eske, eta % 8,4k erakunde publikoetara edo pribatuetara. Aurretik, 1996 eta 2008 artean lortu ziren balio maximoak, % 4 eta % 5 artekoak.

   Zailtasun ekonomiko berriei aurre egiteko beharrak direla eta, familia askok metatutako aurrezkiak baliatu behar izan dituzte. Era horretan, 1996 eta 2008 bitartean proportzioak % 3,3 eta % 5,4 artekoak izan ziren; 2012an, berriz, % 12,3ra iritsi da aurrezkiak modu esanguratsuan baliatu behar izan dituzten etxekoen unitateetan bizi diren pertsonen ehunekoa. Beste muturrean, 2012an % 2,7ra jaitsi da erreferentziazko ehunekoa ezohiko kredituak eskatzeari dagokionez, 1996-2008 aldian % 0,9tik % 3,2ra era jarraituan igo ostean. Bestalde, 2012an gehieneko proportziora iritsi bada ere –% 2,1–, zorpetze-arriskua nahiko baxu mantentzen da, 1996-2008 aldiko % 1,1 eta % 1,6 arteko tartetik ez oso urrun.
4. Laguntza-eskaria handitzearekin batera, krisi ekonomikoarekin lotutako zailtasunek ere gora egin dute: prekarietate eta pobrezia ekonomikoaren adierazpen larrienak areagotu egin dira. Hona hemen horren inguruan nabarmendu beharreko alderdi nagusiak:

   - 2012an, ez-ordaintzeek edo atzerapenek biztanleriaren % 5,9ri eragin dizkiete, 1996-2008 aldiko % 2 eta % 2,9 arteko proportzioa nabarmen gaindituz. Hornidura-mozketekin (ura, argia, telefonoa, eta abar) lotutako gertakariek, bestalde, % 2,4 osatzen dute. Ehuneko horrek ere 1996-2008 urteetako % 0,8 eta % 1,6 arteko tartea gainditzen du, eta 1986ko % 2,6 baino apur bat txikiagoa da.

   - Elikadura-arazo oso larriak dituzten etxekoen unitateetan dauden pertsonen proportzioa % 3,1 da, eta 2008koarekin alderatuta (% 2,1), hori ere handitu egin da. Era berean, gora egin du urtean zehar, noiz edo noiz goseak egon diren etxekoen unitateetan bizi diren pertsonen proportzioak, % 1etik % 2,1era. Elikadura-arazo orokorrak dituzten pertsona-kopurua % 37,8 handitu bada ere,

arazo oso larriak dituztenen kopurua % 45,7 igo da, eta % 116,8, goseak egotearekin lotutako egoeren inpaktua jasan dutenena[13].

- Bestalde, badira ohiz kanpoko neurriak (ondasunak saltzea, etxebizitzaz edo ikastetxez aldatzea) hartu behar izan dituzten etxekoen unitatetan bizi diren pertsonak. Biztanleriaren % 0,8 dira, ondasunen enbargoa jasan duten biztanleek osatzen duten proportzio berdina. Proportzioa txikia izan arren –% 1 baino txikiagoa–, adierazle horrek ere gora egin du aurreko urteko balioekin konparatzen badugu. Hala, % 142,2 handitu egin da enbargo bat izan duten etxekoen unitateetan bizi diren pertsonen kopurua, eta % 207,8, ondasunak saldu edo etxebizitzaz edo ikastetxez aldatu behar izan direnena.

[13] Elikadura-arazo larrien inguruko FSS adierazlearen hazkunde-joera eta gutxienez bi egunean behin proteinak jateko aukera neurtzen duten EU-SILC adierazlean behatutakoa antzekoak dira. Arazoaren intzidentzia % 2,3tik % 3,6ra igaro da 2008-2012 aldian, eta eraginpean hartutako pertsona-kopurua % 56,6 handitu da.

**Zenbait gabetze-adierazle espezifikoren bilakaera, diru-sarrerei/mantenuari dagokienez (pobrezia-adierazleak). 1986-2012**
**Datu absolutuak**
**Familia-etxebizitzetan bizi direnak**

| Adierazleak | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 2012 | Bilakaera 2008/2012 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Oinarrizko gastuak murrizteko beharra** | 612.756 | 148.234 | 130.717 | 190.353 | 174.145 | 362.989 | 108,4 |
| **Gaur egun ez ditu oinarrizko gastuak estaltzen** | Daturik Ez | 77.352 | 142.624 | 113.541 | 66.241 | 124.608 | 88,1 |
| **Elikagaiak eskuratzeko arazoak** | | | | | | | |
| ***FSS adierazleak*** | | | | | | | |
| Elikadura-arazo larriak | Daturik Ez | Daturik Ez | 49.782 | 52.493 | 75.915 | 100.980 | 33,0 |
| Elikadura-arazo oso larriak | Daturik Ez | Daturik Ez | 22.369 | 56.373 | 46.084 | 67.144 | 45,7 |
| *- Gosez egon diren etxekoen unitateetan* | *Daturik Ez* | *Daturik Ez* | *17.289* | *26.477* | *21.271* | *46.122* | *116,8* |
| Segurtasunik ezaren arazoak guztira FSS | Daturik Ez | Daturik ez | 72.151 | 108.866 | 121.999 | 168.124 | 37,8 |
| ***EU-SILC adierazleak*** | | | | | | | |
| Gutxienez bi egunean behin proteinarik jateko aukerarik ez | Daturik ez | Daturik ez | Daturik ez | 70.687 | 49.845 | 78.038 | 56,6 |
| **Arazoak ohiko betebeharrak eta gastuak estaltzeko** | | | | | | | |
| Ez-ordaintzeak edo atzerapenak (alokairuak, kredituak, hipotekak, ordainagiriak, etab.) | 54.803 | 42.948 | 48.606 | 55.769 | 63.411 | 127.589 | 101,2 |
| Hornidura-mozketak (ura, argia, telefonoa, etab.) | 55.156 | 17.209 | 21.953 | 23.940 | 35.191 | 52.413 | 48,9 |
| Ondasunak enbargatzea | Daturik ez | 3.801 | 12.680 | 7.284 | 7.130 | 17.270 | 142,2 |
| Ondasunak saltzea, etxebizitza- edo eskola-aldaketa | 72.906 | 12.587 | 13.387 | 11.072 | 5.426 | 16.700 | 207,8 |
| **Bizirautearekin lotutako beste arazo batzuk** | | | | | | | |
| Bigarren eskuko jantziak erabiltzea | Daturik ez | 108.286 | 75.644 | 121.820 | 79.657 | 153.965 | 93,3 |
| Hotza etxean azken neguan | Daturik ez | 88.668 | 110.669 | 113.664 | 88.611 | 180.210 | 103,4 |

Iturria: PGDI, 1996-2008 eta Euskadiko gizarte-egoera ahulei buruzko azterketa, 1986.

Oharrak: Bilakaeraren adierazleak 2008 eta 2012 urteen arteko eraginpean hartutako pertsona-kopuruaren igoera edo jaitsiera erakusten du, 2008ko datuekin alderatuta.
«Gaur egun ez ditu oinarrizko gastuak estaltzen» adierazlearen kasuan izan ezik, gainerakoek inkesta egin aurreko urtean izandako gertakariei erreferentzia egiten diete.

**Zenbait gabetze-adierazle espezifikoren bilakaera, diru-sarrerei/mantenuari dagokienez (pobrezia-adierazleak). 1986-2012**
**Intzidentzia %-tan**
**Familia-etxebizitzetan bizi direnak**

| Adierazleak | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 2012 | Bilakaera 2008/2012 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Oinarrizko gastuak murrizteko beharra** | 28,8 | 7,0 | 6,3 | 9,1 | 8,1 | 16,7 | 8,6 |
| **Gaur egun ez ditu oinarrizko gastuak estaltzen** | Daturik ez | 3,6 | 6,9 | 5,4 | 3,1 | 5,7 | 2,7 |
| **Elikagaiak eskuratzeko arazoak** | | | | | | | |
| ***FSS adierazleak*** | | | | | | | |
| Elikadura-arazo larriak | Daturik ez | Daturik ez | 2,4 | 2,5 | 3,5 | 4,7 | 1,1 |
| Elikadura-arazo oso larriak | Daturik ez | Daturik ez | 1,1 | 2,7 | 2,1 | 3,1 | 1,0 |
| *- Gosez egon diren etxekoen unitateetan* | *Daturik ez* | *Daturik ez* | *0,8* | *1,3* | *1,0* | *2,1* | *1,1* |
| Segurtasunik ezaren arazoak guztira FSS | Daturik ez | Daturik ez | 3,5 | 5,2 | 5,7 | 7,7 | 2,1 |
| ***EU-SILC adierazleak*** | | | | | | | |
| Gutxienez bi egunean behin proteinarik jateko aukerarik ez | Daturik ez | Daturik ez | Daturik ez | 3,4 | 2,3 | 3,6 | 1,3 |
| **Arazoak ohiko betebeharrak eta gastuak estaltzeko** | | | | | | | |
| Ez-ordaintzeak edo atzerapenak (alokairuak, kredituak, hipotekak, ordainagiriak, etab.) | 2,6 | 2,0 | 2,3 | 2,7 | 2,9 | 5,9 | 2,9 |
| Hornidura-mozketak (ura, argia, telefonoa, etab.) | 2,6 | 0,8 | 1,1 | 1,1 | 1,6 | 2,4 | 0,8 |
| Ondasunak bahitzea | Daturik ez | 0,2 | 0,6 | 0,3 | 0,3 | 0,8 | 0,5 |
| Ondasunak saltzea, etxebizitza- edo eskola-aldaketa | 3,4 | 0,6 | 0,6 | 0,5 | 0,3 | 0,8 | 0,5 |
| **Bizirautearekin lotutako beste arazo batzuk** | | | | | | | |
| Bigarren eskuko jantziak erabiltzea | Daturik ez | 5,1 | 3,7 | 5,8 | 3,7 | 7,1 | 3,4 |
| Hotza etxean azken neguan | Daturik ez | 4,2 | 5,3 | 5,5 | 4,1 | 8,3 | 4,2 |

Iturria: PGDI, 1996-2008 eta Euskadiko gizarte-egoera ahulei buruzko azterketa, 1986.

Oharrak : Bilakaeraren adierazleak 2008 eta 2012 urteen arteko eraginpean hartutako pertsonen ehunekoaren igoera edo jaitsiera erakusten du.
«Gaur egun ez ditu oinarrizko gastuak estaltzen» adierazlearen kasuan izan ezik, gainerakoek inkesta egin aurreko urtean izandako gertakariei erreferentzia egiten diete.

**Zenbait gabetze-adierazle espezifikoren bilakaera, diru-sarrerei/mantenuari dagokienez (ongizate-gabeziaren adierazleak). 1986-2012**
**Datu absolutuak**
**Familia-etxebizitzetan bizi direnak**

| Adierazleak | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 2012 | Bilakaera 2008/2012 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Zailtasunak ohiko betebehar eta gastuak estaltzeko (azken urtean)** | Daturik ez | 197.036 | 190.349 | 272.141 | 245.114 | 531.520 | 116,8 |
| **Aisialdia baliatzeko arazoak** | | | | | | | |
| Aisialdi-premiak ez dituzte asetzen (gaur egun) | Daturik ez | 177.082 | 173.261 | 218.150 | 216.989 | 285.681 | 31,7 |
| Aisialdi-premiak ez dituzte asetzen, edo gehieneko doikuntza eginez estaltzen dituzte (gaur egun) | Daturik ez | 673.483 | 553.990 | 646.833 | 709.848 | 765.301 | 7,8 |
| Arazo ekonomikoak direla-eta ezin dute oporraldirik egin (astebetez, azken urtean) | Daturik ez | 589.745 | 401.184 | 411.281 | 436.551 | 457.864 | 4,9 |
| Arazo ekonomikoak direla-eta ez dute aisialdi-irteerarik egin (azken hamabostaldian) | Daturik ez | 441.306 | 231.053 | 207.334 | 328.701 | 313.239 | -4,7 |
| Aisialdiko eta astialdiko gastuen murrizketa (azken urtean) | 574.384 | 175.545 | 161.116 | 236.011 | 218.502 | 467.926 | 114,2 |
| Gaur egun ezin diete aurreikusi gabeko gastuei aurre egin | Daturik ez | Ez du erantzun | Ez du erantzun | 823.150 | 748.792 | 475.913 | -36,4 |

Iturria: PGDI, 1996-2008 eta Euskadiko gizarte-egoera ahulei buruzko azterketa, 1986.
Oharrak: Bilakaeraren adierazleak 2008 eta 2012 urteen arteko pertsona-kopuruaren igoera edo jaitsiera erakusten du, 2008ko datuekin alderatuta.
Aurreikusi gabeko gastuei aurre egiteko ahalmenaren datuari dagokionez, zenbateko jakin bat ezarri da 2012an (800 €).

**Zenbait gabetze-adierazle espezifikoren bilakaera, diru-sarrerei/mantenuari dagokienez (ongizate-gabeziaren adierazleak). 1986-2012**
**Intzidentzia %-tan**
**Familia-etxebizitzetan bizi direnak**

| Adierazleak | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 2012 | Bilakaera 2008/2012 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Zailtasunak ohiko betebehar eta gastuak estaltzeko (azken urtean)** | Daturik ez | 9,3 | 9,2 | 13,1 | 11,4 | 24,5 | 13,1 |
| **Aisialdia baliatzeko arazoak** | Daturik ez | | | | | | |
| Aisialdi-premiak ez dituzte estaltzen (gaur egun) | Daturik ez | 8,3 | 8,4 | 10,5 | 10,1 | 13,2 | 3,1 |
| Aisialdi-premiak ez dituzte estaltzen, edo gehieneko doikuntza eginez estaltzen dituzte (gaur egun) | Daturik ez | 31,7 | 26,8 | 31,0 | 33,0 | 35,2 | 2,3 |
| Arazo ekonomikoak direla-eta ezin dute oporraldirik egin (astebete, azken urtean) | Daturik ez | 27,8 | 19,4 | 19,7 | 20,3 | 21,1 | 0,8 |
| Arazo ekonomikoak direla-eta ez dute aisialdi-irteerarik egin (azken hamabostaldian) | Daturik ez | 20,8 | 11,2 | 9,9 | 15,3 | 14,4 | -0,8 |
| Aisialdiko eta astialdiko gastuen murrizketa (azken urtean) | 27,0 | 8,3 | 7,8 | 11,3 | 10,2 | 21,6 | 11,4 |
| Gaur egun ezin diete aurreikusi gabeko gastuei aurre egin | Daturik ez | Ez du erantzun | Ez du erantzun | 39,5 | 34,8 | 21,9 | -37,0 |

Iturria: PGDI, 1996-2008 eta Euskadiko gizarte-egoera ahulei buruzko azterketa, 1986.
Oharrak: Bilakaeraren adierazleak 2008 eta 2012 urteen arteko eraginpean hartutako pertsonen ehunekoaren igoera edo jaitsiera erakusten du.
Aurreikusi gabeko gastuei aurre egiteko ahalmenaren datuari dagokionez, zenbateko jakin bat ezarri da 2012an (800 €).

**Zenbait gabetze-adierazle espezifikoren bilakaera diru-sarrerei/mantenuari dagokienez (gabetze-arazoei eta horrekin lotutako zorpetze-arriskuari aurre egiteko moduari buruzko adierazleak). 1986-2012**
**Datu absolutuak**
**Familia-etxebizitzetan bizi direnak**

| Adierazleak | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 2012 | Bilakaera 2008/2012 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Hirugarrenei laguntza eskatzea | Daturik ez | 90.387 | 95.636 | 148.002 | 138.094 | 279.065 | 102,1 |
| Lagunei, bizilagunei edo senideei laguntza eskatzea | 247.073 | 69.876 | 76.180 | 97.137 | 109.574 | 187.925 | 71,5 |
| Erakunde publikoei edo pribatuei laguntza eskatzea | Daturik ez | 43.705 | 44.541 | 84.163 | 76.148 | 181.628 | 138,5 |
| Aurrezkietara modu esanguratsuan jotzea | Daturik ez | 70.728 | 79.682 | 112.071 | 100.494 | 266.258 | 164,9 |
| Ezohiko kredituetara jotzea | Daturik ez | 18.437 | 33.880 | 52.349 | 69.729 | 59.487 | -14,7 |
| Zorpetze-arriskua | Daturik ez | 33.468 | 22.233 | 27.172 | 30.013 | 46.359 | 54,5 |

Iturria: PGDI, 1996-2008 eta Euskadiko gizarte-egoera ahulei buruzko azterketa, 1986.

Oharrak: Bilakaeraren adierazleak 2008 eta 2012 urteen arteko eraginpean hartutako pertsona-kopuruaren igoera edo jaitsiera erakusten du, 2008ko datuekin alderatuta.
Zorpetze-arriskuari buruzko adierazlearen kasuan izan ezik –gaur egungo egoera adierazten duena–, gainerakoek inkesta egin aurreko urtean izandako gertakariei erreferentzia egiten diete.

**Zenbait gabetze-adierazle espezifikoren bilakaera diru-sarrerei/mantenuari dagokienez (gabetze-arazoei eta horrekin lotutako zorpetze-arriskuari aurre egiteko moduari buruzko adierazleak). 1986-2012**
**Intzidentzia %-tan**
**Familia-etxebizitzetan bizi direnak**

| Adierazleak | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 2012 | Bilakaera 2008/2012 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Hirugarrenei laguntza eskatzea | Daturik ez | 4,3 | 4,6 | 7,1 | 6,4 | 12,9 | 6,4 |
| Lagunei, bizilagunei edo senideei laguntza eskatzea | 11,6 | 3,3 | 3,7 | 4,7 | 5,1 | 8,7 | 3,6 |
| Erakunde publikoei edo pribatuei laguntza eskatzea | Daturik ez | 2,1 | 2,2 | 4,0 | 3,5 | 8,4 | 4,8 |
| Aurrezkiak modu esanguratsuan baliatzea | Daturik ez | 3,3 | 3,8 | 5,4 | 4,7 | 12,3 | 7,6 |
| Ezohiko kredituetara jotzea | Daturik ez | ,9 | 1,6 | 2,5 | 3,2 | 2,7 | -0,5 |
| Zorpetze-arriskua | Daturik ez | 1,6 | 1,1 | 1,3 | 1,4 | 2,1 | 0,7 |

Iturria: PGDI, 1996-2008 eta Euskadiko gizarte-egoera ahulei buruzko azterketa, 1986.

Oharrak: Bilakaeraren adierazleak 2008 eta 2012 urteen arteko eraginpean hartutako pertsonen ehunekoaren igoera edo jaitsiera erakusten du.
Zorpetze-arriskuari buruzko adierazlearen kasuan izan ezik –gaur egungo egoera adierazten duena–, gainerakoek inkesta egin aurreko urtean izandako gertakariei erreferentzia egiten diete.

**Gabetze-egoeren intzidentziaren bilakaera diru-sarrerei/mantenuari dagokienez. Gabetze-adierazle sintetikoa. 1996-2012**
**Datu absolutuak**
**Familia-etxebizitzetan bizi direnak**

| **Gabetze-egoera etxekoen unitatean** | **1996** | **2000** | **2004** | **2008** | **2012** | **Bilakaera 2008/2012** |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Oso prekarioa | 31.729 | 31.371 | 54.551 | 53.162 | 113.493 | 113,5 |
| Prekarioa (oinarrizko alderdiak) | 323.801 | 247.189 | 307.913 | 267.317 | 469.174 | 75,5 |
| Arazoak oinarrizko alderdietan | 355.530 | 278.560 | 362.463 | 320.478 | 582.667 | 81,8 |
| Prekarioa (hain oinarrizkoak ez diren alderdiak) | 225.906 | 117.029 | 67.108 | 144.646 | 74.210 | -48,7 |
| Arazoak oinarrizkoak ez diren alderdietan | 486.575 | 370.624 | 419.890 | 433.181 | 337.703 | -22,0 |
| Prekarietaterik ez | 1.053.566 | 1.304.186 | 1.234.720 | 1.253.480 | 1.176.674 | -6,1 |
| Guztira | 2.121.577 | 2.070.400 | 2.084.181 | 2.151.785 | 2.171.254 | 0,9 |

Iturria: PGDI, 1996-2008 eta Euskadiko gizarte-egoera ahulei buruzko azterketa, 1986.

Oharrak: Bilakaeraren adierazleak 2008 eta 2012 urteen arteko eraginpean hartutako pertsona-kopuruaren igoera edo jaitsiera erakusten du, 2008ko datuekin alderatuta. Adierazleak erakusten dituen datuek, funtsean, azken urtean behatutako egoerei erreferentzia egiten diete.

**Gabetze-egoeren intzidentziaren bilakaera diru-sarrerei/mantenuari dagokienez. Gabetze-adierazle sintetikoa. 1996-2012**
**% bertikalak**
**Familia-etxebizitzetan bizi direnak**

| Gabetze-egoera etxekoen unitatean | **1996** | **2000** | **2004** | **2008** | **2012** | **Bilakaera 2008/2012** |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Oso prekarioa | 1,5 | 1,5 | 2,6 | 2,5 | 5,2 | 2,8 |
| Prekarioa (oinarrizko alderdiak) | 15,3 | 11,9 | 14,8 | 12,4 | 21,6 | 9,2 |
| Arazoak oinarrizko alderdietan | 16,8 | 13,5 | 17,4 | 14,9 | 26,8 | 11,9 |
| Prekarioa (hain oinarrizkoak ez diren alderdiak) | 10,6 | 5,7 | 3,2 | 6,7 | 3,4 | -3,3 |
| Arazoak oinarrizkoak ez diren alderdietan | 22,9 | 17,9 | 20,1 | 20,1 | 15,6 | -4,6 |
| Prekarietaterik ez | 49,7 | 63,0 | 59,2 | 58,3 | 54,2 | -4,1 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 0,0 |

Iturria: PGDI, 1996-2008 eta Euskadiko gizarte-egoera ahulei buruzko azterketa, 1986.

Oharrak: Bilakaeraren adierazleak 2008 eta 2012 urteen arteko eraginpean hartutako pertsonen ehunekoaren igoera edo jaitsiera erakusten du. Adierazleak erakusten dituen datuek, funtsean, azken urtean behatutako egoerei erreferentzia egiten diete.

### 1.1.2.Pobreziaren eta ongizate-gabeziaren adierazleak

#### *1.1.2.1.Eurostat adierazleak*

5. Aurreko atalean aztertutako gabetze-arazoek nabarmen gora egin badute ere, Europar Batasuneko pobrezia- eta prekarietate-adierazleen arabera, 2008 eta 2012 bitartean arazoak neurriz handitu dira. Era horretan, 2008-2012 aldian, EAEko diru-sarreren medianaren % 60aren azpitik dauden biztanleen proportzioa % 14,8tik % 15,4ra igo da, 1996-2004 aldiko hazkundea baino txikiagoa. Lau urte horietan, % 16,4tik % 17,1ra igo zen. Ildo berean, medianaren % 40aren azpitik dauden biztanleen proportzioa, 2008-2012 tartean, % 3,1etik % 3,5era igo da. 1996-2004 urteen artean, proportzioa % 3,7tik % 4,8ra igaro zen, eta, beraz, azken tartearen igoera aurrekoa baino txikiagoa da kasu horretan ere. Eraginpean hartutako pertsonei helduz, 2008tik 2012ra bitartean % 13 igo da pobrezia-arrisku larrian (medianaren % 40aren azpitik) dauden pertsonen proportzioa, eta % 5, pobrezia erlatiboa sufritzeko arriskuan daudenena (medianaren % 60aren azpitik).

6. Alokairu egotzia barne hartzen duten Eurostat adierazleek argiago adierazten dute 2008 eta 2012 bitartean egoerak okerrera egin duela. 1996 eta 2008 bitartean era jarraituan murriztu ondoren (% 14,4tik % 10,6ra jaitsi zen) diru-sarreren medianaren % 60aren azpitik dauden biztanleen proportzioa (alokairu egotzia barne hartuta dutenak) % 13ra igo zen 2008an. Hala eta guztiz ere, adierazleak 1996-2004 urteetako % 13,2 eta % 14,4 arteko ehunekoen azpitik jarraitzen du. Bestalde, alokairu egotzia duten diru-sarreren medianaren % 40aren azpitik dauden pertsonen proportzioa % 3,1an kokatu da 2012an. 1996ko eta 2000ko balioen inguruan dago, baina 2004ko eta 2008ko % 2,3 baino handiagoa da.

   Europar Batasunak duela gutxi txertatutako pobrezia- eta bazterkeria-arriskuaren adierazleek (AROPE adierazleak) antzeko joerak ageri dituzte. Hala, AROPE tasa % 17,9tik % 19,9ra igo da 2008-2012 aldian. Ehuneko hori 2000n eta 2004an erregistratutakoetatik gertu dago. 2000koa % 19,6 izan zen, eta 2004koa, berriz, % 19,9. Gabetzeari buruzko AROPE adierazleak, ostera, azken urteotako beherakada islatzen du: 2008ko % 2,7tik 2012ko % 5,8ra igaro da, 2004an erregistratutako gehieneko balioa –% 3,6– gaindituz.

**Pobreziaren eta ongizate-gabeziaren arriskuaren bilakaera. Eurostat adierazleak. 1986-2012. Familia-etxebizitzetan bizi direnak**

**(Datu absolutuak)**

| Adierazleak | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 2012 | Bilakaera 2008/2012 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Diru-sarrera txikiak / Pobrezia erlatiboaren arriskua (Medianaren < % 60) | 296.266 | 348.547 | 354.066 | 343.459 | 318.161 | 333.986 | 5,0 |
| Pobrezia-arrisku larria (Medianaren < % 40) | 69.578 | 79.643 | 98.938 | 77.428 | 66.540 | 75.166 | 13,0 |

**(Intzidentzia %-tan)**

| Adierazleak | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 2012 | Bilakaera 2008/2012 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Diru-sarrera txikiak / Pobrezia erlatiboaren arriskua (Medianaren < % 60) | 13,9 | 16,4 | 17,1 | 16,5 | 14,8 | 15,4 | 0,6 |
| Pobrezia-arrisku larria (Medianaren < % 40) | 3,3 | 3,8 | 4,8 | 3,7 | 3,1 | 3,5 | 0,4 |

Iturria: PGDI, 1996-2008 eta Euskadiko gizarte-egoera ahulei buruzko azterketa, 1986.

Oharrak: Diru-sarrera txikien/pobrezia erlatiboaren adierazleak pobrezia-arrisku larria duen taldea barne hartzen du.

Datu absolutuen atalari dagokionez, bilakaeraren adierazleak 2008 eta 2012 urteen arteko pertsona-kopuruaren igoera edo jaitsiera erakusten du, 2008ko datuekin alderatuta.

Ehunekotan neurtutako intzidentziaren atalari dagokionez, bilakaeraren adierazleak 2008 eta 2012 urteen arteko pertsona ehunekoen igoera edo jaitsiera absolutua erakusten du.

1986ko datuak gutxi gorabeherakoak dira.

**Pobreziaren eta ongizate-gabeziaren arriskuaren bilakaera. Eurostat adierazleak alokairu egotziarekin. 1986-2012 Familia-etxebizitzetan bizi direnak**

**(Datu absolutuak)**

| Adierazleak | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 2012 | Bilakaera 2008/2012 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Diru-sarrera txikiak / Pobrezia erlatiboaren arriskua (Medianaren < % 60) | Daturik ez | 306.518 | 286.228 | 274.410 | 228.473 | 281.859 | 23,4 |
| Pobrezia-arrisku larria (Medianaren < % 40) | Daturik ez | 65.354 | 68.459 | 48.618 | 49.088 | 66.373 | 35,2 |

**(Intzidentzia %-tan)**

| Adierazleak | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 2012 | Bilakaera 2008/2012 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Diru-sarrera txikiak / Pobrezia erlatiboaren arriskua (Medianaren < % 60) | Daturik ez | 14,4 | 13,8 | 13,2 | 10,6 | 13,0 | 2,4 |
| Pobrezia-arrisku larria (Medianaren < % 40) | Daturik ez | 3,1 | 3,3 | 2,3 | 2,3 | 3,1 | 0,8 |

Iturria: PGDI, 1996-2008 eta Euskadiko gizarte-egoera ahulei buruzko azterketa, 1986.

Oharrak: Diru-sarrera txikien/pobrezia erlatiboaren adierazleak pobrezia-arrisku larria duen taldea barne hartzen du.

Datu absolutuen atalari dagokionez, bilakaeraren adierazleak 2008 eta 2012 urteen arteko pertsona-kopuruaren igoera edo jaitsiera erakusten du, 2008ko datuekin alderatuta.

Ehunekotan neurtutako intzidentziaren atalari dagokionez, bilakaeraren adierazleak 2008 eta 2012 urteen arteko pertsona ehunekoen igoera edo jaitsiera absolutua erakusten du.

**Pobrezia- eta bazterkeria-adierazleen bilakaera. AROPE adierazleak. 2000-2012**
**Familia-etxebizitzetan bizi direnak**
**(Intzidentzia %-tan)**

| Adierazleak | 2000 | 2004 | 2008 | 2012 | Bilakaera 2008/2012 |
|---|---|---|---|---|---|
| Laneko intentsitate baxua | 6,6 | 6,4 | 5,6 | 9,9 | 4,3 |
| Diru-sarrera txikiak / pobrezia erlatiboaren arriskua | 17,1 | 16,5 | 14,8 | 15,4 | 0,6 |
| Gabetzea | 2,0 | 3,6 | 2,7 | 5,8 | 3,1 |
| Pobreziaren eta bazterkeriaren AROPE adierazlea (% 60ko pobrezia erlatiboa) | 19,9 | 19,6 | 17,9 | 19,9 | 2,0 |

Iturria: PGDI, 1996-2008 eta Euskadiko gizarte-egoera ahulei buruzko azterketa, 1986.

Oharrak: Laneko intentsitate txikiari buruzko adierazlea ikasleak ez diren 20 eta 59 urteko biztanleak oinarritzat hartuta kalkulatu da.

### *1.1.2.2.PGDI adierazleak*

7. Aintzat hartuta Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestan (PGDI metodoa) 1986tik aurrera garatutako hurbilketa metodologikoa, EAEko mantentze-pobreziako arriskuak biztanleriaren % 7,3ri eragin dio 2012an (157.686 pertsona). Horretaz aparte, ongizate-gabeziako arriskuaren adierazlea % 19,9 izan da, eta 432.936 pertsonari eragiten dio orotara.

   Ehunekook erakusten dute arrisku-egoerak areagotu egin direla. 2008 eta 2012 bitartean, pobreziaren adierazle orokorra % 4,1etik % 7,3ra igo da, eta ongizate-gabeziarena, berriz, % 14,6tik % 19,9ra. 2012ko pobrezia- eta prekarietate-atalaseak adierazle egokituetan oinarrituta aztertzen baditugu, ikusiko dugu 2008tik 2012ra bitartean pobreziaren arrisku-tasa 1,6 puntu handitu dela –% 5,7tik % 7,3ra–, 2004 eta 2008 bitartean egonkor mantendu ondoren. Nolanahi ere, tasa 2000ko % 7,9 eta 1986ko eta 1996ko % 10etik gorako ehunekoak baino txikiagoa da. Eraginpean hartutako biztanleei dagokienez, 2012an % 29,4 handitu da pobrezia-arriskuan dauden biztanle-kopurua, 2008ko datuekin alderatuta.

   Horretaz aparte, 2008 eta 2012 bitarteko ongizate-gabeziaren arrisku-tasa adierazle egokituei jarraiki aztertzen badugu, ikusiko dugu % 16,4tik % 19,9ra igaro dela, eta eragindako pertsona-kopurua, berriz, % 22,8 areagotu dela. 2012ko tasa 2000ko eta 2004ko ehunekoen azpitik dago. Bi urte horietan, tasak % 24,7 eta % 21,9 izan ziren, hurrenez hurren.

**Pobreziaren eta ongizate-gabeziaren arriskuaren bilakaera. PGDI adierazleak. 1986-2012**
**Datu orokorrak eta 2012ko atalaseei egokituak**
**Familia-etxebizitzetan bizi direnak**

**(Datu absolutuak)**

| Adierazleak | | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 2012 | Bilakaera 2008/2012 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Egokitu gabeko PGDI adierazleak | Ongizate-gabeziaren arriskua | 669.943 | 625.991 | 396.614 | 412.963 | 313.215 | 432.936 | 38,2 |
| | Pobrezia-arriskua | 96.098 | 137.994 | 112.139 | 73.718 | 88.643 | 157.686 | 77,9 |
| PGDI adierazle egokituak | Ongizate-gabeziaren arriskua | 1.263.504 | 769.433 | 512.359 | 455.703 | 352.550 | 432.936 | 22,8 |
| | Pobrezia-arriskua | 248.661 | 282.495 | 163.084 | 116.499 | 121.875 | 157.686 | 29,4 |

**(Intzidentzia %-tan)**

| Adierazleak | | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 2012 | Bilakaera 2008/2012 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Egokitu gabeko PGDI adierazleak | Ongizate-gabeziaren arriskua | 31,5 | 29,5 | 19,2 | 19,8 | 14,6 | 19,9 | 5,4 |
| | Pobrezia-arriskua | 4,5 | 6,5 | 5,4 | 3,5 | 4,1 | 7,3 | 3,1 |
| PGDI adierazle egokituak | Ongizate-gabeziaren arriskua | 59,3 | 36,3 | 24,7 | 21,9 | 16,4 | 19,9 | 3,6 |
| | Pobrezia-arriskua | 11,7 | 13,3 | 7,9 | 5,6 | 5,7 | 7,3 | 1,6 |

Iturria: PGDI, 1996-2008 eta Euskadiko gizarte-egoera ahulei buruzko azterketa, 1986.

Oharrak: Egokitu gabeko datuak berriro kalkulatu dira 1986-2000 aldirako. Helburua pobreziaren eta ongizate-gabeziaren atalaseak kalkulatzeko PGDI metodoak baliatutako moduen inguruan 2004an txertatutako aldaketen arabera homologatzea izan da.
Ongizate-gabeziaren adierazleak bere baitan hartzen du pobrezia-arriskuan dagoen taldea.
Datu absolutuen atalari dagokionez, bilakaeraren adierazleak 2008 eta 2012 urteen arteko pertsona-kopuruaren igoera edo jaitsiera erakusten du, 2008ko datuekin alderatuta.
Ehunekotan neurtutako intzidentziaren atalari dagokionez, bilakaeraren adierazleak 2008 eta 2012 urteen arteko pertsona ehunekoen igoera edo jaitsiera absolutua erakusten du.

### 1.1.3.Distantziaren eta desberdintasunaren PGDI adierazleak

PGDI metodoan, pobreziako eta ongizate-gabeziako arriskuaren intzidentzia neurtzeko indizearen osagarriak ematen dira. Zehazki, honako indize hauek hartzen dira kontuan: eskuragarri dauden baliabideen eta ezarritako pobreziaren eta ongizate-gabeziaren atalaseen arteko distantziari buruzkoak (Sen indizea), eta beste indize konplexu batzuei buruzkoak, erreferentzia-atalaseekiko distantzia nahiz arrisku-taldeen arteko barne-desberdintasuna neurtzen dituztenak (FGT indizeak, adibidez). FGT (2) indizea bereziki interesgarria da. Horri esker, pobreziako eta ongizate-gabeziako arrisku-egoeran dauden pertsonek biztanlerian izango luketen inpaktua kalkula daiteke, betiere benetako diru-sarreren eta premien arteko egungo desoreka diru-sarrerarik gabeko lagun baliokideak oinarri hartuta zenbatesten bada.

8. Sen indizeari helduz, eskuragarri dauden diru-sarreren eta pobreziaren atalasearen arteko distantzia % 22,6 da 2012an, arrisku-egoeran dauden taldeen kasuan. Ongizate-gabeziaren atalasearekiko dagoena, berriz, % 44,1 da. Hortaz, pobreziako arrisku-egoeran dauden etxekoen unitateek eskuragarri dituzten diru-sarrerak pobrezia-arriskua gainditzeko behar direnen % 77,4 dira, eta gure gizartean espero diren gutxieneko ongizate-mailetara hurbiltzeko behar direnen % 55,9. Ongizate-atalaseari dagokionez, pobreak izan gabe ongizate-gabeziako arrisku-egoeran dauden etxekoen unitateei eragiten dien desfasea % 24,7an kokatzen da.

   Bestalde, FGT (2) indizeak adierazten duenez, pobrezia metatuak biztanlerian duen pisua % 1,64ra iritsi da 2012an. Ehuneko horrek pobreziaren eragina erakusten du, erabat pobreak diren eta diru-sarrerarik ez duten pertsonetan neurtuta. Ongizate-gabeziako egoera baliokideen eraginaren kasuan, erreferentzia-proportzioa % 4,92 da.

   Denboraren ikuspegitik, FGT (2) indizeak 2008ra arte izandako joeraren haustura antzeman dezakegu, ordura arte modu jarraituan jaitsi baitzen. Pobreziari dagokionez, indizeak gora egin du 2008-2012 aldian, % 0,78tik % 1,64ra. Proportzio horrek 2004ko balioa ere –% 1,18– gainditzen du; hala ere, 2000ko % 1,77, 1996ko % 2,93 eta 1986ko % 2,77 baino txikiagoa da oraindik. 2008-2012 laurtekoko hazkundearen arrazoiak arrisku-egoeren areagotzea eta pobreziaren atalasearekiko distantzia neurtzen duen Sen indizearen igoera dira. Izan ere, Sen indizea % 13,7tik % 22,6ra igaro da 2008-2012 aldian. 2012ko indizea 2000ko eta 2004ko proportzioen inguruan kokatu da berriro; hurrenez hurren, balio horiek % 22,5 eta 21,1 izan ziren.

   Ongizate-gabeziako egoeren multzoari dagokionez, FGT (2) indizea % 3,28tik % 4,92ra handitu da 2008 eta 2012 bitartean. Edonola ere, 2004ra arte behatutako indizearen balioen azpitik mantentzen da. Urte horretan, % 5,60ra iritsi zen. Gertaera hori arrisku-tasa baxuagoekin lotzen da, bai eta 2012ko ongizate-gabeziaren atalasearekiko distantziarekin ere, 2004an behatutakoa baino txikiagoa dena oraindik ere. Halaber, Sen indizearen hazkundea ez da pobreziaren kasuan hautemandakoa bezain handia izan: 2008ko % 20tik 2012ko % 24,7ra igaro da.

**Mantenu-pobreziaren inpaktuarekin lotutako estatistika-indizeak (mantenua). PGDI metodoa. 1986-2008**

Pobrezia-tasa, Sen indizea, FGT (2) indizea, eta pobrezia-atalasearekiko baliabiderik gabeko lagun baliokideak

| Urtea | Pobrezia-tasa | Sen indizearen atalasearekiko distantzia | FGT (2) HI indizea | Baliabiderik gabeko lagun baliokideak | Etxekoen unitateen oinarria |
|---|---|---|---|---|---|
| 1986 | 11,7 | 23,7 | 2,77 | 59.015 | 594.550 |
| 1996 | 13,3 | 22,0 | 2,93 | 62.207 | 674.954 |
| 2000 | 7,9 | 22,5 | 1,77 | 36.674 | 688.227 |
| 2004 | 5,6 | 21,1 | 1,18 | 24.541 | 742.753 |
| 2008 | 5,7 | 13,7 | 0,78 | 16.741 | 797.372 |
| 2012 | 7,3 | 22,6 | 1,64 | 35.575 | 856.588 |

Iturria: PGDI, 1996-2008 eta Euskadiko gizarte-egoera ahulei buruzko azterketa, 1986.

Oharra: Adierazle egokituak.

**Mantenu-alorreko ongizaterik ezeko egoeren inpaktuarekin lotutako estatistika-indizeak. PGDI metodoa. 1986-2008**

Ongizate-gabeziaren tasa, Sen indizea, FGT (2) indizea, eta pobrezia-atalasearekiko baliabiderik gabeko lagun baliokideak

| Urtea | Ongizate-gabeziaren tasa | Sen indizearen atalasearekiko distantzia | FGT (2) HI indizea | Baliabiderik gabeko lagun baliokideak | Etxekoen unitateen oinarria |
|---|---|---|---|---|---|

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 1986 | 59,3 | 31,9 | 18,92 | 402.759 | 594.550 |
| 1996 | 36,3 | 28,8 | 10,46 | 221.981 | 674.954 |
| 2000 | 24,7 | 27,0 | 6,69 | 138.557 | 688.227 |
| 2004 | 21,9 | 25,6 | 5,60 | 116.650 | 742.753 |
| 2008 | 16,4 | 20,0 | 3,28 | 70.663 | 797.372 |
| 2012 | 19,9 | 24,7 | 4,92 | 106.894 | 856.588 |

Iturria: PGDI, 1996-2008 eta Euskadiko gizarte-egoera ahulei buruzko azterketa, 1986.

Oharra: Adierazle egokituak.

## 1.2. Pobrezia eta prekarietatea metatze-alorrean (ondarea eta epe luzeko bizi-baldintzak).

### 1.2.1. Gabetze- eta metatze-adierazleak

9. Krisiaren eragina ondarearen eta bizi-baldintzen alorreko gabetze-adierazleetan ere suma dezakegu. 2008-2012 aldian, EAEko biztanleriaren guztizko ondarearen balio estimatua % 7,9 murriztu da, 1996 eta 2008 bitartean modu iraunkorrean hazi ostean. *Per capita* ondareari helduz, antzeko beherakada gertatu da: % 8,7 murriztu da, 2008ko 116.688 eurotik 2012ko 106.546 eurora.

   Hala ere, joera hori jabetzako etxebizitzaren balioaren beherakadarekin lotzen da soil-soilik, aztertutako laurtekoan % 14,3 jaitsi dela kalkulatu baita. Aldiz, gainerako ondare-ondasunen eta aurrezki-mailaren zabaltze-joera mantendu egin da. Ondasunon balioaren indizea % 3,9 igo da. Hazkunde aipagarriena, ostera, aurrezki-mailan topatuko dugu: guztizko balio estimatua 20.042 milioi eurora igo da, 2008koa (11.826 euro) baino % 69,5 handiagoa.

   Izan ere, aurrezkirik ez duten etxekoen unitateetan bizi diren biztanleria murriztu egin da 2012an: % 23,5ean kokatu da, aurreko gutxieneko balioa, 2008koa, % 28,5era jaitsi zen bitartean. Horrekin batera, urte oso bateko ohiko gastuei aurre egiteko nahikoa aurrezkirik ez duten etxekoen unitateetako biztanleria % 47,3an kokatu da aurten, gutxieneko balioa 1996az geroztik. Erreferentziazko balioa –% 47,3– 2000n eta 2008an behatutako gutxieneko proportzioa baino hamar puntu baino txikiagoa da. 2000ko balioa % 57,6 izan zen, eta 2008koa, % 57,8. Ehuneko horiek bezain deigarria da etxebizitza bat eskuratzeko gastuak dituzten etxekoen unitateetan bizi direnen proportzioaren zabaltzeko joera. Horren arrazoiak etxebizitza guztiz amortizatua ez izatea edo etxebizitza alokairu-eregimenean edo doakoa ez den beste edozeinetan eskuratu behar izatea dira. 1968 eta 1996 bitartean % 31,2tik % 23,5era jaitsi ostean, adierazlea era jarraituan handituz joan da, aurten erregistratutako gehieneko baliora iritsi arte: % 45,8.
   Ohiko etxebizitza ez bestelako ondare-ondasunak lortzearen kasuan, antzeko joera bat antzeman dezakegu. Ondasun horiek eskuratu ezin dituzten etxekoen unitateen proportzioa % 70,6ra iritsi da 2012an.

   Adierazitakoarekin bat etorriz, aurrezteko ahalmenarekin lotutako zenbait epe ertaineko edo luzeko kontsumo-adierazleek joera positiboa erakusten dute 2008-2012 aldian ere. Era horretan, astebeteko oporraldia egin ezin duten etxekoen unitateetan bizi direnen proportzioak behera egiten jarraitzen du. 2012an gutxieneko baliora iritsi da, % 36,4. Alabaina, arrazoi ekonomikoak direla-eta oporraldirik egin ezin dutenen etxekoen unitateetako pertsona-kopurua apur bat igo da. Era horretan, 2000n hasitako goranzko joera mantentzen da: 2000-2004 aldian, % 19,4tik % 19,7ra igo zen; 2008an, % 20,3ra; eta 2012an, % 21,1era.

   Hala eta guztiz ere, krisiak eragin handia izan du kontsumo-alderdi batean: hamar urte baino gutxiagoko ibilgailu bat izatearekin lotutakoa da. 1996-2008 artean % 37,2 eta % 39,3 arteko ehunekoen inguruan mantendu ostean, mota horretako ondasun bat eskuratu ezin duten pertsonen

proportzioa % 49ra igo da 2012an, 1996an lortutako % 51,9 besterik gainditzen ez duena. Hazkunde hori ez da hain handia izan arrazoi ekonomikoen ondorioz ondasun hori lortu ezin duten etxekoen unitateen proportzioaren kasuan: 2000-2008 aldian, % 14,5 eta % 14,8 arteko balioak lortu ziren, eta 2012an % 18,3an kokatu da.

Azpimarratu beharreko beste alderdi negatibo bat ondare-baliabideak eskuratzeko ahalmen txikiagoa duten biztanleen hazkundea da. EAEko medianaren % 40era iristen ez den *per capita* ondarea duen biztanleriaren ehunekoa % 16,6 da 2012an, 2008an behatutako % 14,1 baino handiagoa. Hala eta guztiz ere, joera hori egiturazkoa da egoeraren araberakoa baino, eta 1996an % 11,1 lortu zenez geroztik handituz joan da. Beherakada bakarra 2004 eta 2008 urteen artean gertatu zen, % 15,6tik % 14,1era jaitsi zenean.

10. Era berean, etxebizitzaren instalazioen eta bizigarritasun-baldintzen inguruko adierazleen bilakaera ere positiboa da oro har. Era horretan, sendotu egin da bizigarritasun-arazo handiak dituzten etxekoen unitateetan bizi direnen proportzioaren beheranzko joera. % 14 apur bat gainditzen zuten 1996ko eta 2000ko proportzioak % 10,9ra jaitsi ziren 2004an, eta 2008koak eta 2012koak % 6 baino pixka Bat handiagoak dira. Balio minimoa aurten lortu da: % 6,2.

Antzeko zerbait gertatzen da etxebizitzen ekipamenduaren adierazleen kasuan. Kasu horretan ere, gabetze-maila txikiena aurten lortu da. Biztanleriaren % 0,6k baino ez dute gabeziaren bat oinarrizko ekipamenduetan; 2008an, berriz, % 1,2 izan ziren. Hain oinarrizkoak ez diren ekipamenduei dagokienez, halaber, beherakada gertatu da. Adibidez, ontzi garbigailurik ez duten etxekoen unitateetan bizi diren pertsonen proportzioa % 41,6ra jaitsi da, behatutako baliorik txikiena 1986az geroztik. Horrez gain, 2008an lortutako aurreko gutxieneko balioaren azpitik dago (% 47,6) modu nabarmenean.

**Zenbait gabetze-adierazle espezifikoren bilakaera metatzeari dagokionez (ondarea eta bizi-baldintzak). Ondare-baliabideak eskuratzea. 1986-2012**
Ondare-baliabideen (milioi €-tan) eta guztizko *per capita* ondarearen (€-tan) balio estimatua.

| Ondare-baliabidea | Eragiketaren urtea | | | | | Bilakaera 2008/2012 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 2012 | |
| Lehenengo etxebizitza | 51.615 | 84.317 | 142.308 | 205.520 | 176.229 | -14,3 |
| Aurrezkiak | 5.079 | 7.853 | 8.056 | 11.826 | 20.042 | 69,5 |
| Bestelako ondare-ondasunak | 8.447 | 17.394 | 18.642 | 33.742 | 35.068 | 3,9 |
| Guztizko ondarea | 65.140 | 109.564 | 169.006 | 251.088 | 231.339 | -7,9 |
| Guztizko ondarea, *per capita* | 30.704 | 52.919 | 81.090 | 116.688 | 106.546 | -8,7 |

Iturria: PGDI, 1996-2012
Oharrak: Bilakaeraren adierazleak 2008 eta 2012 urteen arteko ondare-bolumenaren igoera edo jaitsiera erakusten du, 2008ko datuekin alderatuta.
*Per capita* guztizko ondareari buruzko datuak *per capita* hurbilketa batean oinarritzen dira, berdintasun-faktoreak alde batera utzita.

**Zenbait gabetze-adierazle espezifikoren bilakaera metatzeari dagokionez (ondarea eta bizi-baldintzak). Ondare-baliabideak eskuratzea. 1986-2012. Intzidentzia %-tan**
**Familia-etxebizitzetan bizi direnak**

| Adierazleak | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 2012 | Bilakaera 2008/2012 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Guztiz ordaindu gabeko ondasuna, alokairua eta antzekoak | 31,2 | 23,5 | 26,7 | 34,0 | 41,7 | 45,8 | 4,0 |
| Aurrezkirik eza | Daturik ez | 42,7 | 29,8 | 33,8 | 28,5 | 23,5 | -5,0 |
| Urtebeteko gastuari aurre egiteko nahikoa aurrezkirik eza | Daturik ez | 68,4 | 57,6 | 63,1 | 57,8 | 47,3 | -10,5 |
| Hamar urte baino gutxiagoko ibilgailurik ez | 51,9 | 37,2 | 39,3 | 38,8 | 38,7 | 49,0 | 10,3 |
| Hamar urte baino gutxiagoko ibilgailurik ez (arrazoi ekonomikoengatik) | Daturik ez | 16,2 | 14,8 | 14,5 | 14,8 | 18,3 | 3,5 |
| Bestelako ondare-ondasunik ez (etxebizitza edo aurrezkiak ez direnak) | Daturik ez | 78,6 | 71,7 | 77,5 | 73,4 | 70,6 | -2,8 |
| Gutxienez astebeteko oporraldirik ez | Daturik ez | 47,7 | 39,4 | 38,8 | 37,0 | 36,4 | -0,6 |
| Gutxienez astebeteko oporraldirik ez (arrazoi ekonomikoengatik) | Daturik ez | 27,8 | 19,4 | 19,7 | 20,3 | 21,1 | 0,8 |
| *Per capita* ondarea < medianaren % 40 | Daturik ez | 11,1 | 13,7 | 15,6 | 14,1 | 16,6 | 2,5 |
| *Per capita* ondarea < medianaren % 40 - % 60 | Daturik ez | 10,9 | 10,5 | 8,4 | 7,5 | 7,6 | 0,1 |
| *Per capita* ondarea < medianaren % 60 | Daturik ez | 78,0 | 75,8 | 75,9 | 78,4 | 75,8 | -2,6 |

Iturria: PGDI, 1996-2012.
Bilakaeraren adierazleak 2008 eta 2012 urteen arteko pertsona ehunekoen igoera edo jaitsiera absolutua erakusten du, 2008ko datuekin alderatuta.

**Zenbait gabetze-adierazle espezifikoren bilakaera metatzeari dagokionez (ondarea eta bizi-baldintzak). Etxebizitzaren instalazioak eta bizigarritasun-baldintzak. 1986-2012. Intzidentzia %-tan**
**Familia-etxebizitzetan bizi direnak**

| Adierazleak | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 2012 | Bilakaera 2008/2012 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Etxebizitzaren oinarrizko instalazioak** | | | | | | | |
| Ur berorik gabe | 3,6 | ,6 | ,3 | ,9 | ,1 | ,0 | -0,1 |
| Instalazio elektrikorik gabe | Daturik ez | ,0 | ,0 | ,2 | ,0 | ,0 | 0,0 |
| Bainuontzirik edo dutxarik gabe | 4,7 | ,4 | ,3 | ,9 | ,4 | ,0 | -0,4 |
| Komunik edo bainuontzirik/dutxarik gabe | Daturik ez | ,4 | ,3 | ,9 | ,4 | ,0 | -0,4 |
| **Bizigarritasun-baldintzak** | | | | | | | |
| Hezetasun-arazoak dituen etxebizitza | 29,9 | 5,1 | 8,9 | 9,6 | 7,7 | 8,8 | 1,1 |
| Azalera < 20 metro koadro/pertsona bakoitzeko | 44,1 | 32,5 | 28,5 | 21,3 | 15,0 | 14,9 | -0,1 |
| Zaratekiko/kutsadurarekiko esposizioa | Daturik ez | 20,2 | 20,2 | 16,0 | 11,0 | 13,9 | 2,8 |
| Argiztapenik gabe, ez du nahikoa argirik | Daturik ez | Daturik ez | Daturik ez | 8,8 | 5,7 | 12,2 | 6,5 |
| **Adierazle sintetikoak** | | | | | | | |
| Etxebizitza ez dago baldintza onetan edo ez da aski ona, instalazioetan bi gabezia edo gehiago | Daturik ez | 3,4 | 3,9 | 2,9 | 1,1 | 1,1 | -0,1 |
| Etxebizitza ez da aski ona, instalazioetan gabezia bat dago | Daturik ez | 3,5 | 2,2 | 2,2 | 1,5 | 1,5 | 0,0 |
| Etxebizitza aski ona da, bizigarritasun-baldintzetan bi gabezia edo gehiago ditu | Daturik ez | 7,5 | 8,1 | 5,7 | 3,9 | 3,7 | -0,2 |
| Bizigarritasun-arazo handiak dituzten etxebizitzak, guztira | Daturik ez | 14,4 | 14,2 | 10,9 | 6,5 | 6,2 | -0,3 |

Iturria: PGDI, 1996-2012.

Bilakaeraren adierazleak 2008 eta 2012 bitarteko pertsona ehunekoen igoera edo jaitsiera absolutua erakusten du, 2008ko datuekin alderatuta.

**Zenbait gabetze-adierazle espezifikoren bilakaera metatzeari dagokionez (ondarea eta bizi-baldintzak). Etxebizitzaren ekipamendua. 1986-2012. Intzidentzia %-tan**
**Familia-etxebizitzetan bizi direnak**

| Adierazleak | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 2012 | Bilakaera 2008/2012 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Hozkailua | Ez du erantzun | ,1 | ,1 | ,8 | ,1 | ,0 | -0,1 |
| Sukaldeko ekipamendua | 5,8 | ,1 | ,1 | ,0 | ,0 | ,0 | 0,0 |
| Arropa-garbigailua | 6,0 | ,6 | ,3 | ,3 | ,1 | ,1 | 0,0 |
| Labea edo mikrouhin-labea | Daturik ez | 4,6 | 5,2 | 5,1 | 1,8 | ,9 | -0,9 |
| Koloretako TB | 26,4 | ,7 | ,4 | 1,2 | ,4 | ,1 | -0,3 |
| Telefonoa | Daturik ez | Daturik ez | Daturik ez | 1,9 | ,6 | ,2 | -0,4 |
| Ontzi-garbigailua | 86,9 | 76,8 | 69,7 | 55,4 | 47,6 | 41,6 | -6,0 |
| Oinarrizko ekipamenduetan bi gabezia edo gehiago izatea | ,0 | ,4 | ,2 | ,9 | ,1 | ,0 | -0,1 |
| Oinarrizko ekipamenduetan gabezia bat | ,0 | 2,2 | 1,7 | 2,1 | 1,1 | ,6 | -0,5 |
| Oinarrizko ekipamenduetan gabeziaren bat | ,0 | 2,5 | 1,9 | 3,0 | 1,2 | ,6 | -0,6 |

Iturria: PGDI, 1996-2012

Bilakaeraren adierazleak 2008 eta 2012 urteen arteko pertsona ehunekoen igoera edo jaitsiera absolutua erakusten du, 2008ko datuekin alderatuta.

**Zenbait gabetze-adierazle espezifikoren bilakaera metatzeari dagokionez (ondarea eta bizi-baldintzak). Etxebizitzaren ekipamendua (arrazoi ekonomikoen ondoriozko gabezia-adierazleak). 1996-2012. Intzidentzia %-tan**
**Familia-etxebizitzetan bizi direnak**

| Adierazleak | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 2012 | Bilakaera 2008/2012 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Hozkailua | ,1 | ,0 | ,8 | ,1 | ,0 | -0,1 |
| Sukaldeko ekipamendua | ,1 | ,1 | ,0 | ,0 | ,0 | 0,0 |
| Arropa-garbigailua | ,5 | ,2 | ,2 | ,1 | ,1 | 0,1 |
| Labea edo mikrouhin-labea | 1,8 | 1,7 | 2,1 | ,7 | ,3 | -0,3 |
| Koloretako TB | ,6 | ,2 | ,8 | ,1 | ,0 | 0,0 |
| Telefonoa | ,0 | ,0 | 1,4 | ,3 | ,1 | -0,2 |
| Ontzi-garbigailua | 16,5 | 12,4 | 11,5 | 8,0 | 12,4 | 4,4 |

Iturria: PGDI, 1996-2012

Bilakaeraren adierazleak 2008 eta 2012 urteen arteko pertsona ehunekoen igoera edo jaitsiera absolutua erakusten du, 2008ko datuekin alderatuta.

### 1.2.2.Metatze-pobreziaren PGDI adierazleak

11. Aurkeztutako datuak kontuan hartuta, ez da harritzekoa 2012ko metatze-pobreziako arriskuaren adierazlea, EAEn, baxu mantentzea. PGDIk baliatutako adierazle historikoa aintzat hartuta, pobrezia-mota horrek, aurten, biztanleriaren % 1,1 hartzen du, eta 23.000 pertsonari eragiten dio.

    2012ko PGDIren berrikuntzetako bat adierazle berri baten txertaketa da. Horri esker, pobreziaz gain ongizate-gabeziako beste egoera batzuk ere neur daitezke. Adierazleak gabetzearen ikerketan gaur egun Europa mailan aintzat hartu ohi diren alorrak barne hartzen ditu: epe luzeko bizi-baldintzen gabeziaren eta gutxieneko erreserba-ondarea eskuratzeko gabetzearen ingurukoak (AROPE adierazleen testuinguruaren barruan, betiere). Jatorrizko adierazlearekin konparatzen badugu, adierazle berriak garrantzi txikiagoa ematen dio etxekoen unitateen ondare absolutuari.

    Adierazle berriak % 1,4an ezarri du 2012ko metatze-pobreziaren balioa. 2008koaren inguruan dago –% 1,5–, baina apur bat baxuagoa da. Hortaz, kontuan hartuta 2004-1996 aldiko ehunekoak % 3,6 eta % 4,2 artekoak izan zirela, esan dezakegu 2012an, pobrezia-mota horren intzidentziaren murrizketa sendotu egin dela. Kuantitatiboki begiratuta, pobrezia-mota horrek 31.094 pertsonari eragin die 2012an. Proportzioa 2008koa baino % 5,3 txikiagoa da, eta 1996-2004 aldian eraginpean hartutako 74.000 pertsonatik gorako zenbatekoen azpitik dago nabarmen.

    Orotara, ongizate-gabeziako modu ezberdinek biztanleriaren % 17,5 hartzen dute 2012an. Denbora-tarte luzea hartuz gero, 1996an % 25,3 lortu ondoren, adierazlea jaitsiz joan dela ikusiko dugu: 2004ko balioa % 19,4 izan zen, eta 2008koa, berriz, % 18,6. Adierazle horren gutxieneko balioak, baina, 2000n lortu ziren. Urte horretan, metatze-alorrean ongizate-gabeziako egoeran zegoen biztanleriaren ehunekoa % 17,2 izan zen.

    Badago bereziki deigarria den datu bat. Izan ere, erabateko ongizatea eta beren ondare-mailari edo epe ertaineko eta luzeko bizi-baldintzei dagokienez inolako gabeziarik ez duten biztanle-kopuruak goia jo du 2012an (% 40,1), eta 2008an erregistratutako gehieneko balioa (% 34,2) nabarmen gainditu du.

**Pobreziaren eta ongizate-gabeziaren arriskuari buruzko PGDI adierazleak metatzeari dagokionez (jatorrizko hurbilketa) 1986-2008**
**Familia-etxebizitzetan bizi direnak**

**(Datu absolutuak)**

| Egoera | **1986** | **1996** | **2000** | **2004** | **2008** | **2012** | **Bilakaera 2008/2012** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Pobrea | 119.358 | 39.093 | 52.943 | 46.177 | 14.395 | 23.000 | 59,8 |
| Batez bestekoaren | 259.069 | 287.765 | 259.376 | 275.293 | 216.769 | 271.424 | 25,2 |
| Nolabaiteko | 846.322 | 440.552 | 422.294 | 421.453 | 436.202 | 477.521 | 9,5 |
| Ongizate-egoeran | 904.542 | 1.354.167 | 1.335.788 | 1.341.259 | 1.484.419 | 1.399.309 | -5,7 |
| Guztira | 2.129.291 | 2.121.577 | 2.070.400 | 2.084.181 | 2.151.785 | 2.171.254 | 0,9 |

**(Intzidentzia %-tan)**

| **Egoera** | **1986** | **1996** | **2000** | **2004** | **2008** | **2012** | **Bilakaera 2008/2012** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Pobrea | 5,6 | 1,8 | 2,6 | 2,2 | ,7 | 1,1 | 0,4 |
| Batez bestekoaren | 12,2 | 13,6 | 12,5 | 13,2 | 10,1 | 12,5 | 2,4 |
| Nolabaiteko | 39,7 | 20,8 | 20,4 | 20,2 | 20,3 | 22,0 | 1,7 |
| Ongizate-egoeran | 42,5 | 63,8 | 64,5 | 64,4 | 69,0 | 64,4 | -4,5 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 0,0 |

Iturria: PGDI, 1996-2008 eta Euskadiko gizarte-egoera ahulei buruzko azterketa, 1986.
Oharrak: Datu absolutuen atalari dagokionez, bilakaeraren adierazleak 2008 eta 2012 urteen arteko pertsona-kopuruaren igoera edo jaitsiera erakusten du, 2008ko datuekin alderatuta.
%-tan neurtutako intzidentziaren atalari dagokionez, bilakaeraren adierazleak 2008 eta 2012 urteen arteko pertsona ehunekoen igoera edo jaitsiera absolutua erakusten du, 2008ko datuekin alderatuta.

**Pobreziaren eta ongizate-gabeziaren arriskuari buruzko PGDI adierazleak metatzeari dagokionez (2012ko hurbilketa) 1986-2008**
**Familia-etxebizitzetan bizi direnak**
**(Datu absolutuak)**

| **Egoera** | **1996** | **2000** | **2004** | **2008** | **2012** | **Bilakaera 2008/2012** |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Pobrezia | 76.127 | 87.542 | 74.759 | 32.838 | 31.094 | -5,3 |
| Ongizate-gabezia | 459.791 | 268.400 | 330.546 | 367.811 | 349.353 | -5,0 |
| Gutxieneko ongizatea | 1.079.596 | 1.024.809 | 1.072.864 | 1.014.549 | 920.132 | -9,3 |
| Erabateko ongizatea (gabeziarik gabe) | 506.063 | 689.649 | 606.012 | 736.587 | 870.676 | 18,2 |
| Guztira | 2.121.577 | 2.070.400 | 2.084.181 | 2.151.785 | 2.171.254 | 0,9 |

**(Intzidentzia %-tan)**

| **Egoera** | **1996** | **2000** | **2004** | **2008** | **2012** | **Bilakaera 2008/2012** |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Pobrezia | 3,6 | 4,2 | 3,6 | 1,5 | 1,4 | -0,1 |
| Ongizate-gabezia | 21,7 | 13,0 | 15,9 | 17,1 | 16,1 | -1,0 |
| Gutxieneko ongizatea | 50,9 | 49,5 | 51,5 | 47,1 | 42,4 | -4,8 |
| Erabateko ongizatea (gabeziarik gabe) | 23,9 | 33,3 | 29,1 | 34,2 | 40,1 | 5,9 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 0,0 |

Iturria: PGDI, 1996-2012.
Oharrak: Datu absolutuen atalari dagokionez, bilakaeraren adierazleak 2008 eta 2012 urteen arteko pertsona-kopuruaren igoera edo jaitsiera erakusten du, 2008ko datuekin alderatuta.
%-tan neurtutako intzidentziaren atalari dagokionez, bilakaeraren adierazleak 2008 eta 2012 urteen arteko pertsona ehunekoen igoera edo jaitsiera absolutua erakusten du, 2008ko datuekin alderatuta.

## 1.3. Benetako pobreziaren eta prekarietatearen adierazle sintetikoak

### 1.3.1. Alderdi orokorrak

Aztertutako arrisku-arazoek edo -egoerek ez dute automatikoki pobrezian edo prekarietatean bizitzea eragiten. Hori zehazteko, aztertutako alorretako (mantenua edo metatzea) ongizate-elementuek arrisku-egoerak zenbateraino orekatzen dituzten kontuan hartu behar da.

Azaldutako arrazoiengatik, Europan egindako ikerketetan erabili ohi diren arrisku-adierazleez gain, benetako pobreziako eta ongizate-gabeziako egoeren inpaktua neurtzeko adierazleak izatea komeni da. Helburua zera da, pobrezia- eta prekarietate-mota batean nahiz bestean agertzen diren oinarrizko premiek behar bezalako estaldura ez izateko arrisku-egoerak herritarren eguneroko bizitzan behar bezala konpentsatuta ez dauden egoerak mugatzea, gure gizartean esperotako gutxieneko ongizate-mailara iristeko.

Lortutako esperientzia metodologikoa aintzat hartuta, PGDIk, 2012an, benetako pobreziaren bi adierazletan jarri du arreta. Alde batetik, 2008ra arte erabili ohi zen adierazle objektibo zuzendua dugu; horretan, aparteko egoeretan, informazio objektiboak egoeraren inguruan interesatuen duten iritzia kontuan hartzen du. Bestetik, adierazle berri bat dugu, metatze-pobreziaren ikerketaren inguruko 2012ko hurbilketak (Europan nagusi diren pobrezia neurtzeko moduetara egokitua) txertatutako hobekuntzak aintzat hartzen dituena. Adierazle berri horrek benetako pobrezia neurtzeko ikuspegi hertsiki objektibo bat erabiltzen du, eta, horri esker, aldi berean, benetako ongizate-gabeziako egoera orokorretara modu zehatzagoan hurbil gaitezke, 2008ra arte erabilitako adierazleekin behar bezala neurtzen ez zirenak.

12. Bi adierazle horien kasuan, benetako pobreziaren eragina antzekoa da: PGDI erabiltzen hasi zen hurbilketak % 4,9 dela ezarri du, eta 2012ko hurbilketa berriaren arabera, % 5,3an kokatzen da. Bi ehunekoen antzekotasuna dela-eta, ziurta dezakegu biztanleriaren % 5 inguruan kokatutako balioak benetako pobreziak Euskadin duen intzidentzia mugatzen duela, arrisku-egoera guztien multzotik harantz.

    2012ko PGDI adierazle berria erabilita, ikus dezakegu 2008 eta 2012 urteen artean, benetako pobreziaren intzidentzia % 3,6tik % 5,3ra igaro dela. Horrek esan nahi du 1,7 ehuneko-puntu igo dela, eta eragindako pertsonen kopurua % 48,1 handitu. Adierazle egokituak baliatuta, intzidentzia % 4,2tik % 5,3ra igo dela ikus dezakegu, hots, 1,1 puntu handitu da. Pobrezian bizi diren pertsona-kopurua, berriz, % 27,9 handitu da (2008ko 89.706tik 2012ko 114.696ra pasa da).

2012ko ehuneko zehatzek adierazten dute, azken laurtekoko metatze-pobreziaren adierazleen joera positiboa gorabehera, krisiarekin lotutako diru-sarreren sistemaren desorekak direla-eta benetako pobrezia-maila 2000ko balioetara itzuli dela; ondorioz, 2000 eta 2008 bitartean egindako aurrerapenak galdu egin dira.

Halaber, ongizate-gabeziako benetako egoeren hazkundea antzeman dugu. Zehaztasun handiagoz neurtzea ahalbidetzen duen 2012ko adierazleari jarraiki, 2012an, arazook EAEko biztanleriaren % 10,1 hartzen dituzte, 2008ko % 8,2 gaindituz (% 7,3, egokitu gabeko adierazlea hartuz gero). Adierazle egokituek diote pobrezian bizi diren pertsonen ehunekoa % 24,2 handitu dela: 175.668 izatetik (2008an) 218.232 (2012an) izatera pasa da.

Pobreziaren kasuan ikusitakoa ez bezala, 2008-2012 aldian benetako ongizate-gabeziaren arazoak handitzeak ez du adierazleen atzerapauso hain handia eragin, eta 2004ko balioen inguruan mantendu da. Adierazle egokituen arabera, 2012ko benetako ongizate-gabeziaren tasa (% 10,1), egiaz, 2000ko eta 2004ko % 11 inguruko balioen azpitik egongo da, eta 1996ko % 16,5 baino nabarmen txikiagoa izango da.

*A priori* paradoxa iruditu arren, bilakaera hori bateragarria da erabateko ongizatea eta diru-sarrerei eta metatzeari (ondasunak eta bizi-baldintzak) dagokienez inolako gabeziarik ez duten biztanle-proportzioaren hazkundearekin. Proportzio horrek aurten lortu du baliorik handiena (% 37,4), aurreko gehieneko balioa (2008an erregistratutako % 32) nabarmen gaindituz.

**Benetako pobrezia-egoeren bilakaera**
**EPDS adierazlea (jatorrizko hurbilketa). 1986-2012.**
**Datu orokorrak eta 2012ko atalaseei egokituak**
**Familia-etxebizitzetan bizi direnak**
**(Datu absolutuak eta intzidentzia %-tan).**

| Urtea | Egokitu gabeko PGDI adierazleak: Datu absolutuak | Egokitu gabeko PGDI adierazleak: Intzidentzia %-tan | PGDI adierazle egokituak: Datu absolutuak | PGDI adierazle egokituak: Intzidentzia %-tan |
|---|---|---|---|---|
| 1986 | 173.506 | 8,1 | 248.788 | 11,7 |
| 1996 | 99.698 | 4,7 | 145.100 | 6,8 |
| 2000 | 85.138 | 4,1 | 97.077 | 4,7 |
| 2004 | 73.894 | 3,5 | 86.666 | 4,2 |
| 2008 | 68.051 | 3,2 | 81.012 | 3,8 |
| 2012 | 106.665 | 4,9 | 106.665 | 4,9 |

Iturria: PGDI, 1996-2012.

**Benetako pobreziaren eta ongizate-gabeziaren egoeren bilakaera**
**EPDS adierazleak (2012ko hurbilketa). 1996-2012.**
**Datu orokorrak eta 2012ko atalaseei egokituak**
**Familia-etxebizitzetan bizi direnak**
**(Datu absolutuak)**

| Adierazleak | | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 2012 | Bilakaera 2008/2012 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Egokitu gabeko PGDI adierazleak | Ongizate-gabezia | 322.019 | 204.288 | 223.095 | 160.138 | 218.232 | 36,3 |
| | Pobrezia | 124.056 | 82.957 | 73.861 | 77.436 | 114.696 | 48,1 |
| PGDI adierazle egokituak | Ongizate-gabezia | 350.715 | 226.983 | 232.984 | 175.668 | 218.232 | 24,2 |
| | Pobrezia | 185.360 | 106.376 | 93.835 | 89.706 | 114.696 | 27,9 |

Iturria: PGDI, 1996-2012.

Oharra: Bilakaeraren adierazleak 2008 eta 2012 urteen arteko pertsona-kopuruaren igoera edo jaitsiera erakusten du, 2008ko datuekin alderatuta.

**Egoeren bilakaera benetako pobrezia/ongizatea eskalan. 1996-2012.**
**Datu orokorrak eta 2012ko atalaseei egokituak**
**Familia-etxebizitzetan bizi direnak**
**(Intzidentzia %-tan)**

**Egokitu gabeko PGDI adierazleak**

| Kokapena eskalan | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 2012 | Bilakaera 2008/2012 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Pobrezia | 5,8 | 4,0 | 3,5 | 3,6 | 5,3 | 1,7 |
| Ongizate gabeziaren beste era bat | 9,3 | 5,9 | 7,2 | 3,8 | 4,8 | 0,9 |
| Ongizate-gabezia | 15,2 | 9,9 | 10,7 | 7,4 | 10,1 | 2,6 |
| Ongizate eta arrisku elementuak | 25,4 | 18,7 | 19,7 | 18,9 | 18,1 | -0,9 |
| Ia erabateko ongizatea | 38,4 | 40,9 | 42,6 | 41,3 | 34,5 | -6,8 |
| Erabateko ongizatea | 21,1 | 30,5 | 27,1 | 32,3 | 37,4 | 5,1 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 0,0 |

**PGDI adierazle egokituak**

| Kokapena eskalan | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 2012 | Bilakaera 2008/2012 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Pobrezia | 8,7 | 5,1 | 4,5 | 4,2 | 5,3 | 1,1 |
| Ongizate gabeziaren beste era bat | 7,8 | 5,8 | 6,7 | 4,0 | 4,8 | 0,8 |
| Ongizate-gabezia | 16,5 | 11,0 | 11,2 | 8,2 | 10,1 | 1,9 |
| Ongizate eta arrisku elementuak | 29,3 | 21,8 | 20,7 | 19,3 | 18,1 | -1,3 |
| Ia erabateko ongizatea | 34,1 | 37,8 | 41,4 | 40,5 | 34,5 | -6,1 |
| Erabateko ongizatea | 20,1 | 29,5 | 26,7 | 32,0 | 37,4 | 5,5 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 0,0 |

Iturria: PGDI, 1996-2012.
Oharra: Bilakaeraren adierazleak 2008 eta 2012 urteen arteko pertsona ehunekoen igoera edo jaitsiera erakusten du.

Nabarmendu beharra dago 2012an benetako pobreziaren adierazle objektiboek gizarte-ikuspegiari dagozkion adierazleak gainditzeko joerari eusten diotela. Alde horretatik, 2012ko adierazleek biztanleriaren % 5,3 benetako pobrezia-egoeran daudela adierazten dute. Alabaina, beren burua *pobretzat* edo *oso pobretzat* duten EAEko etxekoen unitateetako biztanleen proportzioa askoz txikiagoa da, % 3, alegia. 2008ko % 2,1arekin konparatuta, proportzioa % 0,9 igo da. Beren burua *gutxienez pobre samartzat* hartzen duten etxekoen unitateetako pertsonak hartuz gero, biztanleriaren % 7,9 osatzen dutela ikusiko dugu, 2008ko erregistroa baino 1,4 handiagoa. Baina ehuneko hori, era berean, benetako ongizate-gabeziako egoeraren taldean sartzen diren pertsonen % 10,1 baino txikiagoa da.

**Benetako pobreziaren adierazleak. Pertzepzio subjektiboa. 1986-2008**
**Familia-etxebizitzetan bizi direnak**
**(Intzidentzia %-tan)**

| Adierazleak | 1986 | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 2012 | Bilakaera 2008/2012 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Pobrea edo oso pobrea | 17,6 | 2,1 | 2,2 | 3,2 | 2,1 | 3,0 | 0,9 |
| Gutxienez pobre samarra | (72,8) | 7,8 | 6,5 | 7,6 | 6,5 | 7,9 | 1,4 |

Iturria: PGDI, 1996-2008 eta Euskadiko gizarte-egoera ahulei buruzko azterketa, 1986.
Oharra: «Gutxienez pobre samarra» kategoriako 1986ko datua urte horretan baliatutako kategorizazioaren araberakoa da.

## 1.3.2. DBE/EPO/GLL sistemen eragina

13. Kontuan izan beharreko beste gai bat prestazioen sistemak benetako pobreziaren ehunekoen bilakaeran duen eragina da, aintzat hartuta, horretarako, arriskuan dauden etxekoen unitateetako biztanle guztiak (bai benetako pobrezia-egoeran daudenak, bai prestazioen sistema baliatzea eragiten duten arazo ekonomikoak dituztenak). Alde horretatik, alderdi hauek nabarmendu behar dira:

* DBE/EPO/GLL sistema erabiltzen duen etxekoen unitateetan bizi den biztanle-kopurua 133.267 pertsonara iritsi da, 2008ko 83.023 biztanleak baino % 60,5 baino gehiago. Horrek EAEKo biztanleriaren % 6,1 osatzen du, 2008ko % 3,9 baino proportzio nabarmen handiagoa. Aurten, sistemak arriskuan dauden biztanleen % 72,6 hartzen ditu, 2008ko % 63,6 baino gehiago.

* Ematen diren laguntzei esker, 68.884 pertsonak gainditzen dute benetako pobrezia, EAEko biztanleriaren % 3,2 eta 2012an arriskuan dauden biztanleen % 37,5 osatzen dutenak. 2008ko 440.858 biztanleekin alderatuta, kopurua % 68,6 igo da. Urte horretan, talde horrek EAEko guztizko biztanleriaren % 1,9 osatzen zuen, eta arriskuan zeuden biztanleen % 31,3. Erreferentziazko taldean, sistemako prestazioek diru-sarreren % 33,5 dira, 2008ko % 29,9 baino kopuru handiagoa. Aztertutako biztanleriaren % 63,2 beren burua pobretzat ez duten etxekoen unitateetan bizi dira.

  Pertsona horietako 30.616ren kasuan –EAEko biztanleriaren % 1,4–, sistema horretaz baliatzeak diru-sarreren pobreziaren (mantenua) atalasea gainditzeko aukera ematen die, 2008an hartutako biztanle-kopurua baino % 80,7 handiagoa dena.

* Nahiz eta laguntzak eman, 64.383 pertsona benetako pobrezia-egoeran bizi dira, 2008an baino % 52,7 gehiago. Horrek EAEko biztanleriaren % 3 osatzen du, 2008an % 2 zen bitartean.

Erreferentzia-taldean, sistemako prestazioei esker, eskuragarri dauden diru-sarreren eta mantentze-pobreziaren atalasearen artean dagoen aldea murriztu da, % 75,9tik % 19,7ra. Prestazio-sistemako sarrerek kolektibo horren guztizko sarreretan hartzen duten pisua % 70era iritsi da, 2008ko % 56,4ren gainetik.

Kasu askotan, errealitate horrek oinarrizko premiak betetzea ahalbidetu dezake. Era horretan, eta 2008ko % 61,3 proportzioarekin alderatuta kopurua nabarmen murriztu bada ere, aztertutako pertsonen % 46,2k uste dute beren diru-sarrerak nahiko direla beren etxekoen unitateetako oinarrizko beharrei aurre egiteko. Izan ere, aztertutako biztanleriaren % 68k uste dute ez direla gehieneko pobreziaren egoera batean bizi, hau da, ez dute euren burua pobretzat edo oso pobretzat hartzen. Biztanleriaren % 64,8 pobre samartzat jotzen diren etxekoen unitateetan bizi dira.

* Prestazio-sistemaz baliatzen ez diren arriskudun biztanleak 50.313 dira 2012an, 2008an baino % 5,8 gehiago. Arrisku-egoeran dauden etxekoen unitateetako pertsonen % 27,4 osatzen dute; ehuneko hori 2008ko % 36,4 baino txikiagoa da. Talde horretan, lanarengatiko diru-sarrerek (guztizkoaren % 42,1) eta/edo estatuko sistema orokorreko pentsioengatiko edo prestazioengatiko diru-sarrerek berebiziko garrantzia dute. Mantenu-pobreziaren atalasearekiko distantzia % 24,9 da.

  Egiazta daitekeen bezala, taldeko lanbide-profilaren irudia normalizatua da, eta lana izateko edota horren ordezko prestazio orokorrak eskuratzeko aukera dute. Horrez gain, aztertutako pertsonen % 47,2k oinarrizko premiak betetzeko baino diru-sarrera handiagoak dituztela adierazi dute. Hala eta guztiz ere, 2008 eta 2012 bitartean taldearen egoerak okerrera egin duela suma dezakegu. Nahikoa diru-sarrera dituztenen proportzioa murriztu egin da; 2008an % 70,2ra iritsi ondoren, murriztuz joan da. Horretaz aparte, % 44,1etik % 54,8ra igo da beren burua gutxienez pobre samartzat hartzen duten etxekoen unitateetan bizi diren pertsonen proportzioa.

**DBE/EPO/GLL sistemak benetako pobreziaren prebentzioan duen eraginari buruzko adierazleak. 2008 eta 2012.**

| | Abs. | guztizko biztanleriaren % | arrisku-taldeen % | DBE/EPO eta GLL diru-sarreren % | Norberaren eta prestazioen eta pentsioen sistema orokorreko diru-sarreren % | atalasearekiko benetako distantziaren % | atalasearekiko distantziaren %, sistemako prestaziorik gabe | beren burua pobretzat/oso pobretzat ez dutenen % | beren burua gutxienez pobre samartzat hartzen ez dutenen % | etxeko unitateko gutxieneko premiei aurre egiteko baino diru-sarrerak handiagoak dituztenen % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **2012** | | | | | | | | | | |
| **Sistemak barne hartutako biztanleria** | **133.267** | **6,1** | **72,6** | **46,4** | **48,0** | | | **77,1** | **49,6** | **65,1** |
| *Pobreziatik atera ez den biztanleria* | *64.383* | *3,0* | *35,1* | *70,0* | *23,5* | *19,7* | *75,9* | *68,0* | *35,2* | *46,2* |
| *Pobreziatik atera den biztanleria* | *68.884* | *3,2* | *37,5* | *33,5* | *61,4* | | | *85,6* | *63,2* | *82,8* |
| *--- Diru-sarrerak > mantenu-pobreziaren atalasea* | *30.616* | *1,4* | *16,7* | | | | | | | |
| **Sistemak barne hartzen ez duten biztanleria** | **50.313** | **2,3** | **27,4** | **0,0** | ***88,6*** | **24,9** | **24,9** | **80,6** | **45,2** | **47,2** |
| *-- Autonomoen soldatak, lansariak eta diru-sarrerak* | | | | | *42,1* | | | | | |
| **GUZTIRA** | **183.580** | **8,5** | **100** | **46,4** | | | | 78,0 | 48,4 | 60,2 |
| **2008** | | | | | | | | | | |
| **Sistemak barne hartutako biztanleria** | **83.023** | **3,9** | **63,6** | **39,0** | **53,8** | | | **82,1** | **51,3** | **76,3** |
| *Pobreziatik atera ez den biztanleria* | *42.165* | *2,0* | *32,3* | *56,4* | *36,6* | *17,0* | *63,8* | *78,7* | *28,6* | *61,3* |
| *Pobreziatik atera den biztanleria* | *40.858* | *1,9* | *31,3* | *29,9* | *62,8* | | | *85,7* | *74,7* | *91,9* |
| *--- Diru-sarrerak > mantenu-pobreziaren atalasea* | *16.944* | *0,8* | *13,0* | | | | | | | |
| **Sistemak barne hartzen ez duten biztanleria** | **47.542** | **2,2** | **36,4** | **0,0** | **92,7** | **21,3** | **21,3** | **77,3** | **55,9** | **70,2** |
| *-- Autonomoen soldatak, lansariak eta diru-sarrerak* | | | | | *36,5* | | | | | |
| **GUZTIRA** | **130.564** | **6,1** | **100** | **39,0** | | | | 80,4 | 53,0 | 74,1 |

Iturria: PGDI, 2008-2012.

# 2. Arrisku handieneko gizarte-taldeak eta eremuak

## 2.1. Pobreziak eta prekarietateak gehien eragindako taldeak

### 2.1.1. Benetako pobreziaren arriskupeko talde nagusiak

#### *2.1.1.1. Datu orokorrak*

14. Benetako pobreziaren adierazlea aintzat hartuta, ondoko hauek dira pobreziak 2012an gehien astindutako taldeak:

a) **Guraso bakarreko familiak, eta neurri txikiagoak bakarri bizi diren pertsonak eta beste familia-talde batzuk.**

Benetako pobreziak eragin handia du guraso bakarreko familietan bizi direnengan. Arazo horrek familia horretan bizi direnen % 18,2ri eragiten die, «Beste familia-talde batzuk» kategorian ikusitako % 10,1 gaindituz. Bi familia-mota horietan, benetako pobreziaren tasa 4 eta 5 puntu artean igo da 2008-2012 aldian. 2008ko ehunekoak % 13,2 eta % 6,1 izan ziren. «Beste familia-talde batzuk» taldean behatutako hazkundea mantenu-pobreziaren intzidentziaren hazkundeari zor zaio soilik (% 4,8tik % 13,1era). Aldiz, guraso bakarreko familien kasuan, diru-sarreren pobrezia-mota horren goranzko joeraz aparte, metatze-pobreziaren alorreko balioak altu mantendu dira. Adierazle horren 2012ko balioa –% 4,7– EAEko batez bestekoa gainditzen duen bakarra da. Horrez gain, 2008ko % 4,1arekiko goranzko joera erakusten du.

Bakarrik bizi direnen kasuan, benetako pobreziaren tasa % 6,9 da. Hori ere EAEko batez bestekoaren gainetik dago. Kasu horretan, hala ere, balioak 2008an lortutakoen (% 6,4) antzekoak dira. Mantenu-pobreziaren tasa % 10,4an egonkortu egin da, eta metatze-pobreziaren intzidentzia % 2,2tik % 1,2ra jaitsi da.

2012an, egoera positiboena bikotekide baten inguruan sortutako etxekoen unitateetan bizi diren pertsonena da. Aurtengo benetako pobrezia-tasa % 3,7 da seme-alabak dituzten bikotekideen etxekoen unitateei dagokienez (% 3,3, 2008an), eta % 2,5, seme-alabarik ez duten bikotekideen etxekoen unitateei dagokienez (% 1,9, 2008an).

Etxekoen unitateen mota horiek pisu erlatibo handia dute, eta, horrez gain, pobreziaren intzidentzia puntu bat inguru igo da horietan bizi direnen artean; hori dela eta, bikotekideen inguruan sortutako etxekoen unitateetan (seme-alabekin edo seme-alabarik gabe) bizi diren pertsonek benetako pobrezia-egoera gehienak jaso dituzte 2012an, guztizkoaren % 51,1, hain zuzen. Ehuneko hori, ostera, 2008an lortutako % 58,1 baino nabarmen txikiagoa da. Bakarrik bizi direnen pisu erlatiboak ere behera egin du (% 13,5etik % 12,5era). Guraso bakarreko familiena eta beste familia-talde batzuena, berriz, % 28,4tik % 36,4ra igo da. Hazkunde hori, funtsean, guraso bakarreko familiekin lotzen da, 2008-2012 aldian, benetako pobrezia-errealeko egoeretan duten presentzia % 26,6tik % 32,7ra igaro baita.

**Adingabekoekin eta haurren pobreziarekin lotutako inpaktua**

Guraso bakarreko familien eta beste familia-talde batzuen artean, benetako pobrezia-tasa altua da. Era berean, seme-alabak dituzten bikotekideek pisu kuantitatibo handia dute egoera horien banaketan. Horien eraginez, talde pobreetan, adingabeak dituzten etxekoen unitateen presentzia handia da. Hala, benetako pobrezia-egoeran dauden pertsonen % 53, 14 urtetik beherako adingabekoak dauden etxekoen unitateak dira. Kasu horietan, benetako pobrezia-tasa % 8,5 da. Adingabekorik ez dagoen etxekoen unitateetan bizi diren pertsonen kasuan, berriz, tasa hori % 3,7 da.

Hala ere, pobrezia-tasaren hazkundea handiagoa da adingabekorik ez dagoen etxekoen unitateetan bizi diren petsonen artean; tasa % 2,4tik % 3,7ra igo da. Adingabekoak dauden etxekoen unitateetako pertsonen kasuan, aldiz, % 7,6tik % 8,5ra igo da. Izan ere, 2008-2012 aldian % 63,1etik % 53,8ra jaitsi da hamalau urtetik beherakoak dauden etxekoen unitateetako pertsonen pisua.

Hamalau urtetik beheragoko pertsonak modu bereizian hartuz gero, benetako pobrezia-egoeretan pisu erlatiboak izandako beherakada antzemanezina da ia (% 24tik % 23,8ra). 2018 eta 2012 bitartean, benetako pobrezia-egoerak % 7,3tik % 9,5era igo dira hamalau urtetik beheragokoen kasuan, hamalau urtetik gorako pertsonei eragiten dien % 3,7 eta % 4,6 arteko hazkundearen antzekoa, proportzionaltasunari dagokionez. Goranzko joera mantenu-pobrezian (%,9tik % 11,8ra) zein metatze-pobrezian (% 1,8tik % 2,6ra) hauteman dezakegu. Diru-sarrerekin lotutako pobreziaren hazkundea, aldiz, hamalau urtetik gorakoen kasuan gertatu da bakarrik (% 5,1etik % 6,6ra).

b) **Erreferentziazko pertsona nagusi gisa emakume bat duten etxekoen unitateak**

Sexuaren araberako pobrezia-moten intzidentziaren analisiak emakumeak buru diren etxekoen unitateek egoera txarrena jasaten dutela erakutsi du kasu guztietan. Emakumeak buru diren etxekoen unitateetan, izan ere, benetako pobreziaren intzidentzia hiru aldiz handiagoa da (% 11,1; eta beste kasuan % 3,7). Gainera, gizonak buru diren etxekoen unitateen kasuan, hazkundea txikia da (% 3,3tik % 3,7ra igaro da 2008-2012 aldian); pertsona nagusiak emakumeak diren etxeko unitateen kasuan, ordea, % 8,8tik % 11,1era igo da. Nolanahi ere, goranzko joera hori mantenu-pobreziarekin lotzen da soil-soilik (% 10,2tik % 12,6ra igaro da).

Baina sexua aldagaiak biztanlerian duen eragina aintzat hartuta, eta alde batera utzita etxekoen unitatearen pertsona nagusiaren sexua, benetako pobrezia gizonezkoen artean gehiago handitu dela antzeman dugu. Era horretan, gizonezkoen kasuan, tasa % 4tik % 5,4ra igo da, eta emakumezkoena baino pixka bat handiagoa izatera iritsi da 2012an (emakumeen tasa, 2008an, % 4,3zen, eta 2012an, % 5,2ra igaro da). 2008 eta 2012 urteen artean, benetako pobreziaren moduetan gizonezkoek duten pisua % 46,6tik % 48,7ra handitu da.

c) **Gazteen etxekoen unitateak**

Pobrezia-problematikek eragin handiagoa dute gazteen etxekoen unitateetan. Era horretan, benetako pobreziaren intzidentzia handiena 35 urtetik beheragoko (% 18) edo 35 eta 44 urte arteko (% 7,4) pertsonak buru diren etxekoen unitateetan dago. Inpaktua nabarmen txikitzen da, ordea, 45 urtetik gorako pertsona baten mende dauden banako mendekoen artean: 45 eta 54 urte arteko pertsonen etxekoen unitateetan, % 4,1; 55 eta 64 urte arteko erreferentziako pertsonen kasuan, % 2,9; eta 65 urtetik gorako pertsonen etxekoen unitateetan, berriz, % 1,7. Hori horrela izanik,

funtsezko datua da benetako pobrezia-egoeren % 62,2 honako hauei dagokiela: 45 urtetik beherako pertsonek zuzentzen dituzten etxekoen unitateetan bizi den pertsonei.

2008ko eta 2012ko benetako pobreziaren datuak konparatuz, 35 urtetik beherako pertsonen etxekoen unitateei lotutako herritarren hazkuntza bereizgarria gertatu da. Kasu horretan, tasa % 9,4tik % 18ra handitu da, mantenu-pobreziaren hazkunde handiari lotuta (% 11,8tik % 19,7ra), baita metatze-pobreziaren goranzko joerari lotuta ere (% 2,7tik % 3,9ra).

Tankerako joera gertatzen da 45 eta 54 urteko pertsonen etxekoen unitateetako herritarren bilakaeran ere, tasen hazkundea askoz ere txikiagoa izan den arren. Kasu horietan, benetako pobrezia-tasa % 2,6tik % 4,1era igo da, eta zifra hori EAEko batez besteko orokorra baino txikiagoa da. Bestalde, 35 eta 44 urte arteko pertsona batek zuzentzen dituen etxekoen unitateetan bizi diren herritarren benetako pobrezia-tasa ez da aldatu 2012an (% 7,4 eta % 7,6 2008an), zifra hori altua den arren. Talde horretan, metatze-pobrezia txikitu egin da (% 3tik % 1,7ra), eta horrek mantenu-pobreziaren hazkundea (% 8,4tik % 10era) konpentsatzea ahalbidetzen du.

Benetako pobrezia-tasa 55 urtetik gorakoen etxekoen unitateetako herritarren artean ere egonkortu da; hala ere, % 3tik beherako benetako pobrezia-tasen oinarriaren gainean dago.

Pobrezia-tasak pertsona bakoitzaren adinaren arabera aztertzean ere azaldutako joerak antzeman daitezke, nahiz eta herritar gazteenen urritasuna nabarmentzen den. Hala, 35 urtetik gora benetako pobrezia-tasak batez bestekoaren antzerakoak edo hura baino txikiagoak diren, talde gazteagoen artean tasak % 7,2 eta % 9,5 artekoak dira. Izan ere, 35 urtetik beherako herritarrak benetako pobrezia-egoerak jasaten dituen taldearen % 59,3 dira, 2008an baino % 4,5 gehiago (% 54,8).

d) **Atzerritarren etxekoen unitateak**

Atzerritar batek zuzendutako etxekoen unitateetan pobrezia-modu guztien tasak altuegiak izaten jarraitzen dute. Benetako pobrezia-tasa % 2,9tik % 3,3ra soilik handitu da 2008-2012 aldian Estatuko herritartasuna duten herritarren artean, baina atzerriko herritarren etxekoen unitateetan bizi direnen artean % 27,7tik % 32ra handitu da. 2008tik 2012ra bitartean, benetako pobrezia-egoeren multzoan, pertsona horien kopurua % 34,1etik % 41,2ra igaro da.

Arrazoi nagusia mantenu-pobreziak talde horiengan duen bestelako eragina da: % 34,3 eta % 5,3, eta pertsona atzerritarren etxekoen unitateetako herritarren artean nabarmen handitu da 2008ko zifrekin alderatuz (% 28,5 pertsona atzerritarren eta % 4,4 herritar nazionalen etxekoen unitateetako kideen artean). Gainera, metatze-pobreziaren eragina ere handitu da (% 3,4tik % 4,5era 2008tik 2012ra), eta herritar nazionalen kasuan beheranzko joera txikia du (% 1,4tik %1,2ra).

e) **Lanbide egonkor bat izateko aukerarik ez duten pertsona aktiboen etxekoen unitateak**

EAEko batez bestekoaren gaineko benetako pobrezia moduen zifrak lan egonkorrik gabeko pertsona aktibodun etxekoen unitateekin lotzen dira. Benetako pobrezia-tasa biztanle aktiborik gabeko etxekoen unitateetan % 3,1ekoa da, eta % 2ren ingurukoa lan egonkorra duen pertsonaren bat duten etxekoen unitateetan; baina % 11,8koa, pertsona aktibo guztiek lan ezegonkorra duten etxekoen unitateetan; % 30,6koa, pertsona aktiboek lan ezengokorra duten eta langabeak diren etxekoen unitateetan, eta % 37,9koa pertsona aktibo guztiak lanik gabe dauden etxekoen unitateetan.

Aipatutako azken hiru taldeak –hau da, pertsona aktibo guztiak lanik gabe edo lan ezegonkorrekin dituzten etxekoen unitateak– 2012ko benetako pobrezia-egoeren % 76,4 dira. Hori 2008ko % 57,8ko portzentajea baino nabarmen handiagoa da. Zifra horretan, pertsona aktibo guztiak langabezian dituzten etxekoen unitateak benetako pobrezia-egoeran dauden pertsonen % 46,8 dira, 2008ko zifraren (% 26,2) ia bikoitza.

Hazkunde handi horrek, ordea, ez du pertsona aktibo guztiak langabezian dituen etxekoen unitateen pobrezia arrisku handiagoa adierazten. Izan ere, benetako pobreziaren inpaktua txikitu egin da talde horretakoen artean 2008tik 2012ra: % 49,7tik % 37,9ra igaro da, eta mantenu-pobrezian eta metatze-pobrezian jaitsiera paraleloak izan dira. Pertsona langabeak eta landun ezegonkorrak dauzkaten etxekoen unitateek ere bilakaera paradoxiko hori izan dute. Benetako pobrezia-tasa % 36,4tik %30,6ra jaitsi da. Horren arabera, benetako pobrezia-arazoak dituzten pertsonen multzoan bi talde horiek duten portzentaje handiaren arrazoia (% 62,1 dira 2012an, eta % 40,8 2008an), langabeziaren igoeraren ondorioz, talde horietan Euskadiko gizarteko herritarren presentzia erlatiboa handitu izana da, ez urritasun konparatu handiagoa.

Hala, 2008 eta 2012 artean benetako pobreziaren goranzko joera izan duen eta gaur egun % 3tik gorako pobrezia-tasa duen talde bakarra dago: pertsona aktibo guztiak landun ezegonkorrak diren etxekoen unitateetakoak. Kasu horretan, benetako pobrezia-tasa % 9,7tik % 11,8ra handitu da 2008tik 2012ra, mantenu-pobreziaren hazkundeak bultzatuta (aldi berean % 7,8tik % 13,7ra igo da).

**Ikasketa-mailaren eragina**

Lanbidearen arloan, ikasketa-maila aztertzea ere argigarria da. Oro har, aztertutako biztanleen artean, etxekoen unitateko pertsona nagusiaren ikasketa-maila zenbat eta txikiagoa izan, orduan

eta handiagoa izango da pobrezia jasateko arriskua. Hala, benetako pobreziaren tasarik handiena ikasketarik gabeko pertsonen mende dauden etxekoen unitateena da, zehazki, % 15,8koa, 2008ko % 8,8koa baino nabarmen handiagoa. Lanbide-ikasketak ez diren bigarren mailako ikasketak edo lehen-mailako lanbide-ikasketak dituzten etxekoen unitateetako titularren kasuan, tasa 2008ko baino nabarmen handiagoa da % 5,2tik % 8,9ra igo baita. Lehen-mailako ikasketak dituzten erreferentzia-pertsonen etxekoen unitateetakoen artean hazkundea txikiagoa izan da (% 5,4tik % 6,7ra); beraz, talde horretakoen benetako pobrezia-tasa bigarren mailako ikasketak dituztenen titularren etxeetakoena baino zertxobait txikiagoa da.

Hala, 2008an bezalaxe, EAEko batez bestekoaren azpitik dauden tasa bakarrak ikasketa kualifikatuak (goi-mailako lanbide heziketa edo unibertsitate-ikasketak) dituen herritar batek zuzentzen dituen etxekoen unitateetako herritarrei dagokie. Kasu horretan, benetako pobrezia-tasa % 1ekoa da, 2008an baino txikiagoa (% 1,2). Bereziki deigarria da ikustea benetako pobrezia kasuen % 91,8 ikasketa kualifikaturik gabeko pertsona batek zuzentzen dituen etxekoen unitateei dagokiela 2012an.

#### *2.1.1.2. Gerturatze sintetikoa*

15. Euskadiko etxekoen unitateetako pertsona nagusien ezaugarri nagusiak kontuan hartuz, benetako pobreziari dagokionez, Euskadiko gizartean polarizazio argia dagoela suma daiteke. Alde negatiboan, 2012an, % 15eko edo hortik gorako tasak izateagatik hainbat talde nabarmentzen dira. Aztertutako pobrezia-egoeren banaketan duten eragin erlatiboaren arabera ordenaturik, benetako pobrezia gehien jasaten duten hiru etxekoen unitate nagusiek ondoko ezaugarri hauek dituzte:

a) Erreferentziako pertsona moduan Europar Batasunetik kanpoko herritartasuna duen pertsonadun etxekoen unitateak.

Etxekoen unitate horietan, aztertutako pobrezia-egoeren % 36 biltzen da. Benetako pobrezia-tasa herritar horien artean % 37,3koa da; 2008an, ordea, % 34,5ekoa zen.

b) Lanbide egonkorrik gabeko eta 45 urte baino gutxiagoko erreferentziako pertsona duten etxekoen unitateak.

Etxekoen unitate horietan, aztertutako pobrezia-egoeren % 18,2 biltzen da. Benetako pobrezia-tasa % 19koa da, 2008koaren antzekoa (% 19,1).

c) Lanbide egonkorrik ez duten emakumeek zuzentzen dituzten guraso bakarreko familiak.

Benetako pobrezia bizi duten herritarren % 14,9 etxekoen unitate horietakoak dira. Benetako pobrezia-tasa % 36,3koa da, 2008koa baino nabarmen handiagoa (% 27,9). Horietako gehienen erreferentziako pertsonek 45 urte baino gutxiago dituzte, eta haien benetako pobrezia-tasa % 63,8koa da (% 60,7koa 2008an), eta benetako pobrezia-egoera guztien % 10,2. Termino erlatiboetan, ordea, egoera-okertze gehienak 45 urtetik gorako emakume batek zuzentzen dituen guraso bakarreko familietan gertatu dira. Kasu horretan, benetako pobrezia-tasa % 9,7tik % 18,8ra igo da 2008tik 2012ra.

2008an ere beste talde batzuek % 15eko benetako pobrezia-tasa gainditzen zuten, baina askoz ere eragin murritzagoa zuten aztertutako egoeren banaketan. Kasu horretan, ezaugarri hauek dituzten pertsonek zuzentzen zituzten etxekoen unitateak:

* Ekonomikoki aktibo egon arren, lanbide egonkorrik ez duten eta bakarrik dauden emakumeak. Emakume horiek aztertutako pobrezia kasu guztien % 3 ziren. Benetako pobrezia-tasa % 21,1ekoa da, 2008koa baino txikiagoa (% 24,4). Jaitsiera hori batez ere 45 urtetik gorako emakumeen artean gertatu da (% 30,1etik % 23,3ra). Aitzitik, 45 urtetik beherako emakumeen artean benetako pobrezia nabarmen handitu da (% 5,4tik % 16,1era).

* Aktibo izan arren, lanbide egonkorrik ez duten eta bakarrik dauden gizonak. Aztertutako pobrezia-kasuen % 2,9 talde honetakoak dira. Haien benetako pobrezia-tasa % 22,6koa da. Hori ere 2008koa baino txikiagoa (% 24,1).

* Guraso bakarreko familietako gizon erantzuleak. Aztertutako pobrezia-kasuen % 3,8 dira. Benetako pobrezia-tasa nabarmen handitu da talde honetan. 2008-2012 aldian % 7,4 izatetik % 18,2 izatera igaro da.

Oro har, azaldutako taldeetako pertsonak 2012an antzemandako benetako pobrezia-kasuen % 78,9 dira, eta 2008an % 68,6 ziren. Aztertutako taldeekin lotutako pertsonen artean benetako pobrezia-tasa % 25,4tik % 28ra handitu da 2008tik 2012ra.

Aztertutako taldeek partekatzen duten ezaugarri nagusia hauxe da: lanbide egonkorrik gabeko erreferentziako pertsonak dauzkatela. Arrisku-faktore hori atzerritartasunarekin, guraso bakartasunarekin, eta, bi pertsonatan edo gehiagotan oinarritutako etxekoen unitateetan, gaztetasunarekin lotu da. Aztertutako taldeen artean, benetako pobrezia-tasetatik irten den bakarra

lanbide egonkorrik ez duten 45 urtetik gorako pertsona aktiboek zuzentzen dituzten eta bi pertsonatan edo gehiagotan oinarritutako etxekoen unitateak dira.

Orain arte azaldutako guztia alde batera utzita, benetako pobrezia-tasak % 3tik beherakoak dira gainerako talde demografiko gehienetan. Halaxe gertatzen da lan egonkorra duten familiaburudun etxeko unitateetan, baita erreferentzia gisa 65 urtetik gorako gizonak dituztenetan ere. Etxekoen unitate horietan bizi diren biztanleen artean, benetako pobrezia-tasa murriztu egin ohi da, oro har: 2008-2012 laurtekoan, % 1,2tik % 0,8ra jaitsi da horietan bildutako pertsonetan. Beherakada nagusia lan egonkordun emakume batek ardurapeko guraso bakarreko familietan nabari da: % 6,9tik % 2,7 murrizten da kasu horietan benetako pobrezia-tasa. Erreferentziako etxekoen unitateek apenas biltzen dute 2012an benetako pobrezia-kasu guztien % 9,9.

Kopuruok % 3-4 bitartekoak dira 45 urtetik gorako eta lan egonkorrik gabeko familiaburua duten etxekoen unitateetan, baita erreferentziako pertsona 65 urtetik goragoko emakumea den etxekoen unitateetan ere; alderatuta murritzak, beraz. Bi kasuetan, pixkatxo bat handitzen da benetako pobrezia-tasa 2008 eta 2012 artean (% 2,8tik 3,9ra kontuan hartutako familia-taldeetan, eta % 2,4tik 3,1era 65 urtetik gorako emakumeak buru dituzten etxekoen unitateetako pertsonetan). Bi taldeek benetako pobrezia-egoeren % 11,2 bildu dute 2012an.

### 2.1.2.Benetako ongizate-egoerarik gabeko talde nagusiak

16. Benetako ongizate-gabezia kasuek aurretik aitatutako eskema berari jarraitzen diote. Hala, arrisku handieneko taldeen (EBtik kanpoko herritartasuna duten edota lanpostu egonkorrik gabeko pertsonez osatuak, salbuespen gisa 45 urtetik gorako pertsona bat buru duten familia-taldeak hartuta) benetako ongizate-gabezia % 41,5 da; 2008koa baino handiagoa, orduan % 36,7 baitzen.

Kontuan hartutako etxekoen unitateetan, benetako ongizate-gabeziaren tasa % 20 baino handiagoa da. Lanpostu egonkorrik gabeko emakumeak buru dituzten guraso bakarreko familien kasuan, berriz, % 30 baino handiagoak dira tasok, baita lanpostu egonkorrik gabeko 65 urtetik gorako pertsona bakarren artean eta EB kanpotik etorritako biztanledun etxekoen unitateetan ere. Tasak % 50 ingurukoak edota handiagoak dira aipatutako ezaugarriak dituzten atzerritarrez osatutako etxekoen unitateen kasuan, baita pertsona bakarren kasuan ere; era berean, tasa berberak dituzte unitateko erreferentzia-pertsona lanpostu egonkorrik gabeko 45 urtez azpiko emakumea denean ere.

Lehen adierazitako arriskudun etxekoen unitateetako herritarrak direla-eta, benetako ongizate-gabezia egoerak % 50,6tik % 61,4ra handitu dira 2008-2012 bitarteko lau urteetan. Egoera mota horren pisu erlatiboa, ordea, benetako pobreziarekin lotuta hautemandakoa baino txikixeagoa da. Benetako pobrezia moduen eragin txikia duten taldeen ekarpena, beraz, handiagoa da benetako ongizate-egoera arazoak kontuan hartzen baldin baditugu.

Esparru honetan bi talde desberdinduko ditugu. Alderik onenean, ongizate-gabeziaren tasa murriztu egin da 2008 eta 2012 bitartean, etxekoen unitateko pertsona nagusiak lanpostu egonkorra daukan kasuetan, non eta guraso bakarreko unitateak ez diren edota unitateek ez duten 65 urtetik gorako gizonezko bat buru. Kasu horretan, benetako ongizate-gabeziaren tasa % 3,8tik % 2,7ra jaitsi zen 2008 eta 2012 bitartean (% 1,1etik % 0,7ra benetako pobreziari dagokionez). Era berean, unitateok benetako prekarietate egoerari egindako ekarpena % 33,2tik % 18,1era murriztu da 2008tik 2012ra bitartean.

Alderik negatiboenean, ongizate-gabeziaren tasa orokorra % 7,2tik % 10,9ra handitu da, hiru etxekoen unitate mota hauei lotutako populazioan: guraso bakarreko familiak, erreferentziazko pertsonak lan egonkorra duenean; familiaburua lan egonkorrik gabeko 45 urtetik gorako pertsona bat denean; eta unitateko erreferentziazko pertsona 65 urtetik gorako emakume bat denean. Hiruren artean, benetako ongizate-gabeziako egoeren % 20,5 osatu dute 2008 eta 2012 urteen artean.

Lanpostu egonkorra duten 45 urtetik gorako emakumeek gidatutako guraso bakarreko unitateetan ongizate-gabeziaren tasa pixkatxo bat murriztu da 2008 eta 2012 artean (% 12,6tik % 11ra); 65 urtetik gorakoetan, ordea, % 8tik % 11,7ra handitu da. Eta are gehiago handitu da lanpostu egonkorrik ez duten 45 urtetik gorako pertsona bat buru duten familia-taldeetan (% 5,6tik % 10,4ra). Euskadiko gizartearen alderdirik onenean egonda ere, 2008-2012 bitarteko joerak erakusten du bi taldeotan pobrezia moduak eta benetako ongizate-gabezia handitu egin direla, eta hazkunde hori handiagoa dela lanpostu egonkorrik ez daukaten pertsonadun familia-taldeetan.

**Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren bilakaera, familia-talde bakoitzeko. 2008-2012**
**Familia-etxebizitzetan bizi direnak**
**Intzidentzia %-tan**

| Pobrezia- edo prekarietate-mota | | Bakarrik bizi diren | Seme-alabarik | Seme-alabadun | Guraso bakarreko | Bestelako familia- | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Mantenu-pobrezia | 2008 | 10,4 | 3,9 | 4,4 | 13,7 | 4,8 | 5,7 |
| | 2012 | 10,4 | 5,2 | 5,3 | 19,2 | 13,1 | 7,3 |
| Metatze-pobrezia | 2008 | 2,2 | ,9 | 1,2 | 4,1 | 3,7 | 1,5 |
| | 2012 | 1,2 | 1,2 | 1,1 | 4,7 | ,0 | 1,4 |
| Benetako pobrezia | 2008 | 6,4 | 1,9 | 3,3 | 13,2 | 6,1 | 4,2 |
| | 2012 | 6,9 | 2,5 | 3,7 | 18,2 | 10,1 | 5,3 |
| Benetako ongizate-gabezia | 2008 | 12,8 | 4,8 | 6,8 | 19,9 | 13,6 | 8,2 |
| | 2012 | 16,1 | 6,2 | 7,2 | 29,1 | 16,1 | 10,1 |

**% horizontalak**

| Pobrezia- edo prekarietate-mota | | Bakarrik bizi diren | Seme-alabarik | Seme-alabadun | Guraso bakarreko | Bestelako familia- | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Mantenu-pobrezia | 2008 | 16,2 | 12,2 | 50,3 | 20,3 | 1,0 | 100,0 |
| | 2012 | 13,7 | 15,7 | 42,1 | 25,1 | 3,4 | 100,0 |
| Metatze-pobrezia | 2008 | 13,0 | 10,1 | 51,3 | 22,7 | 3,0 | 100,0 |
| | 2012 | 7,7 | 18,1 | 42,9 | 31,3 | ,0 | 100,0 |
| Benetako pobrezia | 2008 | 13,5 | 8,0 | 50,1 | 26,6 | 1,8 | 100,0 |
| | 2012 | 12,5 | 10,5 | 40,6 | 32,7 | 3,7 | 100,0 |
| Benetako ongizate-gabezia | 2008 | 13,8 | 10,3 | 53,4 | 20,4 | 2,0 | 100,0 |
| | 2012 | 15,2 | 13,5 | 40,9 | 27,4 | 3,1 | 100,0 |

Iturria: PGDI, 2008-2012.
Oharra: Mantenu-pobreziaren eta benetako pobreziaren adierazle egokituak erabili dira.

**Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren bilakaera, etxekoen unitatean 14 urtetik beherako adingabekoak egoteagatik. 2008-2012.**
**Familia-etxebizitzetan bizi direnak**
**Intzidentzia %-tan**

| Pobrezia- edo prekarietate-mota | | Adingaberik gabe | Adingabeekin | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| Mantenu-pobrezia | 2008 | 4,0 | 8,8 | 5,7 |
| | 2012 | 5,6 | 10,7 | 7,3 |
| Metatze-pobrezia | 2008 | 1,2 | 2,1 | 1,5 |
| | 2012 | ,8 | 2,7 | 1,4 |
| Benetako pobrezia | 2008 | 2,4 | 7,6 | 4,2 |
| | 2012 | 3,7 | 8,5 | 5,3 |
| Benetako ongizate-gabezia | 2008 | 5,5 | 13,2 | 8,2 |
| | 2012 | 8,4 | 13,3 | 10,1 |

**% horizontalak**

| Pobrezia- edo prekarietate-mota | | Adingaberik gabe | Adingabeekin | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| Mantenu-pobrezia | 2008 | 46,1 | 53,9 | 100,0 |
| | 2012 | 51,2 | 48,8 | 100,0 |
| Metatze-pobrezia | 2008 | 51,4 | 48,6 | 100,0 |
| | 2012 | 37,5 | 62,5 | 100,0 |
| Benetako pobrezia | 2008 | 36,9 | 63,1 | 100,0 |
| | 2012 | 46,2 | 53,8 | 100,0 |
| Benetako ongizate-gabezia | 2008 | 43,7 | 56,3 | 100,0 |
| | 2012 | 56,1 | 43,9 | 100,0 |

Iturria: PGDI, 2008-2012.
Oharra: Mantenu-pobreziaren eta benetako pobreziaren adierazle egokituak erabili dira.

**Adinaren araberako benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren bilakaera (14 urtetik gorako edo beherako biztanleria). 2008-2012**
**Familia-etxebizitzetan bizi direnak**
**Intzidentzia %-tan**

| Pobrezia- edo prekarietate-mota | | < 14 urte | 14 urte edo gehiago | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| Mantenu-pobrezia | 2008 | 9,3 | 5,1 | 5,7 |
| | 2012 | 11,8 | 6,6 | 7,3 |
| Metatze-pobrezia | 2008 | 1,8 | 1,5 | 1,5 |
| | 2012 | 2,6 | 1,3 | 1,4 |
| Benetako pobrezia | 2008 | 7,3 | 3,7 | 4,2 |
| | 2012 | 9,5 | 4,6 | 5,3 |
| Benetako ongizate-gabezia | 2008 | 12,9 | 7,4 | 8,2 |
| | 2012 | 14,1 | 9,4 | 10,1 |

**% horizontalak**

| Pobrezia- edo prekarietate-mota | | < 14 urte | 14 urte edo gehiago | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| Mantenu-pobrezia | 2008 | 22,4 | 77,6 | 100,0 |
| | 2012 | 21,5 | 78,5 | 100,0 |
| Metatze-pobrezia | 2008 | 16,2 | 83,8 | 100,0 |
| | 2012 | 23,5 | 76,5 | 100,0 |
| Benetako pobrezia | 2008 | 24,0 | 76,0 | 100,0 |
| | 2012 | 23,8 | 76,2 | 100,0 |
| Benetako ongizate-gabezia | 2008 | 21,7 | 78,3 | 100,0 |
| | 2012 | 18,6 | 81,4 | 100,0 |

Iturria: PGDI, 2008-2012.
Oharra: Mantenu-pobreziaren eta benetako pobreziaren adierazle egokituak erabili dira.

**Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren bilakaera, familiaburuaren sexuaren arabera. 2008-2012**
**Familia-etxebizitzetan bizi direnak**
**Intzidentzia %-tan**

| Pobrezia- edo prekarietate-mota | | Gizonak | Emakumezkoak | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| Mantenu-pobrezia | 2008 | 4,8 | 10,2 | 5,7 |
| | 2012 | 5,8 | 12,6 | 7,3 |
| Metatze-pobrezia | 2008 | 1,2 | 3,2 | 1,5 |
| | 2012 | 1,2 | 2,5 | 1,4 |
| Benetako pobrezia | 2008 | 3,3 | 8,8 | 4,2 |
| | 2012 | 3,7 | 11,1 | 5,3 |
| Benetako ongizate-gabezia | 2008 | 6,7 | 15,7 | 8,2 |
| | 2012 | 7,4 | 20,0 | 10,1 |

**% horizontalak**

| Pobrezia- edo prekarietate-mota | | Gizonak | Emakumezkoak | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| Mantenu-pobrezia | 2008 | 71,2 | 28,8 | 100,0 |
| | 2012 | 63,7 | 36,3 | 100,0 |
| Metatze-pobrezia | 2008 | 66,3 | 33,7 | 100,0 |
| | 2012 | 63,8 | 36,2 | 100,0 |
| Benetako pobrezia | 2008 | 66,1 | 33,9 | 100,0 |
| | 2012 | 56,2 | 43,8 | 100,0 |
| Benetako ongizate-gabezia | 2008 | 69,2 | 30,8 | 100,0 |
| | 2012 | 58,4 | 41,6 | 100,0 |

Iturria: PGDI, 2008-2012.
Oharra: Mantenu-pobreziaren eta benetako pobreziaren adierazle egokituak erabili dira.

**Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren bilakaera, sexuaren arabera. 2008-2012**
**Familia-etxebizitzetan bizi direnak**
**Intzidentzia %-tan**

| Pobrezia- edo prekarietate-mota | | Gizona | Emakumeak | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| Mantenu-pobrezia | 2008 | 5,3 | 6,1 | 5,7 |
| | 2012 | 7,2 | 7,3 | 7,3 |
| Metatze-pobrezia | 2008 | 1,5 | 1,6 | 1,5 |
| | 2012 | 1,6 | 1,3 | 1,4 |
| Benetako pobrezia | 2008 | 4,0 | 4,3 | 4,2 |
| | 2012 | 5,4 | 5,2 | 5,3 |
| Benetako ongizate-gabezia | 2008 | 7,9 | 8,4 | 8,2 |
| | 2012 | 9,6 | 10,5 | 10,1 |

**% horizontalak**

| Pobrezia- edo prekarietate-mota | | Gizona | Emakumeak | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| Mantenu-pobrezia | 2008 | 45,2 | 54,8 | 100,0 |
| | 2012 | 47,3 | 52,7 | 100,0 |
| Metatze-pobrezia | 2008 | 46,3 | 53,7 | 100,0 |
| | 2012 | 52,0 | 48,0 | 100,0 |
| Benetako pobrezia | 2008 | 46,6 | 53,4 | 100,0 |
| | 2012 | 48,7 | 51,3 | 100,0 |
| Benetako ongizate-gabezia | 2008 | 46,9 | 53,1 | 100,0 |
| | 2012 | 45,8 | 54,2 | 100,0 |

Iturria: PGDI, 2008-2012.
Oharra: Mantenu-pobreziaren eta benetako pobreziaren adierazle egokituak erabili dira.

**Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren bilakaera, pertsona nagusiaren sexuaren arabera. 2008-2012**
**Familia-etxebizitzetan bizi direnak**
**Intzidentzia %-tan**

| Pobrezia- edo prekarietate-mota | | < 35 urte | 35-44 urte | 45-54 urte | 55-64 urte | > 65 urte | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Mantenu-pobrezia | 2008 | 11,8 | 8,4 | 3,8 | 4,8 | 3,2 | 5,7 |
| | 2012 | 19,7 | 10,0 | 5,3 | 4,7 | 4,2 | 7,3 |
| Metatze-pobrezia | 2008 | 2,7 | 3,0 | ,4 | ,7 | 1,3 | 1,5 |
| | 2012 | 3,9 | 1,7 | ,8 | ,1 | 1,9 | 1,4 |
| Benetako pobrezia | 2008 | 9,4 | 7,6 | 2,6 | 2,7 | 1,6 | 4,2 |
| | 2012 | 18,0 | 7,4 | 4,1 | 2,9 | 1,7 | 5,3 |
| Benetako ongizate-gabezia | 2008 | 14,4 | 13,2 | 6,1 | 5,3 | 5,0 | 8,2 |
| | 2012 | 28,2 | 11,6 | 9,3 | 4,9 | 6,6 | 10,1 |

**% horizontalak**

| Pobrezia- edo prekarietate-mota | | < 35 urte | 35-44 urte | 45-54 urte | 55-64 urte | > 65 urte | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Mantenu-pobrezia | 2008 | 17,2 | 36,9 | 15,9 | 16,3 | 13,6 | 100,0 |
| | 2012 | 24,3 | 31,0 | 18,7 | 11,7 | 14,2 | 100,0 |
| Metatze-pobrezia | 2008 | 14,3 | 49,0 | 6,8 | 9,4 | 20,4 | 100,0 |
| | 2012 | 24,2 | 27,2 | 14,1 | 1,6 | 32,8 | 100,0 |
| Benetako pobrezia | 2008 | 18,6 | 45,5 | 14,6 | 12,2 | 9,0 | 100,0 |
| | 2012 | 30,6 | 31,5 | 19,9 | 10,0 | 7,9 | 100,0 |
| Benetako ongizate-gabezia | 2008 | 14,6 | 40,4 | 17,7 | 12,5 | 14,8 | 100,0 |
| | 2012 | 25,2 | 26,0 | 23,8 | 8,9 | 16,1 | 100,0 |

Iturria: PGDI, 2008-2012.
Oharra: Mantenu-pobreziaren eta benetako pobreziaren adierazle egokituak erabili dira.

**Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren bilakaera, adinaren arabera. 2008-2012**
**Familia-etxebizitzetan bizi direnak**
**Intzidentzia %-tan**

| Pobrezia- edo prekarietate-mota | | < 15 urte | 15-24 urte | 25-34 urte | 35-44 urte | 45-54 urte | 55-64 urte | 65 urte eta gehiago | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Mantenu-pobrezia | 2008 | 9,1 | 6,9 | 5,3 | 5,8 | 3,3 | 5,6 | 4,3 | 5,7 |
| | 2012 | 11,7 | 8,4 | 9,8 | 7,4 | 5,1 | 5,4 | 4,6 | 7,3 |
| Metatze-pobrezia | 2008 | 2,0 | 2,2 | 1,6 | 2,3 | ,5 | ,6 | 1,5 | 1,5 |
| | 2012 | 2,7 | 1,7 | 1,8 | 1,6 | ,8 | ,6 | 1,0 | 1,4 |
| Benetako pobrezia | 2008 | 7,4 | 6,9 | 4,0 | 4,8 | 2,4 | 2,7 | 2,1 | 4,2 |
| | 2012 | 9,5 | 7,2 | 8,7 | 5,4 | 3,6 | 3,0 | 1,7 | 5,3 |
| Benetako ongizate-gabezia | 2008 | 13,0 | 11,2 | 7,0 | 9,9 | 5,5 | 5,1 | 6,0 | 8,2 |
| | 2012 | 14,1 | 14,2 | 15,1 | 10,3 | 8,1 | 6,0 | 5,8 | 10,1 |

**% horizontalak**

| Pobrezia- edo prekarietate-mota | | < 15 urte | 15-24 urte | 25-34 urte | 35-44 urte | 45-54 urte | 55-64 urte | 65 urte eta gehiago | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Mantenu-pobrezia | 2008 | 23,3 | 12,2 | 12,2 | 17,2 | 8,4 | 12,7 | 13,9 | 100,0 |
| | 2012 | 22,7 | 11,1 | 17,1 | 16,3 | 11,4 | 9,1 | 12,3 | 100,0 |
| Metatze-pobrezia | 2008 | 18,9 | 14,3 | 13,9 | 25,7 | 4,5 | 5,0 | 17,7 | 100,0 |
| | 2012 | 26,8 | 11,7 | 16,1 | 17,9 | 9,2 | 5,2 | 13,1 | 100,0 |
| Benetako pobrezia | 2008 | 25,8 | 16,5 | 12,4 | 19,3 | 8,1 | 8,3 | 9,5 | 100,0 |
| | 2012 | 25,3 | 13,2 | 20,9 | 16,4 | 11,1 | 6,9 | 6,3 | 100,0 |
| Benetako ongizate-gabezia | 2008 | 23,2 | 13,7 | 11,2 | 20,5 | 9,7 | 8,1 | 13,5 | 100,0 |
| | 2012 | 19,7 | 13,6 | 19,0 | 16,2 | 13,1 | 7,3 | 11,1 | 100,0 |

Iturria: PGDI, 2008-2012.
Oharra: Mantenu-pobreziaren eta benetako pobreziaren adierazle egokituak erabili dira.

**Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren bilakaera, pertsona nagusiaren sexuaren arabera. 2008-2012**
**Familia-etxebizitzetan bizi direnak**
**Intzidentzia %-tan**

| Pobrezia- edo prekarietate-mota | | Estatua | Munduko gainerako herrialdeak | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| Mantenu-pobrezia | 2008 | 4,4 | 28,5 | 5,7 |
| | 2012 | 5,3 | 34,3 | 7,3 |
| Metatze-pobrezia | 2008 | 1,4 | 3,4 | 1,5 |
| | 2012 | 1,2 | 4,5 | 1,4 |
| Benetako pobrezia | 2008 | 2,9 | 27,7 | 4,2 |
| | 2012 | 3,3 | 32,0 | 5,3 |
| Benetako ongizate-gabezia | 2008 | 6,4 | 39,9 | 8,2 |
| | 2012 | 7,1 | 51,0 | 10,1 |

**% horizontalak**

| Pobrezia- edo prekarietate-mota | | Estatua | Munduko gainerako herrialdeak | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| Mantenu-pobrezia | 2008 | 74,2 | 25,8 | 100,0 |
| | 2012 | 67,9 | 32,1 | 100,0 |
| Metatze-pobrezia | 2008 | 88,5 | 11,5 | 100,0 |
| | 2012 | 78,8 | 21,2 | 100,0 |
| Benetako pobrezia | 2008 | 65,9 | 34,1 | 100,0 |
| | 2012 | 58,8 | 41,2 | 100,0 |
| Benetako ongizate-gabezia | 2008 | 74,9 | 25,1 | 100,0 |
| | 2012 | 65,4 | 34,6 | 100,0 |

Iturria: PGDI, 2008-2012.
Oharra: Mantenu-pobreziaren eta benetako pobreziaren adierazle egokituak erabili dira.

**Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren bilakaera, herritartasunaren arabera. 2008-2012**
**Familia-etxebizitzetan bizi direnak**
**Intzidentzia %-tan**

| Pobrezia- edo prekarietate-mota | | Estatua | Munduko gainerako herrialdeak | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| Mantenu-pobrezia | 2008 | 4,6 | 26,0 | 5,7 |
| | 2012 | 5,6 | 31,2 | 7,3 |
| Metatze-pobrezia | 2008 | 1,4 | 3,0 | 1,5 |
| | 2012 | 1,2 | 4,4 | 1,4 |
| Benetako pobrezia | 2008 | 3,0 | 25,2 | 4,2 |
| | 2012 | 3,6 | 28,6 | 5,3 |
| Benetako ongizate-gabezia | 2008 | 6,5 | 39,3 | 8,2 |
| | 2012 | 7,5 | 46,2 | 10,1 |

**% horizontalak**

| Pobrezia- edo prekarietate-mota | | Estatua | Munduko gainerako herrialdeak | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| Mantenu-pobrezia | 2008 | 76,5 | 23,5 | 100,0 |
| | 2012 | 71,7 | 28,3 | 100,0 |
| Metatze-pobrezia | 2008 | 90,1 | 9,9 | 100,0 |
| | 2012 | 79,6 | 20,4 | 100,0 |
| Benetako pobrezia | 2008 | 69,0 | 31,0 | 100,0 |
| | 2012 | 64,4 | 35,6 | 100,0 |
| Benetako ongizate-gabezia | 2008 | 75,3 | 24,7 | 100,0 |
| | 2012 | 69,7 | 30,3 | 100,0 |

Iturria: PGDI, 2008-2012.
Oharra: Mantenu-pobreziaren eta benetako pobreziaren adierazle egokituak erabili dira.

**Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren bilakaera, pertsona nagusiaren ikasketa-mailaren arabera. 2008-2012**
**Familia-etxebizitzetan bizi direnak**
**Intzidentzia %-tan**

| Pobrezia- edo prekarietate-mota | | Ikasket. gabeak | Lehen mailakoa | Bigarren mailako ez prof. / LH I - Erdi Mailakoa | Kualifikatuak | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Mantenu-pobrezia | 2008 | 10,4 | 7,2 | 6,5 | 2,4 | 5,7 |
| | 2012 | 14,7 | 9,6 | 10,2 | 2,6 | 7,3 |
| Metatze-pobrezia | 2008 | 4,4 | 2,0 | 1,6 | ,5 | 1,5 |
| | 2012 | 7,8 | 2,2 | 1,2 | ,5 | 1,4 |
| Benetako pobrezia | 2008 | 8,8 | 5,4 | 5,2 | 1,2 | 4,2 |
| | 2012 | 15,8 | 6,7 | 8,9 | 1,0 | 5,3 |
| Benetako ongizate-gabezia | 2008 | 13,0 | 9,8 | 10,9 | 3,7 | 8,2 |
| | 2012 | 28,4 | 13,1 | 14,5 | 3,2 | 10,1 |

**% horizontalak**

| Pobrezia- edo prekarietate-mota | | Ikasket. gabeak | Lehen mailakoa | Bigarren mailako ez prof. / LH I - Erdi Mailakoa | Kualifikatuak | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Mantenu-pobrezia | 2008 | 6,5 | 61,5 | 18,7 | 13,2 | 100,0 |
| | 2012 | 3,6 | 51,0 | 32,2 | 13,3 | 100,0 |
| Metatze-pobrezia | 2008 | 10,2 | 63,5 | 16,6 | 9,6 | 100,0 |
| | 2012 | 9,7 | 59,6 | 18,4 | 12,3 | 100,0 |
| Benetako pobrezia | 2008 | 7,4 | 63,1 | 20,3 | 9,2 | 100,0 |
| | 2012 | 5,3 | 49,0 | 38,5 | 7,2 | 100,0 |
| Benetako ongizate-gabezia | 2008 | 5,6 | 58,1 | 21,9 | 14,3 | 100,0 |
| | 2012 | 5,0 | 50,4 | 32,8 | 11,8 | 100,0 |

Iturria: PGDI, 2008-2012.
Oharra: Mantenu-pobreziaren eta benetako pobreziaren adierazle egokituak erabili dira.

**Benetako pobrezia- eta prekarietate egoeren bilakaera etxekoen unitateen egoeren arabera, jarduerarekin, lanbidearekin eta langabeziarekin lotuta. 2008-2012**
**Familia-etxebizitzetan bizi direnak**
**Intzidentzia %-tan**

| Pobrezia- edo prekarietate-mota | | Aktibo guztiak egonkorrak | Aktibo egonkorrak edo ezegonkorrak | Aktibo egonkorrak, ezegonkorrak eta langabe potentzialak | Aktibo landun egonkorrak eta langabe potentzialak | Aktibo landun ezegonkorrak | Aktibo ezegonkorrak eta langabe potentzialak | Aktibo langabe potentzialak | Ez-aktiboak | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Mantenu-pobrezia | 2008 | 3,1 | ,2 | ,0 | 4,1 | 7,8 | 36,4 | 54,0 | 9,4 | 5,7 |
| | 2012 | 2,1 | ,4 | ,0 | 4,7 | 13,7 | 29,7 | 45,7 | 7,0 | 7,3 |
| Metatze-pobrezia | 2008 | ,5 | ,8 | ,0 | ,2 | 4,2 | 6,0 | 15,8 | 2,2 | 1,5 |
| | 2012 | ,3 | ,0 | 5,3 | ,7 | 3,4 | 2,9 | 10,9 | ,8 | 1,4 |
| Benetako pobrezia | 2008 | 1,4 | ,2 | ,0 | 2,4 | 9,7 | 36,4 | 49,7 | 5,7 | 4,2 |
| | 2012 | 1,1 | ,3 | 2,2 | 1,5 | 11,8 | 30,6 | 37,9 | 3,1 | 5,3 |
| Benetako ongizate-gabezia | 2008 | 4,0 | 4,5 | 11,4 | 7,0 | 16,5 | 47,3 | 61,2 | 10,1 | 8,2 |
| | 2012 | 3,2 | 1,4 | 9,9 | 8,3 | 26,9 | 47,3 | 49,3 | 7,8 | 10,1 |

**% horizontalak**

| Pobrezia- edo prekarietate-mota | | Aktibo guztiak egonkorrak | Aktibo egonkorrak edo ezegonkorrak | Aktibo egonkorrak, ezegonkorrak eta potentzial langabeak | Aktibo landun egonkorrak eta langabe potentzialak | Aktibo landun ezegonkorrak | Aktibo ezegonkorrak eta langabe potentzialak | Aktibo langabe potentzialak | Ez-aktiboak | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Mantenu-pobrezia | 2008 | 27,9 | ,5 | ,0 | 2,9 | 10,0 | 10,8 | 21,0 | 27,0 | 100,0 |
| | 2012 | 12,3 | ,8 | ,0 | 5,8 | 12,1 | 10,8 | 41,0 | 17,2 | 100,0 |
| Metatze-pobrezia | 2008 | 18,1 | 8,2 | ,0 | ,6 | 19,9 | 6,6 | 22,8 | 23,8 | 100,0 |
| | 2012 | 8,0 | ,2 | 7,6 | 4,4 | 15,3 | 5,4 | 49,4 | 9,7 | 100,0 |
| Benetako pobrezia | 2008 | 17,2 | ,7 | ,0 | 2,3 | 16,9 | 14,6 | 26,2 | 22,0 | 100,0 |
| | 2012 | 9,0 | ,7 | ,8 | 2,6 | 14,3 | 15,3 | 46,8 | 10,4 | 100,0 |
| Benetako ongizate-gabezia | 2008 | 25,5 | 9,0 | 1,2 | 3,4 | 14,7 | 9,7 | 16,5 | 20,1 | 100,0 |
| | 2012 | 13,3 | 1,9 | 2,0 | 7,4 | 17,2 | 12,5 | 31,9 | 13,7 | 100,0 |

Iturria: PGDI, 2008-2012.
Oharra: Mantenu-pobreziaren eta benetako pobreziaren adierazle egokituak erabili dira.

**Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren bilakaera, etxekoen unitatearen mota soziodemografikoaren edo pertsona nagusiaren arabera. 2008-2012**
**Familia-etxebizitzetan bizi direnak**
**Intzidentzia %-tan**

| Pobrezia- edo prekarietate-mota | Mantenu-pobrezia | | Metatze-pobrezia | | Benetako pobrezia | | Benetako ongizate-gabezia | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2008 | 2012 | 2008 | 2012 | 2008 | 2012 | 2008 | 2012 |
| Emak. Guraso bakarreko fam. Gur lan egonkorrik ez< 45 urte | 47,1 | 60,7 | 24,4 | 12,8 | 60,7 | 63,8 | 82,8 | 79,8 |
| Emak. Guraso bakarreko fam. Gur lan egonkorrik ez>= 45 urte | 15,4 | 20,3 | 2,2 | 1,4 | 9,7 | 18,8 | 19,3 | 31,9 |
| Emakumeak. Guraso bakarreko fam. Gur lan egonkorra | 6,7 | 3,7 | 3,7 | 1,0 | 6,9 | 2,7 | 12,6 | 11,0 |
| Emak. bakarrik. Lan egonkorrik ez < 45 urte | 5,4 | 24,0 | 8,5 | 4,1 | 5,4 | 16,1 | 27,6 | 48,4 |
| Emak. bakarrik. Lan egonkorrik ez >= 45 urte | 44,5 | 42,4 | 1,6 | 3,6 | 30,1 | 23,3 | 39,4 | 38,2 |
| Emak. bakarrik. < 65 lan egonkorra | 9,4 | ,7 | 2,2 | ,0 | 4,1 | ,7 | 6,7 | 4,4 |
| Giz. bakarrik < 65 lan egonkorra | 1,3 | ,9 | ,2 | ,5 | ,0 | ,5 | 1,7 | 3,3 |
| Giz. bakarrik < 65 lan egonkorrik ez | 35,5 | 29,6 | 6,7 | 2,3 | 24,1 | 22,6 | 29,0 | 35,5 |
| Familia-taldeak Gur < 45 urte lan egonkorrik ez | 13,5 | 21,7 | 9,7 | 7,9 | 19,1 | 19,0 | 26,1 | 24,5 |
| Familia-taldeak Gur >= 45 urte lan egonkorrik ez | 5,9 | 7,1 | 1,4 | ,8 | 2,8 | 3,9 | 5,6 | 10,4 |
| Familia-taldeak Gur < 45 urte lan egonkorra | 3,8 | 3,3 | ,9 | ,0 | 1,3 | ,6 | 5,0 | 2,0 |
| Familia-taldeak Gur >= 45 urte lan egonkorra | 1,2 | ,9 | ,2 | ,1 | ,8 | ,6 | 3,2 | 2,1 |
| Gizonak > 65 urte | 2,8 | 3,4 | ,9 | 1,6 | 1,1 | 1,0 | 3,3 | 4,4 |
| Emakumeak >65 urte | 4,1 | 5,8 | 2,2 | 2,6 | 2,4 | 3,1 | 8,0 | 11,7 |
| EBtik kanpoko herrialdeak | 35,0 | 38,6 | 4,5 | 3,7 | 34,5 | 37,3 | 51,1 | 59,6 |
| Gizonak. Guraso bakarreko familiak | 14,6 | 25,0 | ,0 | 5,1 | 7,4 | 18,2 | 10,8 | 21,3 |
| Guztira | 5,7 | 7,3 | 1,5 | 1,4 | 4,2 | 5,3 | 8,2 | 10,1 |

Iturria: PGDI, 2008-2012.
Oharra: Mantenu-pobreziaren eta benetako pobreziaren adierazle egokituak erabili dira.

**Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren banaketa, etxekoen unitatearen mota soziodemografikoaren edo familiaburuaren arabera. 2008-2012**
**Familia-etxebizitzetan bizi direnak**
**% bertikalak**

| Pobrezia- edo prekarietate-mota | Mantenu-pobrezia | | Metatze-pobrezia | | Benetako pobrezia | | Benetako ongizate-gabezia | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2008 | 2012 | 2008 | 2012 | 2008 | 2012 | 2008 | 2012 |
| Emak. Guraso bakarreko fam. Gur lan egonkorrik ez< 45 urte | 5,1 | 7,1 | 9,7 | 7,5 | 8,9 | 10,2 | 6,2 | 6,7 |
| Emak. Guraso bakarreko fam. Gur lan egonkorrik ez>= 45 urte | 3,0 | 3,7 | 1,6 | 1,3 | 2,5 | 4,7 | 2,6 | 4,2 |
| Emakumeak. Guraso bakarreko fam. Gur lan egonkorra | 1,8 | 1,2 | 3,7 | 1,6 | 2,5 | 1,2 | 2,4 | 2,5 |
| Emak. bakarrik. Lan egonkorrik ez < 45 urte | ,2 | ,8 | 1,1 | ,7 | ,3 | ,7 | ,7 | 1,1 |
| Emak. bakarrik. Lan egonkorrik ez >= 45 urte | 5,4 | 3,0 | ,7 | 1,3 | 5,0 | 2,3 | 3,3 | 2,0 |
| Emak. bakarrik. < 65 lan egonkorra | 1,4 | ,1 | 1,2 | ,0 | ,9 | ,1 | ,7 | ,5 |
| Giz. bakarrik < 65 lan egonkorra | ,3 | ,1 | ,2 | ,4 | ,0 | ,1 | ,3 | ,4 |
| Giz. bakarrik < 65 lan egonkorrik ez | 4,2 | 2,8 | 3,0 | 1,1 | 3,9 | 2,9 | 2,4 | 2,4 |
| Familia-taldeak Gur < 45 urte lan egonkorrik ez | 8,0 | 15,1 | 21,1 | 27,8 | 15,2 | 18,2 | 10,6 | 12,4 |
| Familia-taldeak Gur >= 45 urte lan egonkorrik ez | 9,4 | 9,3 | 8,4 | 5,6 | 5,9 | 7,1 | 6,1 | 9,8 |
| Familia-taldeak Gur < 45 urte lan egonkorra | 15,9 | 8,8 | 14,3 | ,3 | 7,4 | 2,1 | 14,5 | 3,9 |
| Familia-taldeak Gur >= 45 urte lan egonkorra | 6,2 | 3,3 | 3,4 | 2,3 | 5,7 | 3,0 | 11,2 | 5,8 |
| Gizonak > 65 urte | 7,9 | 8,2 | 9,0 | 20,0 | 4,4 | 3,4 | 6,6 | 7,6 |
| Emakumeak >65 urte | 5,7 | 5,6 | 11,4 | 12,8 | 4,6 | 4,1 | 7,7 | 8,2 |
| EBtik kanpoko herrialdeak | 23,3 | 27,1 | 11,1 | 13,2 | 31,2 | 36,0 | 23,7 | 30,2 |
| Gizonak. Guraso bakarreko familiak | 2,3 | 3,8 | ,0 | 4,0 | 1,6 | 3,8 | 1,2 | 2,4 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

Iturria: PGDI, 2008-2012.
Oharra: Mantenu-pobreziaren eta benetako pobreziaren adierazle egokituak erabili dira.

## 2.2. Pobreziaren eta prekarietatearen lurralde-inpaktua

17. Lurralde-eremuan, 2012an azpimarratu beharreko alderdi nagusia lurralde historikoen araberako pobrezia-tasetan eta benetako ongizate-gabezian antzemandako konbergentzia-prozesua da. Aurreko urteetako datuak alderatuz gero, hazkunde handienak Araban eta Gipuzkoan gertatu dira; 2008an pobrezia- eta prekarietate-arazoen eragin txikiena zuten lurraldeetan, hain zuzen.

    Aurrekoa gorabehera, Bizkaiak dauzka, oraindik ere, benetako pobrezia-tasa handienak (% 6,1; Araban % 5,6 eta Gipuzkoan % 3,8); Bizkaiari dagozkio antzemandako kasuen % 60,3 (% 66,5 2008an). Aldea zertxobait handiagoa da benetako ongizate-gabeziari dagokion tasaren kasuan (% 11,3 Bizkaian, % 9,7 Araban eta gutxiengoa, % 8,2koa, Gipuzkoan). Hala ere, benetako ongizate-gabeziaren kasuen proportzioak behera egin du Bizkaian: % 65,7tik % 58,6ra.

18. Euskadiko lurraldeen barne-heterogenotasuna handia denez, eskualdeen araberako datuak askoz ere argigarriagoak dira. Benetako pobreziaren adierazleari dagokionez, Bilbo da EAEko batez besteko orokorretik gora nabarmen urruntzen den eskualde bakarra. Benetako pobreziaren tasa % 9,5era iritsi zen 2012an, 2008ko % 7,6tik gora eginez. Adierazitako gorakada arrisku-egoerek taldearen arabera duten eraginarekin dago lotuta batez ere. Izan ere, adierazitako hazkundea bateragarria da metatze-pobreziaren % 2,3ko egonkortzearekin, eta mantenu-pobreziaren gorakada mugatuarekin ere bai (% 10,1etik % 10,6ra).

    Erdiko mailan zenbait eskualde ditugu; horien guztien benetako pobrezia-tasa % 4 eta % 6 bitartean dago. Talde horren barruan, Bilbo ezkerraldeak eta Gasteizek EAEko batez bestekoa pixka bat gainditzen dute: hurrenez hurren, proportzioak % 5,8 eta % 6,2 dira. Bestalde, Bilbo eskuinaldea batez bestekora hurbildu da (% 5,1). Tolosaldean, Goierrin eta Donostialdean, tasa batez bestekoaren azpitik dago (% 4,5 eta % 4,1).

    Ia eskualde horietan guztietan benetako pobreziaren tasa nabarmen hazi da 2008 eta 2012 artean; salbuespen bakarra Bilbo ezkerraldea da (han bi hamarren eskas hazi da, mantenu-pobreziaren igoera deigarria konpentsatu duen metatze-pobreziaren beherakadari esker). Donostialdean puntu bat igo da; Gasteizen eta Bilbo eskuinaldean bi puntu inguru, eta Tolosa-Goierrin 3,2; azken hori izan da 2008 eta 2012 artean EAEn benetako pobrezia-tasa gehien handitu duen eskualdea, besteekin konparatuz gero. Gipuzkoako bi eskualde horietan goranzko joera mantenu- eta metatze-adierazleen baterako narriatzeari lotzen zaio; Bilbo eskuinaldean eta Gasteizen, berriz, nabarmenagoa izan da pobrezia moduetako batek edo besteak izan duen eragin selektiboa.

    Alderdi positiboan, aipatu behar dugu gainerako eskualdeetan (Aiaraldea, Bizkaia-kosta, Durangaldea eta Deba ibarreko bi eskualdeak), proportzioak Euskadiko batez bestekoaren azpitik daudela nabarmen, % 2 eta % 3 artekoak baitira. Partekatzen duten ezaugarri nagusia metatze-pobreziaren tasa txikia da: % 1 ingurukoa edo txikiagoa. Durangaldean izan ezik, mantenu-pobreziaren joera goranzkoa da; Aiaraldean eta Bizkaia-kostan bi puntutik gorako hazkundeak izan ditu. Bi eskualde horietan, mantenu-pobreziak EAEn 2012an izandako eraginaren batez besteko zifretatik hurbil dago (% 6,4ko eta % 6,9ko tasak, hurrenez hurren).

    Logikoa denez, Bilbok Euskadiko pobreziaren mapan duen garrantzia are handiagoa da bere garrantzi demografikoa ere aintzat hartzen badugu. Horrekin lotuta, benetako pobrezia motek eragindako Euskadiko pertsonen % 27,6 biltzen dira eskualde-udalerri horretan. Proportzioak, ordea, behera egin du 2008tik (% 30eko tasa zuen orduan), 2008-2012 laurtekoan benetako pobreziak Bizkaian izandako hazkunde erlatibo txikiagoaren ildotik.

Aldiz, pobreziak batez ere hirietan jarraitzen du. Adierazitakoarekin lotuta, pobreen % 86,4 hiru hiriburu-eskualdeetan, Bilbo eskuinaldean eta ezkerraldean biltzen dira. 2008ko % 55etik haren garrantziak behera egin duen arren, 2012an Bilbok eta Bilbo ezkerraldeak dute oraindik ere aintzat hartutako egoeren arteko tasa altuena, % 47,4, eta proportzio horrek % 54,5era egiten du gora Bilbo eskuinaldea sartuz gero (hiru eskualde horietan biltzen da 2012an metatze-pobrezia kasuen % 61,7 eta mantenu-pobrezia kasuen % 47,8). Donostialdeak eta Gasteizek benetako pobrezia-egoeren % 16,8 eta % 15,1 biltzen dituzte, hurrenez hurren. Arabari dagokionez, igo egin da 2008ko % 13ko proportzioa.

Euskadin gutxien urbanizaturiko eskualdeek 2012ko benetako pobrezia-egoera guztien % 13,6 baino ez dute biltzen; edonola ere, Tolosa-Goierriren, Debagoienaren edota tankerako eremuen narriatze erlatiboak areagotu egin du eskualde horiek benetako pobrezia-egoerei eginiko ekarpena, 2008an % 10,2koa baitzen.

19. Benetako ongizate-gabezia egoerei buruzko datuek zenbait zehaztasun eransten dituzte. Kasu honetan, tasa handienak Bilbon (% 13,6) eta ezkerraldean (% 12,4) aurkitzen ditugu. Edonola ere, 2008ko datuen tankerakoak edo horiek baino hobeak dira, urte horretan, Bilboko tasa % 13,8 eta Bilbo ezkerraldekoa % 11,8 izan baitziren.

Benetako ongizate-gabezia egoeren eragina % 10 baino handiagoa da Gasteizen (% 10,8) eta Durangaldean (% 10,3). Ezkerraldean, Donostialdean eta Debagoienean % 8,4 eta % 9,1 bitartekoa da. Bilbon eta ezkerraldean ez bezala, aipatutako eskualdeetako ehunekoek adierazten dute egoerak nabarmen egin duela okerrera. Donostialdean 2,1 puntu handitu da (% 6,6tik % 8,7ra), ezkerraldean 3,4 puntu (% 5,7tik % 9,1era), Gasteizen 4,2 (% 6,6tik % 10,8ra); Debagoienean (% 1,9tik % 8,4ra) eta Durangaldean (% 3,5etik % 10,3ra), sei eta zazpi puntu artean.

Alderik positiboenean, Bizkaia-kostan, Tolosa-Goierrin eta Debabarrenean % 6 eta % 7 artean daude tasa horiek, eta Aiaraldean, berriz, % 3,5ean; azken hori izan da 2008tik 2012ra arazoaren murrizketa nabarmena izan duen eskualde bakarra. Tolosa-Goierriren eta Debabarrenaren egoera konparazioz hobea den arren, haien benetako ongizate-gabezia tasek bi puntu inguru egin dute gora denbora-tarte horretan.

**Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren bilakaera, lurralde historiko bakoitzeko. 2008-2012**
**Familia-etxebizitzetan bizi direnak**
**Intzidentzia %-tan**

| **Pobrezia- edo prekarietate-mota** | | **Araba** | **Gipuzkoa** | **Bizkaia** | **Guztira** |
|---|---|---|---|---|---|
| Mantenu-pobrezia | 2008 | 5,8 | 3,9 | 6,7 | 5,7 |
| | 2012 | 7,3 | 6,3 | 7,9 | 7,3 |
| Metatze-pobrezia | 2008 | 1,8 | 0,4 | 2,1 | 1,5 |
| | 2012 | 1,1 | 0,9 | 1,8 | 1,4 |
| Benetako pobrezia | 2008 | 4,1 | 2,5 | 5,2 | 4,2 |
| | 2012 | 5,6 | 3,8 | 6,1 | 5,3 |
| Benetako ongizate-gabezia | 2008 | 6,5 | 5,7 | 10,1 | 8,2 |
| | 2012 | 9,7 | 8,2 | 11,3 | 10,1 |

**% horizontalak**

| **Pobrezia- edo prekarietate-mota** | | **Araba** | **Gipuzkoa** | **Bizkaia** | **Guztira** |
|---|---|---|---|---|---|
| Mantenu-pobrezia | 2008 | 14,7 | 22,3 | 63,0 | 100 |
| | 2012 | 15,1 | 28,6 | 56,3 | 100 |
| Metatze-pobrezia | 2008 | 16,6 | 8,8 | 74,6 | 100 |
| | 2012 | 11,9 | 21,2 | 66,9 | 100 |
| Benetako pobrezia | 2008 | 14,1 | 19,5 | 66,5 | 100 |
| | 2012 | 16,1 | 23,7 | 60,3 | 100 |
| Benetako ongizate-gabezia | 2008 | 11,4 | 22,9 | 65,7 | 100 |
| | 2012 | 14,5 | 26,8 | 58,6 | 100 |

Iturria: PGDI, 2008-2012.
Oharra: Mantenu-pobreziaren eta benetako pobreziaren adierazle egokituak erabili dira.

**Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren bilakaera, eskualde bakoitzeko. 2008-2012**
**Familia-etxebizitzetan bizi direnak**
**Intzidentzia %-tan**

| Eskualdea | Mantenu-pobrezia | | Metatze-pobrezia | | Benetako pobrezia | | Benetako ongizate-gabezia | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2008 | 2012 | 2008 | 2012 | 2008 | 2012 | 2008 | 2012 |
| Gasteiz | 6,1 | 7,4 | 1,7 | 1,3 | 4,4 | 6,2 | 6,6 | 10,8 |
| Aiaraldea | 4,3 | 6,4 | 2,1 | ,1 | 2,3 | 2,2 | 6,2 | 3,5 |
| Eskuinaldea | 5,3 | 5,5 | ,2 | ,7 | 3,0 | 5,1 | 5,7 | 9,1 |
| Bilbo | 10,1 | 10,6 | 2,3 | 2,3 | 7,6 | 9,5 | 13,8 | 13,6 |
| Ezkerraldea | 5,8 | 8,0 | 3,3 | 2,7 | 5,6 | 5,8 | 11,8 | 12,4 |
| Bizkaia-Kosta | 3,2 | 6,9 | 1,3 | 1,1 | 2,0 | 2,9 | 5,2 | 6,0 |
| Durangaldea | 5,3 | 3,8 | 1,1 | ,2 | 2,8 | 2,4 | 3,5 | 10,3 |
| Donostialdea | 4,7 | 6,9 | ,4 | ,8 | 3,1 | 4,1 | 6,6 | 8,7 |
| Tolosa-Goierri | 2,1 | 6,8 | ,3 | 2,4 | 1,3 | 4,5 | 4,7 | 6,7 |
| Debagoiena | 1,2 | 2,5 | ,9 | ,1 | ,4 | 2,0 | 1,9 | 8,4 |
| Debabarrena | 3,4 | 4,9 | ,0 | ,2 | 1,8 | 2,2 | 4,9 | 6,9 |
| Guztira | 5,7 | 7,3 | 1,5 | 1,4 | 4,2 | 5,3 | 8,2 | 10,1 |

**% horizontalak**

| Eskualdea | Mantenu-pobrezia | | Metatze-pobrezia | | Benetako pobrezia | | Benetako ongizate-gabezia | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2008 | 2012 | 2008 | 2012 | 2008 | 2012 | 2008 | 2012 |
| Gasteiz | 13,2 | 13,1 | 13,9 | 11,8 | 13,0 | 15,1 | 9,9 | 13,8 |
| Aiaraldea | 1,5 | 1,9 | 2,8 | ,2 | 1,1 | ,9 | 1,5 | ,8 |
| Eskuinaldea | 6,8 | 5,5 | 1,1 | 3,7 | 5,2 | 7,1 | 5,0 | 6,6 |
| Bilbo | 29,3 | 22,4 | 24,9 | 24,5 | 30,0 | 27,6 | 28,0 | 20,8 |
| Ezkerraldea | 18,9 | 19,9 | 39,9 | 33,5 | 25,0 | 19,8 | 26,9 | 22,1 |
| Bizkaia-Kosta | 3,2 | 5,7 | 5,0 | 4,5 | 2,7 | 3,3 | 3,6 | 3,6 |
| Durangaldea | 4,9 | 2,8 | 3,7 | ,6 | 3,6 | 2,5 | 2,2 | 5,6 |
| Donostialdea | 18,4 | 20,7 | 6,1 | 11,6 | 16,6 | 16,8 | 17,8 | 18,8 |
| Tolosa-Goierri | 1,9 | 5,2 | ,9 | 9,1 | 1,6 | 4,7 | 3,0 | 3,7 |
| Debagoiena | ,6 | 1,0 | 1,8 | ,2 | ,3 | 1,1 | ,7 | 2,4 |
| Debabarrena | 1,4 | 1,8 | ,0 | ,3 | 1,0 | 1,1 | 1,4 | 1,9 |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |

Iturria: PGDI, 2008-2012.
Oharra: Mantenu-pobreziaren eta benetako pobreziaren adierazle egokituak erabili dira.

# 3. Ezkutuko pobrezia

PGDIk pobreziaren eta prekarietatearen azterketarekin loturiko beste arazo bat aztertzen du. Zenbait pertsonak, batez ere gazteek, baliabide ekonomikoen faltagatik bizitza independentea izatera iristeko duten zailtasuna.

20. Horren haritik, PGDI 2012 inkestaren arabera, 112.348 lagun etxekoen unitate independente berri bat osatzeko asmotan dabiltza. Horietatik 99.824k adierazi du ez daukala horretarako bitarteko ekonomikorik. Behar adina baliabide izango balituzte, 39.987 lagun segurtasun osoarekin independizatuko lirateke gehienez ere urtebeteren barruan; kopuru hori 76.727 lagunera igoko litzateke adierazitako epean aukera horri buruz pentsatu dutenak barne hartuz gero. Horrek erakusten du kopuruak gora egin duela, 2012an 72.238 lagun izan baitira; erreferentziazko zifra, ordea, 2004ko gehieneko 94.588 lagunen azpitik dago argi eta garbi. Zenbatekoa, 2000. urteko 79.619 pertsonen azpitik dago, halaber.

Datorren urtean emantzipatuko litzatekeen taldea erreferentzia gisa hartuta, modu independentean bizi nahi duten eta baliabide ekonomiko faltagatik oraindik ezin duten pertsona taldea bereizteko bada ezaugarri sozio-demografiko nagusi bat: gaztetasuna. Horrekin lotuta, independizatzeko arazoak dituzten pertsonen % 81,4k 35 urte baino gutxiago dauzka.

Azpimarratu beharreko bigarren ezaugarria zera da, independizatzeko arazorik handienak ikasketa kualifikatuak ez dituztenen artean antzeman direla: guztizkoaren % 69,3.

Langabeziaren hazkundea gorabehera, aintzat harturiko pertsonen artean hirugarren ezaugarri nagusia okupazioak oraindik ere duen garrantzia da (lanpostua edukitzeak). 2008ko % 79,9arekiko atzerakada geratu den arren, biztanle landunak azterturiko biztanle taldearen % 63,3 dira, langabeak % 24,9 eta ez-aktiboak % 11,8. Profil hori sendotu egiten da emantzipazio-arazoek independizatu gabeko 18-44 urteko biztanleen artean eta okupazio-talde bakoitzean duten eragina aztertzen badugu. Eraginpeko biztanleen proportzioa % 34,6koa da lanpostu egonkorra duten pertsonen kasuan, eta % 37,6ra iristen da lanpostu ezegonkorra duten pertsonen kasuan. Adierazleak % 27,8raino jaisten da langabeen taldean, eta % 8,2ra ez-aktiboen kasuan.

Sexuaren araberako datuek nolabaiteko oreka islatzen jarraitzen dute 2012an; horrekin lotuta, bizitza independentea egiteko arazoak dituzte gizonen % 25,2 eta emakumeen % 23,7k.

Emantzipatzeko arazoen jatorrian dauden arrazoiak aztertuz gero, datorren urtean etxekoen unitate independente berri bat osatzeko asmoa duten 76.727 pertsonen artean egiaztatu da enplegu egoki bat izateari edo lanaren ezegonkortasunari loturiko arazoak izan direla 2012an emantzipatzeko oztopo nagusiak. Adierazitako laneko arazo mota hori aipatu dute aztertutako pertsonen % 51,9k, oinarrizko premiak estaltzeko zailtasunaz hitz egin duten % 27aren gainetik, eta etxebizitzarik ez izatea adierazi duten % 8,1aren gainetik. Horrek aldaketa nabarmena esan nahi du 2008arekin alderatuta; urte hartan, % 19,6k baino ez zituen erreferentziazko laneko arazoak aipatu; % 41,5ek oinarrizko premiak estaltzeko zailtasunez hitz egin zuen, eta % 26,6k etxebizitzarik ez izateaz.

Etxebizitzak bizitza independenteari ekiteko prozesua atzeratzeko arrazoi nagusi izateari utzi dio 2008 eta 2012 artean; edonola ere, arazo horrek adierazitako zenbatekoek iradokitakoa baino garrantzi handiagoa du oraindik. Azterturiko pertsonen % 87,1ek adierazi du ez dutela etxebizitza propiorik, ezta hori lortzeko behar beste aurrezki ere. Hala, % 57,6k ez dauka batere aurrezkirik.

Bestalde, bizitza independentea izateak ekarriko lukeen pobrezia-arriskuaren edo ongizate-gabeziaren eragin handiak bere horretan jarraitzen du. Hortaz, egun dituzten diru-sarrerekin, hurrengo urtean independizatzeko asmoa duten pertsonen % 50,6 mantenu-pobreziako arriskuan egongo lirateke, egun bizi diren etxekoen unitatetik ateraz gero. Halaber, % 69,1 gure gizartean espero diren ongizate maila minimoak izateko modutik behera geratuko litzateke. Maila horiek biztanleria orokorraren adierazleak baino askoz handiagoak dira (% 7,3 eta % 19,9, hurrenez hurren).

Doituta, egun bizi diren etxekoen unitatetik ateratzeko asmoa duten biztanleei eragiten dien mantenu pobreziaren arriskuak gora egin du azken lau urteetan, eta 2008ko % 32,4tik % 50,6ra igaro da 2012an. Termino kuantitatiboetan, arazo horrek 23.431 pertsonari eragiten zion 2008an, eta 2012an 38.829 pertsonari eragiten die. Nolanahi ere, azken zenbateko hori 2000ko eta 2004ko ia 60.000 pertsonetatik oso behera dago. Aldea bi daturekin dago lotuta; alde batetik, ezkutuko pobreziaren arrisku txikiagoarekin (% 50,6 aurten, 2004ko % 61,3arekin eta 2000ko % 75,5arekin alderatuta), eta, bestetik, 18 eta 44 urte bitarteko biztanle ez-independizatuen bolumenaren beherakada garbiarekin. Biztanleriaren talde hori murriztuz joan da: 2000n, 524.889 ziren; 2004an, 436.507; 2008an, 338.787; eta 2012an, 312.987.

**Etxekoen unitate independente bat osatu nahiko lukeen independizatu gabeko biztanleria. 2012**
(Datu absolutuak)

| Etxekoen unitate independente bat osatu nahiko luketen lagunak | Kopuru absolutuak |
|---|---|
| Diru-sarrera nahikoekin | 12.525 |
| Diru-sarrera nahikorik gabe | 99.824 |
| Epe ertainean independizatzeko nahia (> urtebete) | 23.096 |
| Epe laburrean independizatzeko nahia (< urtebete) | 39.987 |
| Independizatzeko nahia ez da zehaztu denboraren aldetik. | 36.740 |
| GUZTIRA | 112.348 |

Iturria: PGDI, 2012.
Oharrak: Sarrera nahikoa izatearen balorazioa interesatuek adierazitakoa da.
Potentzialki independentea den familia-multzoko kideak ez dira barnean hartzen.

**Etxekoen unitate independente bat osatu nahiko lukeen independizatu gabeko biztanleriaren bilakaera. 1996-2012**
Epe laburrera independizatzeko asmoa (erreala edo egingarria) dutenak.
(Datu absolutuak eta adierazitako biztanleriarekiko %)

| Adierazleak | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 2012 |
|---|---|---|---|---|---|
| Epe motzera independizatzeko aukerak | 42.234 | 79.619 | 94.588 | 72.238 | 76.727 |
| Independizatu gabeko 18 eta 44 urte arteko biztanle guztiekiko % | 8,4 | 15,2 | 21,7 | 21,3 | 24,5 |
| Independizatu gabeko 18 eta 44 urte bitarteko biztanleak | 505.032 | 524.889 | 436.507 | 338.787 | 312.987 |

Iturria: PGDI, 2012.
Oharra: Aintzat hartu ditugun epe motzera independizatzeko nahia duten pertsona-taldearen barruan sartzen dira independizatzeko behar beste diru-sarrera ez duten 16 eta 64 urte arteko biztanleak eta urtebeteko epean bizitza independentea eskuratu ahal izango dutela pentsatzen dutenak.

**Urtebeteko epean etxekoen unitate independente bat osatu ahalko lukeen eta baliabide ekonomikorik ez izateagatik osatu ezin duen independizatu gabeko biztanleria; sexuaren, adinaren, egoera zibilaren eta ikasketa-mailaren arabera banatuta. 2008-2012**
(18 eta 44 urteen arteko independizatu gabeko biztanlearekiko %, eta % bertikalak)

| | 18-44 urteen arteko independizatu gabeko biztanleriaren % | | % bertikalak | |
|---|---|---|---|---|
| Alderdi soziodemografikoak | 2008 | 2012 | 2008 | 2012 |
| **Sexua** | | | | |
| Gizona | 18,9 | 25,2 | 49,4 | 54,9 |
| Emakumeak | 24,4 | 23,7 | 50,6 | 45,1 |
| **Adina** | | | | |
| < 25 urte | 13,9 | 12,3 | 28,1 | 23,7 |
| 25-34 urte | 30,6 | 37,7 | 57,4 | 57,7 |
| 35 eta + | 18,4 | 30,0 | 14,5 | 18,6 |
| **egoera zibila** | | | | |
| Ezkongabea | 20,4 | 24,7 | 91,1 | 97,2 |
| Ezkondua | 11,6 | 12,8 | 1,3 | 1,0 |
| Beste bat | 66,3 | 27,6 | 7,5 | 1,9 |
| **Ikasketa maila** | | | | |
| Ikasket. gabeak | 18,4 | 28,6 | 13,8 | 9,8 |
| Lehen mailakoa | 18,2 | 16,9 | 19,6 | 21,7 |
| Bigarren mailako ez prof. / LH I | 27,0 | 33,3 | 30,5 | 37,7 |
| Kalifikatuak | 20,8 | 23,3 | 36,0 | 30,7 |
| **Jarduerarekiko erlazioa** | | | | |
| Landun egonkorra | 27,5 | 34,6 | 44,7 | 30,2 |
| Landun ezegonkorra | 28,3 | 37,6 | 35,3 | 33,1 |
| Langabea | 16,3 | 27,8 | 7,3 | 24,9 |
| Ez-aktiboa | 9,3 | 8,2 | 12,8 | 11,8 |
| GUZTIRA | 21,3 | 24,5 | 72.238 | 76.727 |

Iturria: PGDI, 2008-2012.
Oharrak: Barne hartu dira independizatzeko behar beste diru-sarrera ez dutela eta urtebeteko epean bizitza independentea eskuratu ahal izango dutela pentsatzen duten 16 eta 64 urte arteko biztanleak.
Intzidentziarekin lotutako datuak kalkulatzeko erreferentzia gisa 18 eta 44 urte arteko independizatu gabeko biztanleria hartu da, arazoak dituen taldeak adin-tarte hori hartzen baitu.

**Independizatzeko arazoen jatorria eta horren arrisku objektiboak, jarduera bakoitzarekin duten loturaren arabera. 2012**
Epe laburrera independizatzeko asmoa (erreala edo egingarria) dutenak.
(eraginpean hartutakoen %)

| Adierazleak | Landun egonkorrak | Landun ez-egonkorrak | Lanik gabe | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| **Emandako arrazoiak** | | | | |
| Gustura egungo egoeran | 33,4 | 32,1 | 29,2 | 31,4 |
| Lanik gabe, diru-sarrerarik ez | 13,0 | 43,4 | 97,8 | 54,2 |
| Lan-ezegonkortasuna, diru-sarrera irregularrak | 40,2 | 80,3 | 39,9 | 53,4 |
| Diru-sarrera nahikorik ez oinarrizko premietarako | 80,0 | 92,3 | 81,6 | 84,6 |
| Diru-sarrera nahikorik ez desiratutako bizimodurako | 56,2 | 69,6 | 72,0 | 66,4 |
| Aisialdiko jarduerak mugatu | 64,0 | 60,7 | 62,5 | 62,3 |
| Etxebizitzarik ez | 84,2 | 77,0 | 80,2 | 80,4 |
| Diru-sarrera nahikorik ez etxebizitza hornitzeko | 72,3 | 80,4 | 81,1 | 78,2 |
| Ezin lortu gustuko etxebizitza | 58,2 | 62,1 | 48,7 | 56,0 |
| Bikotekiderik ez | 13,3 | 19,8 | 12,2 | 15,0 |
| Egungo familia-erantzukizunak | 3,3 | 10,8 | 6,7 | 7,0 |
| Independizatzeko zorian dago | 7,8 | 4,5 | ,7 | 4,1 |
| Etxera itzultzea arrazoi ekonomikoengatik | 12,8 | 8,4 | 3,8 | 8,0 |
| Beste batzuk | 2,4 | 2,3 | 4,7 | 3,2 |
| **Arrazoi nagusia** | | | | |
| Gustura egungo egoeran | ,0 | ,4 | ,0 | ,1 |
| Lanik gabe, diru-sarrerarik ez | ,0 | 8,3 | 82,3 | 33,0 |
| Lan-ezegonkortasuna, diru-sarrera irregularrak | 10,5 | 44,1 | 3,3 | 19,0 |
| Diru-sarrera nahikorik ez oinarrizko premietarako | 55,2 | 21,5 | 9,0 | 27,0 |
| Diru-sarrera nahikorik ez desiratutako bizimodurako | 7,5 | 10,8 | 1,0 | 6,2 |
| Aisialdiko jarduerak mugatu | ,0 | ,0 | ,0 | ,0 |
| Etxebizitzarik ez | 11,7 | 11,5 | 2,0 | 8,1 |
| Diru-sarrera nahikorik ez etxebizitza hornitzeko | 1,7 | ,0 | 1,4 | 1,0 |
| Ezin lortu gustuko etxebizitza | 8,5 | ,0 | ,9 | 2,9 |
| Bikotekiderik ez | ,0 | ,0 | ,0 | ,0 |
| Egungo familia-erantzukizunak | ,0 | ,0 | ,0 | ,0 |
| Independizatzeko zorian dago | 2,5 | ,0 | ,0 | ,8 |
| Etxera itzultzea arrazoi ekonomikoengatik | ,0 | 3,4 | ,0 | 1,1 |
| Beste batzuk | 2,4 | ,0 | ,0 | ,7 |
| **Atzemandako arrisku objektiboak** | | | | |
| Pobrezia-arriskua | 17,8 | 44,2 | 83,3 | 50,6 |
| Ongizate-gabeziaren arriskua | 34,8 | 70,3 | 96,2 | 69,1 |
| Etxebizitza-inbertsiorik ez | 81,3 | 87,7 | 91,4 | 87,1 |
| Aurrezkirik ez | 41,2 | 51,2 | 76,8 | 57,6 |
| Eraginpean hartutakoak guztira | 23.151 | 25.410 | 28.166 | 76.727 |

Iturria: PGDI, 2012.

**Epe motzera independizatzeko asmoa duen biztanleria potentzialki independentea.**
**Bizitza independentea izatea eragozten duten arrazoiak 1996-2008**
Epe laburrera independizatzeko asmoa (erreala edo egingarria) dutenak.
(Ehunekotan, erreferentziako biztanleriari dagokionez)

| Adierazleak | 1996 | 2000 | 2004 | 2008 | 2012 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Ez independizatzeko emandako arrazoiak** | | | | | |
| Lan egokirik ez | 36,3 | 28,8 | 31,3 | 22,8 | 54,2 |
| Lan-ezegonkortasuna | 45,0 | 56,5 | 47,1 | 40,4 | 53,4 |
| Diru-sarrera nahikorik ez (oinarrizko premiak) | 71,4 | 78,4 | 67,9 | 84,1 | 84,6 |
| Diru-sarrera nahikorik ez (ongizatea) | 71,5 | 61,8 | 63,5 | 56,1 | 66,4 |
| Etxebizitzarik ez | 86,7 | 90,8 | 90,3 | 84,2 | 80,4 |
| Etxebizitza hornitzeko baliabiderik ez | 83,3 | 77,2 | 71,7 | 82,2 | 78,2 |
| **Ez independizatzeko emandako arrazoi nagusia** | | | | | |
| Lan egokirik ez | 34,1 | 19,5 | 16,2 | 10,4 | 33,0 |
| Lan-ezegonkortasuna | 24,7 | 31,2 | 13,8 | 9,2 | 19,0 |
| Diru-sarrera nahikorik ez (oinarrizko premiak) | 9,5 | 17,7 | 16,4 | 41,5 | 27,0 |
| Diru-sarrera nahikorik ez (ongizatea) | 3,6 | 3,5 | 5,2 | 4,6 | 6,2 |
| Etxebizitzarik ez | 22,8 | 21,7 | 40,4 | 26,6 | 8,1 |
| Etxebizitza hornitzeko baliabiderik ez | 1,0 | 0,4 | 1,3 | 0,6 | 1,0 |
| Beste batzuengatik | 4,3 | 5,9 | 6,6 | 7,1 | 5,7 |

Iturria: PGDI, 1996-2012.
Oharra: Barne hartu dira independizatzeko behar beste diru-sarrera ez dutela eta urtebeteko epean bizitza independentea eskuratu ahal izango dutela pentsatzen duten 16 eta 64 urte arteko biztanleak.

**Mantenu-alorreko pobreziaren eta ongizate-gabeziaren arrisku-adierazleak. 1996-2008**
Independizatzeko arazoak dituen biztanleria.
(Intzidentzia-mailak ehunekotan, eta eraginpeko pertsona-kopurua)

| Arriskua | 2000 | 2004 | 2008 | 2012 |
|---|---|---|---|---|
| Pobrezia | 75,5 | 61,3 | 32,4 | 50,6 |
| Ongizate-gabezia | 90,7 | 82,8 | 57,3 | 69,1 |
| **Eraginpeko pertsonak** | **2000** | **2004** | **2008** | **2012** |
| Pobrezia | 60.082 | 58.017 | 23.431 | 38.829 |
| Ongizate-gabezia | 72.252 | 78.332 | 41.423 | 53.003 |

Iturria: PGDI, 1996-2012.
Oharra: Barne hartu dira independizatzeko behar beste diru-sarrera ez dutela eta urtebeteko epean bizitza independentea eskuratu ahal izango dutela pentsatzen duten 16 eta 64 urte arteko biztanleak.
2012ko atalaseetara egokitutako datuak.

# 4. Euskadiren egoera Europakoarekin alderatuta

Txostenaren azken atalak EAEk egungo Europar Batasuneko gainerako kideekin alderatuta duen posizioaren azterketa biltzen du. Erreferentzia berezia egiten zaio Espainiako kasuari. Azterketa horretarako aintzat harturiko datuak 2010-2011 aldikoak dira, eta Eurostat-en adierazle-sisteman daude oinarrituta. Adierazle horiek, batik bat, mantenu-pobrezia eta diru-sarrerak hartzen dituzte aintzat.

21. Eskuragarri dauden emaitzek islatzen dutenez, 2008an bezalaxe, EAEko pobrezia-arriskuari eta bazterketa jasateko arriskuari buruzko adierazleak EBko batez besteko mailetatik behera daude argi eta garbi, bai EB-27 bai EB-15 zaharra hartzen baditugu oinarri. Pobreziari eta bazterketari buruzko AROPE adierazlea % 19,9an zegoen EAEn 2012an, EB-15en % 21,7aren eta EB-27ren 2010eko % 23,4aren azpitik. Espainia osoa aintzat hartuz gero (% 27), AROPE tasa Euskadikoa baino 7,1 puntu handiagoa da.

    EAEko pobrezia-, prekarietate- eta gabetze-adierazle guztiak EBko batez bestekoaren azpitik daude, eta EAEko emaitza onenak pobrezia mota larrienekin lotura zuzenagoa duten adierazleei dagozkie. Ondorioz, adierazlearen batez besteko % 40 EAEn % 3,5 izan zen 2012an, EBko batez besteko zenbatekoetatik (% 5,4 EB-15ean eta % 5,6 EB-27an 2010ean) bi puntu beherago, eta Espainiako adierazlea (% 10,1 2011n) baino 6,6 puntu beherago. Hiru oinarrizko gabeziaren edo gehiagoren metaketan oinarrituriko gabetze-adierazlea % 10,8an dago Euskadin; kasu honetan, Espainiako % 11,6tik hurbil, baina EBko % 13tik 2,2 puntu beherago, eta EB-27ko batez besteko % 17,5etik 6,7 puntu beherago.

    Oinarrizko adierazle guztiei dagokienez (AROPE tasa, medianaren % 60 eta % 40 eta gabetzea), EBko lau herrialdek baino ez dituzte EAEk baino balio txikiagoak. Luxenburgo, Austria, Herbehereak eta Finlandia dira.

22. Bereziki garrantzitsua da Euskadiren posizio mesedegarri horren gakoak Europako testuinguruan aztertzea; izan ere, Euskadik, 2012an, Europako batez bestekoak baino langabezia-tasa handiagoak ditu. Hona hemen daturik garrantzitsuenetako bi:

    a) Lehenik eta behin, aipatu beharra dago medianaren % 60aren adierazlean Euskadik duen lekua azaltzen duen arrazoi nagusia Euskadiko pobrezia-tasa txikia dela amaierako gizarte-transferentziak gertatu aurreko egoerari dagokionez (horren barruan sartzen dira biztanleriaren diru-sarrerak, oro har lanean jatorria dutenak, eta pentsio-sistema). Medianaren % 60ari dagokion adierazlea hartzen badugu, Euskadiko pobrezia erlatiboaren tasa, gizarte-transferentziak gertatu aurretik, % 22,5 da. Horrek esan nahi du EBko batez bestekoaren azpitik dagoela, hiru puntu baino txikiagoa baita (EB-27ko tasa % 25,9 da, eta EB-15ekoa, % 26,1), eta Espainiako zenbatekoaren (% 29,8) 7 puntu azpitik. Adierazle horretan Herbehereek, Eslovakiak eta Txekiako Errepublikak baino ez dituzte EAEk baino kopuru txikiagoak.
       Kontuan hartuta EAEn 65 urtetik gorako biztanleetan pobrezia- eta prekarietate-tasa txikia dela, ikusirik Euskadiko okupazio-koefizienteak Europan lanpostuak edukitzeko joera handiagoa duten Europako herrialdeetatik urrun dabiltzala, bada adierazitako posizioa azaltzeko elementu nagusi bat: EAEko pentsio-sistemaren eragin konparatibo positiboa.

    b) Azaltzeko bigarren faktorea, kasu honetan benetako pobrezia-moduen inpaktuarekin lotua, euskal gizartean egoera okerrenean daudenek izaten duten diru-sarrera maila da. Zentzu horretan, diru-sarrera txikienak dituzten biztanleen % 10ei dagokien guztizko diru-sarreren ehunekoak % 3,8 osatzen du 2012an Euskadin. Europa osoan EAEko erregistroa (% 3,9 eta %

4,1 artean) herrialde hauek bakarrik gainditzen dute: Esloveniak, Txekiako Errepublikak eta Finlandiak. Euskadiko adierazlea Europako batez bestekoetatik aldendu egiten da argi eta garbi: % 2,3 EB-15en, eta % 2,7 EB-27n. Bestalde, Espainiako adierazlea, % 1,7, Europar Batasuneko txikiena da.

Aipatu beharra dago, era berean, erreferentziako adierazleei dagokienez, EB-15 izandako herrialdeen artean, Luxenburgo, Austria, Finlandia eta EAE direla ehuneko hori % 3,5ean edo balio handiagoetan mantendu duten bakarrak, PGDI egindako urte guztietan (1996an, 2000n, 2004an eta 2012an; 2012koa egiteko, 2010-2011ko datuak baliatu ziren gainerako EB-15eko herrialdeen kasuan). Izan ere, EAEk 1996an gainditu zuen atalase hori, urte horretan % 3,7ra iritsi baitzen. Erreferentziako denbora-tartean Espainian ikusitako handiena 3koa izan zen 1999 eta 2001 bitartean; kopuru horretatik behera ibili zen aurreko urteetan, eta hurrengoetan poliki-poliki murrizten joan zen, harik eta 2009tik aurrera % 1,5 inguruko minimoetara iritsi arte.

23. Euskadiko pobrezia erlatiboaren tasak txikia dira konparazioz, eta egoera okerrenean dagoen populazioak diru-sarrerak izateko adierazlean lidergoa dauka; elementu horiek azaltzen dute EAE dela Europa osoan diru-sarreren arteko desberdintasun txikienetakoa duen lurraldeetako bat. Era horretan, Gini koefizientearen balioa, Euskadin, 25,3ra iritsi da. EBk 2010ean lortutako 30,5 baino 5,2 puntu txikiagoa da, eta Espainiak 2011n izandakoa baino 8,7 txikiagoa (% 34,0). EAEn, 2012an, biztanleriaren % 20 aberatsenen eta % 20 txiroenen diru-sarreren arteko ratioa (S80/S20 ratioa) 3,7 da; EB-27koa 5,3 izan zen, EB-15ekoa 5,8, eta Espainiakoa 6,8 2011n. Adierazle horiek guztiak hartuz gero, Esloveniak, Txekiako Errepublikak eta Suediak baino ez dituzte EAEk baino desberdintasun-maila txikiagoak.

**Pobrezia- eta bazterkeria-arriskuan dagoen biztanleria Europan. 2008/2010-2012.**

AROPE adierazle orokorra, pobrezia erlatiboa (% 60 eta % 40) eta gabetze materiala (hiru elementu edo gehiago)

Intzidentzia %-tan

| | Pobrezia eta bazterkeria AROPE | | | Pobrezia erlatiboa (% 60) | | | Pobrezia erlatiboa (% 40) | | | Gabetze materiala (hiru elementu) | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Lurraldea** | **2008** | **2010/2012** | **Bilak.** | **2008** | **2010/2012** | **Bilak.** | **2008** | **2010/2012** | **Bilak.** | **2008** | **2010/2012** | **Bilak.** |
| Bulgaria | 38,2 | 49,1 | 10,9 | 21,4 | 22,4 | 1,0 | 8,4 | 9,7 | 1,3 | 55,0 | 55,6 | 0,6 |
| Errumania | 44,2 | 40,3 | -3,9 | 23,4 | 22,2 | -1,2 | 11,2 | 10,7 | -0,5 | 50,3 | 47,7 | -2,6 |
| Letonia | 33,8 | 40,1 | 6,3 | 25,6 | 19,3 | -6,3 | 10,7 | 9,1 | -1,6 | 35,2 | 48,7 | 13,5 |
| Lituania | 27,6 | 33,4 | 5,8 | 20,0 | 20,0 | 0,0 | 7,0 | 8,6 | 1,6 | 22,2 | 34,6 | 12,4 |
| Kroazia | | 31,3 | | 17,3 | 20,5 | 3,2 | | 8,8 | | | 32,4 | |
| Hungaria | 28,2 | 31,0 | 2,8 | 12,4 | 13,8 | 1,4 | 2,8 | 2,8 | 0,0 | 37,1 | 42,2 | 5,1 |
| Irlanda | 23,7 | 29,9 | 6,2 | 15,5 | 16,1 | 0,6 | 2,6 | 4,8 | 2,2 | 13,6 | 19,6 | 6,0 |
| Grezia | 28,1 | 27,7 | -0,4 | 20,1 | 20,1 | 0,0 | 6,7 | 7,3 | 0,6 | 21,8 | 24,1 | 2,3 |
| Polonia | 30,5 | 27,2 | -3,3 | 16,9 | 17,7 | 0,8 | 5,2 | 5,7 | 0,5 | 32,3 | 26,4 | -5,9 |
| ***Espainia*** | ***22,9*** | ***27,0*** | ***4,1*** | ***19,6*** | ***21,8*** | ***2,2*** | ***6,8*** | ***10,1*** | ***3,3*** | ***8,7*** | ***11,6*** | ***2,9*** |
| Italia | 25,3 | 24,5 | -0,8 | 18,7 | 18,2 | -0,5 | 6,7 | 6,9 | 0,2 | 16,1 | 16,0 | -0,1 |
| Portugal | 26,0 | 24,4 | -1,6 | 18,5 | 18,0 | -0,5 | 5,7 | 5,5 | -0,2 | 23,0 | 20,9 | -2,1 |
| Zipre | 22,4 | 23,6 | 1,2 | 15,7 | 15,8 | 0,1 | 3,2 | 3,3 | 0,1 | 24,5 | 26,7 | 2,2 |
| ***EB-27*** | ***23,5*** | ***23,4*** | ***-0,1*** | ***16,4*** | ***16,4*** | ***0,0*** | ***5,2*** | ***5,6*** | ***0,4*** | ***17,3*** | ***17,5*** | ***0,2*** |
| Estonia | 21,8 | 23,1 | 1,3 | 19,5 | 17,5 | -2,0 | 5,5 | 6,9 | 1,4 | 12,4 | 21,5 | 9,1 |
| Erresuma | 23,2 | 23,1 | -0,1 | 18,7 | 17,1 | -1,6 | 5,7 | 5,5 | -0,2 | 11,3 | 13,4 | 2,1 |
| ***EB-15*** | ***21,4*** | ***21,7*** | ***0,3*** | ***16,2*** | ***16,2*** | ***0,0*** | ***4,9*** | ***5,4*** | ***0,5*** | ***12,5*** | ***13,0*** | ***0,5*** |
| Malta | 19,6 | 21,4 | 1,8 | 15,0 | 15,4 | 0,4 | 4,2 | 3,2 | -1,0 | 13,3 | 16,5 | 3,2 |
| Belgika | 20,8 | 21,0 | 0,2 | 14,7 | 15,3 | 0,6 | 3,2 | 3,6 | 0,4 | 11,6 | 12,9 | 1,3 |
| Eslovakia | 20,6 | 20,6 | 0,0 | 10,9 | 12,0 | 1,1 | 3,1 | 5,0 | 1,9 | 27,8 | 24,9 | -2,9 |
| Alemania | 20,1 | 19,9 | -0,2 | 15,2 | 15,8 | 0,6 | 4,9 | 4,3 | -0,6 | 13,0 | 12,4 | -0,6 |
| **EAE** | **17,9** | **19,9** | **2,0** | **14,8** | **15,4** | **0,6** | **3,1** | **3,5** | **0,4** | **10,0** | **10,8** | **0,8** |
| Eslovenia | 18,5 | 19,3 | 0,8 | 12,3 | 13,6 | 1,3 | 3,2 | 3,2 | 0,0 | 16,9 | 17,2 | 0,3 |
| Frantzia | 18,6 | 19,2 | 0,6 | 12,7 | 13,3 | 0,6 | 2,5 | 3,8 | 1,3 | 13,1 | 12,6 | -0,5 |
| Danimarka | 16,3 | 18,9 | 2,6 | 11,8 | 13,0 | 1,2 | 3,6 | 4,9 | 1,3 | 5,4 | 6,9 | 1,5 |
| Finlandia | 17,4 | 17,9 | 0,5 | 13,6 | 13,7 | 0,1 | 2,5 | 2,4 | -0,1 | 9,1 | 8,4 | -0,7 |
| Austria | 18,6 | 16,9 | -1,7 | 12,4 | 12,6 | 0,2 | 2,4 | 3,0 | 0,6 | 13,7 | 9,5 | -4,2 |
| Luxenburgo | 15,5 | 16,8 | 1,3 | 13,4 | 13,6 | 0,2 | 2,5 | 2,8 | 0,3 | 3,5 | 4,7 | 1,2 |
| Suedia | 14,9 | 16,1 | 1,2 | 12,2 | 14,0 | 1,8 | 3,4 | 3,7 | 0,3 | 4,6 | 4,2 | -0,4 |
| Herbehereak | 14,9 | 15,7 | 0,8 | 10,5 | 11,0 | 0,5 | 2,8 | 2,6 | -0,2 | 5,2 | 6,6 | 1,4 |
| Txekiar | 15,3 | 15,3 | 0,0 | 9,0 | 9,8 | 0,8 | 2,3 | 2,8 | 0,5 | 16,2 | 16,1 | -0,1 |

Iturria: PGDI, 2012, eta EU-SILC Eurostat.

Oharrak: Datuak ordenatuta aurkezten dira, 2010-2012 aldiko AROPE tasaren balio handienetik txikienera.

EAEren kasuan, gabetze materialaren adierazlearen balioa gainestimatu da, EBk aurreikusitakoak baino eskakizun handiagoak ezarri baitira (adibidez, ibilgailu bat edukitzearekin lotuta, gehienez hamar urte izan ditzakeela zehaztu da). EBko gainerako lurraldeetan, ez dago horrelakorik ezarrita.

Aintzat hartutako herrialdeak EBko estatuak eta Kroazia dira.

Europako datuak 2010-2011 aldikoak dira.

**Gizarte-transferentzien inpaktua Europan. 2008/2010-2012**

Pobrezia erlatiboa (% 60) gizarte-transferentzien ostean eta aurretik

Intzidentzia %-tan, eta gizarte-transferentziei lotutako murrizketa-puntuak.

| | Pobrezia erlatiboa (% 60) | | | Pobrezia erlatiboa gizarte-transferentzien aurretik | | | Gizarte-transferentziei lotutako murrizketa | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Lurraldea** | **2008** | **2010/2012** | **Bilak.** | **2008** | **2010/2012** | **Bilak.** | **2008** | **2010/2012** | **Bilak.** |
| Irlanda | 15,5 | 16,1 | 0,6 | 34,0 | 40,4 | 6,4 | 18,5 | 24,3 | 5,8 |
| Lituania | 20,0 | 20,0 | 0,0 | 27,2 | 31,8 | 4,6 | 7,2 | 11,8 | 4,6 |
| Erresuma Batua | 18,7 | 17,1 | -1,6 | 28,9 | 31,0 | 2,1 | 10,2 | 13,9 | 3,7 |
| Kroazia | 17,3 | 20,5 | 3,2 | 25,3 | 30,2 | 4,9 | 8,0 | 9,7 | 1,7 |
| ***Espainia*** | ***19,6*** | ***21,8*** | ***2,2*** | ***24,1*** | ***29,8*** | ***5,7*** | ***4,5*** | ***8,0*** | ***3,5*** |
| Errumania | 23,4 | 22,2 | -1,2 | 30,7 | 29,1 | -1,6 | 7,3 | 6,9 | -0,4 |
| Hungaria | 12,4 | 13,8 | 1,4 | 30,4 | 28,9 | -1,5 | 18,0 | 15,1 | -2,9 |
| Danimarka | 11,8 | 13,0 | 1,2 | 27,8 | 28,4 | 0,6 | 16,0 | 15,4 | -0,6 |
| Suedia | 12,2 | 14,0 | 1,8 | 28,5 | 27,9 | -0,6 | 16,3 | 13,9 | -2,4 |
| Belgika | 14,7 | 15,3 | 0,6 | 27,0 | 27,8 | 0,8 | 12,3 | 12,5 | 0,2 |
| Finlandia | 13,6 | 13,7 | 0,1 | 27,3 | 27,4 | 0,1 | 13,7 | 13,7 | 0,0 |
| Bulgaria | 21,4 | 22,4 | 1,0 | 27,1 | 27,3 | 0,2 | 5,7 | 4,9 | -0,8 |
| Letonia | 25,6 | 19,3 | -6,3 | 30,2 | 27,3 | -2,9 | 4,6 | 8,0 | 3,4 |
| Luxenburgo | 13,4 | 13,6 | 0,2 | 23,6 | 27,2 | 3,6 | 10,2 | 13,6 | 3,4 |
| ***EB-15*** | ***16,2*** | ***16,2*** | ***0,0*** | ***24,9*** | ***26,1*** | ***1,2*** | ***8,7*** | ***9,9*** | ***1,2*** |
| ***EB-27*** | ***16,4*** | ***16,4*** | ***0,0*** | ***25,2*** | ***25,9*** | ***0,7*** | ***8,8*** | ***9,5*** | ***0,7*** |
| Portugal | 18,5 | 18,0 | -0,5 | 24,9 | 25,4 | 0,5 | 6,4 | 7,4 | 1,0 |
| Frantzia | 12,7 | 13,3 | 0,6 | 23,5 | 25,2 | 1,7 | 10,8 | 11,9 | 1,1 |
| Alemania | 15,2 | 15,8 | 0,6 | 24,2 | 25,1 | 0,9 | 9,0 | 9,3 | 0,3 |
| Estonia | 19,5 | 17,5 | -2,0 | 24,7 | 24,9 | 0,2 | 5,2 | 7,4 | 2,2 |
| Austria | 12,4 | 12,6 | 0,2 | 24,5 | 24,9 | 0,4 | 12,1 | 12,3 | 0,2 |
| Eslovenia | 12,3 | 13,6 | 1,3 | 23,0 | 24,2 | 1,2 | 10,7 | 10,6 | -0,1 |
| Polonia | 16,9 | 17,7 | 0,8 | 25,1 | 24,1 | -1,0 | 8,2 | 6,4 | -1,8 |
| Grezia | 20,1 | 20,1 | 0,0 | 23,3 | 23,8 | 0,5 | 3,2 | 3,7 | 0,5 |
| Italia | 18,7 | 18,2 | -0,5 | 23,4 | 23,3 | -0,1 | 4,7 | 5,1 | 0,4 |
| Zipre | 15,7 | 15,8 | 0,1 | 22,5 | 23,3 | 0,8 | 6,8 | 7,5 | 0,7 |
| Malta | 15,0 | 15,4 | 0,4 | 22,7 | 22,9 | 0,2 | 7,7 | 7,5 | -0,2 |
| **EAE** | **14,8** | **15,4** | **0,6** | **20,7** | **22,5** | **1,8** | **5,9** | **7,1** | **1,2** |
| Herbehereak | 10,5 | 11,0 | 0,5 | 19,9 | 20,9 | 1,0 | 9,4 | 9,9 | 0,5 |
| Eslovakia | 10,9 | 12,0 | 1,1 | 18,4 | 19,8 | 1,4 | 7,5 | 7,8 | 0,3 |
| Txekiar | 9,0 | 9,8 | 0,8 | 20,0 | 18,0 | -2,0 | 11,0 | 8,2 | -2,8 |

Iturria: PGDI, EPDS-2012, eta EU-SILC Eurostat.

Oharrak: Datuak ordenatuta aurkezten dira, 2010-2012 aldiko gizarte-transferentzien aurreko pobrezia larriaren (% 60) tasaren balio handienetik txikienera.

Gizarte-transferentzien aurreko datuek pentsioak barne hartzen dituzte.

Aintzat hartutako herrialdeak EBko estatuak eta Kroazia dira.

Europako datuak 2010-2011 aldikoak dira.

**Gizarte-transferentzien inpaktua Europan. 2008/2010-2012**

Pobrezia erlatiboa (% 40) gizarte-transferentzien ostean eta aurretik.

Intzidentzia %-tan, eta gizarte-transferentziei lotutako murrizketa-puntuak.

| | Pobrezia erlatiboa (% 40) | | | Pobrezia erlatiboa gizarte-transferentzien aurretik | | | Gizarte-transferentziei lotutako murrizketa | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Lurraldea** | **2008** | **2010/2012** | **Bilak.** | **2008** | **2010/2012** | **Bilak.** | **2008** | **2010/2012** | **Bilak.** |
| Irlanda | 2,6 | 4,8 | 2,2 | 22,7 | 29,7 | 7,0 | 20,1 | 24,9 | 4,8 |
| Lituania | 7,0 | 8,6 | 1,6 | 12,7 | 20,2 | 7,5 | 5,7 | 11,6 | 5,9 |
| Erresuma Batua | 5,7 | 5,5 | -0,2 | 16,8 | 19,3 | 2,5 | 11,1 | 13,8 | 2,7 |
| Danimarka | 3,6 | 4,9 | 1,3 | 16,9 | 18,8 | 1,9 | 13,3 | 13,9 | 0,6 |
| ***Espainia*** | ***6,8*** | ***10,1*** | ***3,3*** | ***10,7*** | ***17,1*** | ***6,4*** | ***3,9*** | ***7,0*** | ***3,1*** |
| Hungaria | 2,8 | 2,8 | 0,0 | 16,7 | 17,1 | 0,4 | 13,9 | 14,3 | 0,4 |
| Kroazia | | 8,8 | | : | 17,0 | | | 8,2 | |
| Errumania | 11,2 | 10,7 | -0,5 | 16,9 | 16,4 | -0,5 | 5,7 | 5,7 | 0,0 |
| Belgika | 3,2 | 3,6 | 0,4 | 14,7 | 16,2 | 1,5 | 11,5 | 12,6 | 1,1 |
| Letonia | 10,7 | 9,1 | -1,6 | 15,5 | 15,7 | 0,2 | 4,8 | 6,6 | 1,8 |
| Suedia | 3,4 | 3,7 | 0,3 | 15,6 | 15,3 | -0,3 | 12,2 | 11,6 | -0,6 |
| Finlandia | 2,5 | 2,4 | -0,1 | 14,3 | 15,1 | 0,8 | 11,8 | 12,7 | 0,9 |
| Alemania | 4,9 | 4,3 | -0,6 | 14,3 | 14,7 | 0,4 | 9,4 | 10,4 | 1,0 |
| ***EB-15*** | ***4,9*** | ***5,4*** | ***0,5*** | ***12,8*** | ***14,3*** | ***1,5*** | ***7,9*** | ***8,9*** | ***1,0*** |
| ***EB-27*** | ***5,2*** | ***5,6*** | ***0,4*** | ***12,9*** | ***14,0*** | ***1,1*** | ***7,7*** | ***8,4*** | ***0,7*** |
| Bulgaria | 8,4 | 9,7 | 1,3 | 13,7 | 14,0 | 0,3 | 5,3 | 4,3 | -1,0 |
| Frantzia | 2,5 | 3,8 | 1,3 | 11,8 | 13,9 | 2,1 | 9,3 | 10,1 | 0,8 |
| Estonia | 5,5 | 6,9 | 1,4 | 10,1 | 13,5 | 3,4 | 4,6 | 6,6 | 2,0 |
| Luxenburgo | 2,5 | 2,8 | 0,3 | 11,6 | 13,4 | 1,8 | 9,1 | 10,6 | 1,5 |
| Eslovenia | 3,2 | 3,2 | 0,0 | 10,7 | 12,2 | 1,5 | 7,5 | 9,0 | 1,5 |
| Austria | 2,4 | 3,0 | 0,6 | 10,7 | 12,0 | 1,3 | 8,3 | 9,0 | 0,7 |
| Herbehereak | 2,8 | 2,6 | -0,2 | 10,2 | 11,5 | 1,3 | 7,4 | 8,9 | 1,5 |
| Portugal | 5,7 | 5,5 | -0,2 | 11,1 | 11,3 | 0,2 | 5,4 | 5,8 | 0,4 |
| Polonia | 5,2 | 5,7 | 0,5 | 11,9 | 11,1 | -0,8 | 6,7 | 5,4 | -1,3 |
| **EAE** | **3,1** | **3,5** | **0,4** | **8,1** | **10,6** | **2,5** | **5,0** | **7,1** | **2,1** |
| Eslovakia | 3,1 | 5,0 | 1,9 | 7,4 | 10,3 | 2,9 | 4,3 | 5,3 | 1,0 |
| Grezia | 6,7 | 7,3 | 0,6 | 9,8 | 10,1 | 0,3 | 3,1 | 2,8 | -0,3 |
| Italia | 6,7 | 6,9 | 0,2 | 9,1 | 9,8 | 0,7 | 2,4 | 2,9 | 0,5 |
| Malta | 4,2 | 3,2 | -1,0 | 9,9 | 9,7 | -0,2 | 5,7 | 6,5 | 0,8 |
| Zipre | 3,2 | 3,3 | 0,1 | 7,8 | 8,5 | 0,7 | 4,6 | 5,2 | 0,6 |
| Txekiar | 2,3 | 2,8 | 0,5 | 9,5 | 7,9 | -1,6 | 7,2 | 5,1 | -2,1 |

Iturria: PGDI, EPDS-2012, eta EU-SILC Eurostat.

Oharrak: Datuak ordenatuta aurkezten dira, 2010-2012 aldiko gizarte-transferentzien aurreko pobrezia larriaren (% 40) tasaren balio handienetik txikienera.

Gizarte-transferentzien aurreko datuek pentsioak barne hartzen dituzte.

Aintzat hartutako herrialdeak EBko estatuak eta Kroazia dira.

Europako datuak 2010-2011 aldikoak dira.

**Arriskuan dauden taldeek premiak asetzeraino duten distantziaren adierazleak. 2008/2010-2012**

Medianaren % 40ko eta % 60ko atalasearekiko distantziak %-tan, eta diru-sarrera txikienak dituzten biztanleriaren % 10ei dagozkien diru-sarrerak, %-tan.

| | % 60ko atalasearekiko distantzia | | | % 40ko atalasearekiko distantzia | | | Diru-sarrera txikienak dituzten biztanleriaren % 10ei dagozkien guztizko sarreren % | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Lurraldea** | **2008** | **2010/2012** | **Bilak.** | **2008** | **2010/2012** | **Bilak.** | **2008** | **2010/2012** | **Bilak.** |
| Irlanda | 17,7 | 15,2 | -2,5 | 19,2 | 45,1 | 25,9 | 3,6 | 2,8 | -0,8 |
| ***Espainia*** | ***23,6*** | ***30,8*** | ***7,2*** | ***31,5*** | ***42,4*** | ***10,9*** | ***2,3*** | ***1,6*** | ***-0,7*** |
| ***EB-15*** | ***20,9*** | ***27,6*** | ***6,7*** | ***26,4*** | ***40,6*** | ***14,2*** | ***3,0*** | ***2,3*** | ***-0,7*** |
| Danimarka | 18,0 | 21,4 | 3,4 | 32,4 | 34,5 | 2,1 | 3,6 | 2,3 | -1,3 |
| Italia | 23,0 | 24,5 | 1,5 | 27,9 | 34,2 | 6,3 | 2,7 | 2,6 | -0,1 |
| ***EB-27*** | ***21,7*** | ***26,0*** | ***4,3*** | ***26,4*** | ***33,3*** | ***6,9*** | ***3,0*** | ***2,7*** | ***-0,3*** |
| Herbehereak | 14,9 | 15,5 | 0,6 | 47,9 | 32,5 | -15,4 | 3,5 | 3,5 | 0,0 |
| Letonia | 28,6 | 31,7 | 3,1 | 21,7 | 31,7 | 10,0 | 2,2 | 2,1 | -0,1 |
| Suedia | 18,0 | 18,5 | 0,5 | 36,5 | 31,4 | -5,1 | 3,5 | 3,6 | 0,1 |
| Estonia | 20,3 | 26,0 | 5,7 | 27,0 | 31,2 | 4,2 | 3,0 | 2,6 | -0,4 |
| Errumania | 32,3 | 31,8 | -0,5 | 29,8 | 30,3 | 0,5 | 2,1 | 2,2 | 0,1 |
| Lituania | 25,7 | 28,7 | 3,0 | 23,6 | 29,7 | 6,1 | 2,6 | 2,3 | -0,3 |
| Kroazia | 25,0 | 28,6 | 3,6 | | 29,4 | | | 2,5 | |
| Austria | 15,3 | 19,0 | 3,7 | 20,4 | 29,4 | 9,0 | 4,0 | 3,7 | -0,3 |
| Bulgaria | 27,0 | 29,0 | 2,0 | 26,1 | 28,7 | 2,6 | 2,4 | 2,3 | -0,1 |
| Grezia | 24,7 | 23,4 | -1,3 | 26,4 | 25,9 | -0,5 | 2,4 | 2,6 | 0,2 |
| Erresuma Batua | 21,0 | 21,4 | 0,4 | 24,3 | 25,7 | 1,4 | 2,8 | 2,8 | 0,0 |
| **EAE** | **21,2** | **22.0** | **0,9** | **20,3** | **24,8** | **4,6** | **3,9** | **3,8** | **-0,2** |
| Eslovakia | 18,1 | 25,7 | 7,6 | 29,2 | 24,5 | -4,7 | 4,0 | 3,5 | -0,5 |
| Polonia | 20,6 | 21,4 | 0,8 | 25,1 | 23,1 | -2,0 | 3,0 | 3,0 | 0,0 |
| Txekiar | 18,5 | 17,2 | -1,3 | 21,0 | 22,4 | 1,4 | 4,2 | 4,1 | -0,1 |
| Luxenburgo | 16,6 | 15,7 | -0,9 | 20,6 | 22,4 | 1,8 | 3,7 | 3,7 | 0,0 |
| Finlandia | 15,7 | 13,5 | -2,2 | 17,2 | 22,4 | 5,2 | 4,0 | 4,0 | 0,0 |
| Belgika | 17,2 | 18,6 | 1,4 | 21,7 | 21,7 | 0,0 | 3,5 | 3,6 | 0,1 |
| Alemania | 22,2 | 21,4 | -0,8 | 25,5 | 19,9 | -5,6 | 3,0 | 3,2 | 0,2 |
| Portugal | 23,2 | 23,2 | 0,0 | 20,8 | 19,5 | -1,3 | 2,8 | 2,9 | 0,1 |
| Frantzia | 14,8 | 20,2 | 5,4 | 14,8 | 17,7 | 2,9 | 3,6 | 3,5 | -0,1 |
| Eslovenia | 19,3 | 19,9 | 0,6 | 20,2 | 16,7 | -3,5 | 4,0 | 3,9 | -0,1 |
| Hungaria | 17,3 | 18,3 | 1,0 | 19,4 | 16,1 | -3,3 | 4,0 | 3,8 | -0,2 |
| Malta | 20,4 | 17,7 | -2,7 | 21,6 | 14,5 | -7,1 | 3,4 | 3,7 | 0,3 |
| Zipre | 16,5 | 18,0 | 1,5 | 12,8 | 12,2 | -0,6 | 3,7 | 3,6 | -0,1 |

Iturria: PGDI, EPDS-2012, eta EU-SILC Eurostat.

Oharrak: Datuak ordenatuta aurkezten dira, 2010-2012 aldiko gizarte-transferentzien aurreko pobrezia larriaren (% 40) atalasearekiko distantziaren balio handienetik txikienera.

Aintzat hartutako herrialdeak EBko estatuak eta Kroazia dira.

Europako datuak 2010-2011 aldikoak dira.

**Desberdintasun-adierazleak Europan. 2008/2010-2012**
Gini koefizientea eta S80/S20 ratioa

| | Gini koefizientea | | | S80/S20 ratioa | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Lurraldea** | **2008** | **2010/2012** | **Bilak.** | **2008** | **2010/2012** | **Bilak.** |
| Letonia | 37,7 | 35,2 | -2,5 | 7,3 | 6,6 | -0,7 |
| Portugal | 35,8 | 34,2 | -1,6 | 6,1 | 5,7 | -0,4 |
| ***Espainia*** | ***31,3*** | ***34,0*** | ***2,7*** | ***5,4*** | ***6,8*** | ***1,4*** |
| Bulgaria | 35,9 | 33,2 | -2,7 | 6,5 | 5,9 | -0,6 |
| Irlanda | 29,9 | 33,2 | 3,3 | 4,4 | 5,3 | 0,9 |
| Errumania | 36,0 | 33,2 | -2,8 | 7,0 | 6,2 | -0,8 |
| Erresuma Batua | 33,9 | 33,0 | -0,9 | 5,6 | 5,4 | -0,2 |
| Grezia | 33,4 | 32,9 | -0,5 | 5,9 | 5,6 | -0,3 |
| Lituania | 34,0 | 32,9 | -1,1 | 5,9 | 5,8 | -0,1 |
| Estonia | 30,9 | 31,9 | 1,0 | 5,0 | 5,3 | 0,3 |
| Kroazia | 28,0 | 31,5 | 3,5 | 4,5 | 5,6 | 1,1 |
| Italia | 31,0 | 31,2 | 0,2 | 5,1 | 5,2 | 0,1 |
| Polonia | 32,0 | 31,1 | -0,9 | 5,1 | 5,0 | -0,1 |
| ***EB-27*** | ***30,8*** | ***30,5*** | ***-0,3*** | ***5,0*** | ***5,3*** | ***0,3*** |
| ***EB-15*** | ***30,7*** | ***30,5*** | ***-0,2*** | ***4,9*** | ***5,8*** | ***0,9*** |
| Frantzia | 29,8 | 29,8 | 0,0 | 4,4 | 4,5 | 0,1 |
| Zipre | 28,3 | 29,1 | 0,8 | 4,2 | 4,4 | 0,2 |
| Alemania | 30,2 | 29,0 | -1,2 | 4,8 | 4,5 | -0,3 |
| Danimarka | 25,1 | 27,8 | 2,7 | 3,6 | 4,4 | 0,8 |
| Malta | 27,9 | 27,4 | -0,5 | 4,2 | 4,1 | -0,1 |
| Luxenburgo | 27,7 | 27,2 | -0,5 | 4,1 | 4,0 | -0,1 |
| Hungaria | 25,2 | 26,9 | 1,7 | 3,6 | 3,9 | 0,3 |
| Belgika | 27,5 | 26,3 | -1,2 | 4,1 | 3,9 | -0,2 |
| Austria | 26,2 | 26,3 | 0,1 | 3,7 | 3,8 | 0,1 |
| Eslovakia | 23,7 | 25,9 | 2,2 | 3,4 | 3,8 | 0,4 |
| Herbehereak | 27,6 | 25,8 | -1,8 | 4,0 | 3,8 | -0,2 |
| Finlandia | 26,3 | 25,8 | -0,5 | 3,8 | 3,7 | -0,1 |
| **EAE** | **25,2** | **25,3** | **0,1** | **3,6** | **3,7** | **0,1** |
| Txekiar Errepublika | 24,7 | 25,2 | 0,5 | 3,4 | 3,5 | 0,1 |
| Suedia | 24,0 | 24,4 | 0,4 | 3,5 | 3,6 | 0,1 |
| Eslovenia | 23,4 | 23,8 | 0,4 | 3,4 | 3,5 | 0,1 |

Iturria: PGDI, EPDS-2012, eta EU-SILC Eurostat.
Oharrak: Datuak ordenatuta aurkezten dira, 2010-2012 aldiko Gini koefizientearen balio handienetik txikienera.
S80/S20 ratioak biztanleriaren % 20 aberatsenen diru-sarrerak eta % 20 txiroen diru-sarrerak erlazionatzen ditu.
Aintzat hartutako herrialdeak EBko estatuak eta Kroazia dira.
Europako datuak 2010-2011 aldikoak dira.

# Eranskina: adierazleen eta definizioen glosarioa

Eranskin honetan, labur-labur daude bilduta txostenean garatutako edota kontuan hartutako adierazleei dagozkien alderdi nagusiak, lotutako definizio nagusiak aintzat hartuta[14].

## 1. Pobrezia eta prekarietatea mantenuari edo diru-sarrerei dagokienez

Egoera ekonomiko txarra zenbait modutan nabarmentzen da. Zenbait etxekoen unitatetan, eskura duten errenta-maila edota diru-sarrera maila nahikoa ez izanik, nahiko zaila gertatzen da ohiko gastu-mailak mantentzea eta premiei aurre egitea. Hain zuzen ere, arestian aipatu dugun mantentze-estutasun hori etxekoen unitate horietan jasaten duten arazoekin lotuta dago.

Herritarrek eskura dituzten diru-sarrerak edo errentak ez dira etxekoen unitateen baliabide ekonomiko bakarrak —kontuan hartzekoa da beharrezkoa izanez gero, ondasun-baliabideetara edo kreditura, edo kanpoko beste edozein laguntzatara jotzeko aukera ere badagoela—. Horrenbestez, mantentze-problematikek zerikusi handiagoa dute estutasun-egoera potentzialekin premiei aurre egiteko benetako egoerekin baino. Azken buruan, mantentze-arazoak arrisku-egoerak direla esan dezakegu.

Funtsean, PGDI honetan aintzat hartu diren mantentze-arazoak bi multzo hauetan banatzen dira:

a) Pobrezian erortzeko arrisku-egoerak. Zenbait etxekoen unitatetan eskura dituzten diru-sarrerak urriak izan daitezke premiarik funtsezkoenen gastuei aurre egiteko –elikadura, etxebizitza, jantzi eta oinetako gastu ohikoekin zerikusia dutenak, bereziki–.

b) Ongizate-gabeziaren arrisku-egoerak. Kasu honetan gauza ez da oinarrizko premiei aurre egitera mugatzen. Ongizate-gabeziaren arrisku-egoeran dauden pertsonek bestelako arazoa dute; hain zuzen, beren diru-sarrerak urriak izan daitezke gizarte jakin batek ezarritako gutxieneko ongizate- eta erosotasun-mailak mantentzeko beharrezko gastuei aurre egiteko (kasu honetan, euskal gizarteak jarritakoei aurre egiteko).

Mantenu-pobrezia eta ongizate-gabeko egoerak neurtzeko era asko dago; horri buruzko erabat finkatutako metodologia bakar bat ez dago, beraz. Txosten honetan azaltzen diren datu nagusiak, funtsean, Eusko Jaurlaritzak erabilitako metodologiaren arabera zenbatu dira, 1986an garatutako azterketatik abiatuta (PGDI metodoa). Dena dela, mantenu-pobreziaren azterketara hurbiltzeko beste metodo batzuk –bereziki, Europar Batasunak eta Eurostatek, eta Leydenen eskolak garatutakoak– aplikatuz lortu den informazioa ere eskaintzen da.

### 1.1. Definizioak

Mantenu-pobreziaren aurrean etxekoen unitateen posizioa aztertzeko garaian, PGDIan hiru egoera bereizten dira: pobrezia-egoera; ongizate-gabezia egoera, baina ez pobreziarena; eta azkenik, ongizate-egoera.

a) Mantenu-pobrezia

---

[14] Eranskin honetan garatzen ez diren beste definizio batzuk kontsultatu nahi izanez gero, jo Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak argitaratutako *1984-2008. 25 urtez pobretasuna ikertzen Euskadin* dokumentura.

Mantenu-pobrezia baliabide ekonomikoen eskasia-egoerarekin loturik dago; hain zuzen ere, epe motzera oinarrizko premiak (bereziki elikaduraren, etxebizitzaren, jantzien eta oinetakoen gastuekin loturikoak) betetzeko adina baliabide ez izatearekin. Pobrezia-arriskuan daude honako hauek: aintzat hartutako erreferentzialdian, oinarrizko premiei aurre egiteko ezarritako atalaseen azpiko diru-sarrerak dituzten pertsona, familia edo etxekoen unitateak.

b) Ongizaterik eza, mantenuari dagokionez

Mantenuari dagokionez, ongizate-gabeziarekin loturiko arazoak baliabide ekonomikoen eskasia-egoera adierazten du, epe motzera, gizarte jakin batek ezarritako gutxieneko ongizate- eta erosotasun-mailak mantentzeko beharrezko gastuei aurre egiteko. Praktikan, gizarte jakin horren bizimodu, ohitura eta jarduera arruntetan parte hartzea ahalbidetzen dute, gutxieneko baldintzetan bada ere. Ongizate-gabezia arriskuan daude honako hauek: aintzat hartutako erreferentzialdian, bizi diren gizartean gutxienekotzat hartutako ongizate-maila lortzeko ezarritako atalaseen azpiko diru-sarrerak dituzten pertsona, familia edo etxekoen unitateak.

c) Ongizatea, mantenuari dagokionez

Egoera horretan daude, mantenuari dagokionez, ongizate-gabeziaren edo pobreziaren arazorik ez duten pertsona, familia edo etxekoen unitateak. Epe motzera, ez dute baliabide-eskasiaren egoerarik izaten oinarrizko premiak betetzeko, ezta gizarte jakin batek ezarritako ongizate-egoerara iristeko beharrezko gutxieneko gastuei aurre egiteko ere.

## 1.2. Mantenu-pobreziaren eta -prekarietatearen PGDI adierazleak

PGDIk Leydenen erregresio-eredua aplikatzen du bi atalase osagarri lortzeko: pobreziarena, zentzu hertsian, eta ongizate-gabeziarena. Atalase bakoitza zehazteko ekuazioa hauxe da:

$$Y * \min = \hat{a}0 + \hat{a}1 fs + \hat{a}2g$$

Osagaiak ondorengoak izanik:

Y*min: pobreziaren edo ongizate-gabeziaren atalasea, kasuaren arabera
*fs:* Familiaren neurria
*g:* Familietako ohiko gastua

Gerturatze honetan, *ymin* aldagaiak (horretatik eratortzen da y*min aldagaia) honako galderekin elkarrizketatutako etxeek emandako erantzunei dagozkien eremu-lanetatik lortutako emaitzak ditu abiapuntu:

* *Zuen etxekoen unitatearen egungo egoeran, zein da, egiaz, hilaren amaierara iristeko beharrezko gutxieneko diru-sarrera?* (ongizaterik ezaren atalasea kalkulatzeko) eta;

* *Zuen etxekoen unitatearen egungo egoeran, zein da, egiaz, oinarrizko premiak betetzeko beharrezko gutxieneko diru-sarrera?* (pobrezia-atalasea kalkulatzeko).

Gastuaren *g* aldagaia, honako galdera honi etxekoen unitateek emandako erantzunetatik abiatuta lortzen da: *Batez beste, zenbatekoak dira familia honen hileko gastuak?*

PGDIren metodoak pobrezia gainditzeko edo, norberaren bizi-zikloaren unearen arabera, ongizate-maila nahikora iristeko beharrizan-atalase desberdinetara jotzen du. Ondorio praktikoetarako, bizi-zikloa etxekoen unitateko bizikide nagusiaren adinean oinarrituta neurtzen da. Hiru etxekoen unitate mota hartzen dira aintzat, etxekoen unitateko bizikide nagusiaren adinaren arabera: 45 urtetik beherakoak, 45-64 urtekoak eta 65 urtetik gorakoak. Aipatu behar da, PGDI egiten denetik lehendabiziko aldiz, 2012an nolabaiteko konbergentzia nabari dela adineko atalaseetan.

Metodoaren aplikaziotik honako atalase hauek deribatzen dira 2012an:

**Mantenu-pobreziaren eta ongizate-gabeziaren atalaseak, PGDI metodoaren arabera. 2012**
(Datuak euroetan)

| Etxekoen unitatearen tamaina | < 45 urte | | 45-64 urte | | > 65 urte | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Pobrezia | Absentzia Ongizatea | Pobrezia | Absentzia Ongizatea | Pobrezia | Absentzia Ongizatea |
| Lagun 1 | 855,74 | 1.164,53 | 855,02 | 1.198,68 | 677,40 | 927,04 |
| 2 lagun | 1.132,60 | 1.514,74 | 1.078,53 | 1.592,34 | 915,77 | 1.272,65 |
| 3 lagun | 1.334,41 | 1.766,58 | 1.235,47 | 1.880,10 | 1.092,41 | 1.531,80 |
| 4 lagun | 1.499,04 | 1.970,27 | 1.360,48 | 2.115,28 | 1.238,03 | 1.747,09 |
| 5 lagun | 1.640,60 | 2.144,30 | 1.466,09 | 2.317,78 | 1.364,23 | 1.934,70 |

*Iturria: PGDI, 2012.*

## 1.3. Mantenu-pobreziaren eta -prekarietatearen Eurostat adierazleak

PGDIan Eurostaten honako adierazle hauek erabiltzen dira, mantenu-pobrezia eta -prekarietatea neurtzeko:

*a) Pobrezia larriaren adierazlea:*

Eskuragarri dauden diru-sarrera garbien batez bestekoaren % 40 baino gutxiago duten pertsonak edota etxekoen unitateak, *per capita* errentaren baliokide

*b) Diru-sarrera apalen edota pobrezia-erlatiboaren adierazlea:*

Eskuragarri dauden diru-sarrera garbien batez bestekoaren % 60 baino gutxiago duten pertsonak edota etxekoen unitateak, *per capita* errentaren baliokide

Metodoak honako baliokidetasun-eskala baliatzen du (ELGA eskala zuzendua):

- Lehenengo heldua: 1,0
- Heldu osagarri bakoitza: 0,5
- 14 urtez azpiko seme-alaba bakoitza: 0,3

Hauek dira gerturatze honi dagozkion atalase espezifikoak:

**Diru-sarrera txikien eta pobrezia larriaren atalaseak, Eurostat metodoaren arabera. 2012**
(Datuak eurotan)

| Etxekoen unitatearen tamaina | Pobretasun larria | Pobrezia erlatiboa Diru-sarrera txikiak |
|---|---|---|
| Lagun 1 | 552,44 | 828,67 |
| 2 lagun | 828,67 | 1.243,00 |
| 3 lagun | 994,40 | 1.491,60 |
| 4 lagun | 1.160,13 | 1.740,20 |
| 5 lagun | 1.325,87 | 1.988,80 |

*Iturria: PGDI, 2012.*
0,5 eskala bigarren pertsonarentzat eta 0,3 gainerako pertsonentzat.

PGDIk, era berean, pobrezia- eta bazterketa-tasei dagokien informazioa ere biltzen du (AROPE). Tasa horien esanahiaren xehetasun metodologien berri izateko, ikus Eustaten orri hau:

http://www.eustat.es/documentos/datos/PI_metod/INDES_europa2020_80_c.asp#axzz28obxl8nT

PGDIk, era berean, etxebizitza-gastuen neutralizazioan oinarritutako adierazleak ere jasotzen ditu, esate baterako, alokairu inputatu deritzona kontuan hartzen dute Eurostaten adierazleak.

## 1.4. Pobrezia- eta prekarietate-adierazleak tratatzeko erabilitako indizeak

Bai PGDI metodoan, bai Eurostaten, pobrezia- eta prekarietate-adierazleak hainbat indize estatistiko kontuan hartuta zehatz daitezke. Hauek dira nagusiak:

a) H indizea, edota pobreziaren edota ongizate-gabeziaren tasa orokorra

PGDI txostenetan eta tauletan baliatu ohi den adierazleak pobrezia-arriskuaren edota ongizate-gabeziaren tasari egiten dio erreferentzia. Honela zehazten da:

$$H = q / n$$

Osagaiak ondokoak izanik:
*q:* kontuan hartutako egoerak eragindako populazioa.
*n:* populazio osoa.

b) Foster, Greer eta Thorbecke (FGT) indizeak

Indizeok honako formula dute oinarri:

$$FGT_{\propto} = (1/n) \sum_{i=1}^{q} (g_i / z)^{\infty - 1}$$

Hala definitzen dira, ∝-ri esleitutako balioetatik abiatuta, FGT(1), FGT(2), FGT(3) eta FGT(4). FGT(1) H pobrezia-tasaren berbera da.

Gainerako FGT adierazleei dagokienez, txostenean FGT(2) indizea baliatzen da, HI indizearen baliokidea

$$HI\ indizea = H * I$$

Osagaiak ondokoak izanik:
*H:* pobrezia-tasa (edo ongizate-gabeziarena).
*I:* Sen indizea.

PGDIan, HI edo FGT(2) indizea oinarrizko erreferentzia-indizetzat hartzen da mantenu-pobrezia eta -prekarietate egoeren segimendua egiteko. Indize horrek, hain justu, pobrezia neurtzeko kontuan hartu beharreko elementuak hartzen ditu aintzat: intentsitatea, distantzia eta barne-desberdintasuna. Gainera, interpretazio soziala erraza da transmititzen; izan ere, indizea pobreziaren edota ongizate-gabeziaren tasa teoriko baten baliokide da, non eragindako guztiak erabateko bitarteko-gabezia kasuan leudekeen, hau da, batere diru-sarrerarik gabe.

c) Sen I indizea (income gap ratio):

$$I = (g / qz)$$

Osagaiak ondokoak izanik:

*g*: $\sum_{i=1}^{q} \mathrm{gi} = \mathrm{z} - \mathrm{y}$

*gi* honako hauen baliokidea da: ezarritako pobrezia edota ongizate-gabeziaren arteko lerroaren (*zz* eta etxeko diru-sarreren (y) arteko distantzia.
*g* osagaiak, berriz, diferentzia hauen arteko batura biltzen du, analisian kontuan hartutako egoera bizi duten populaziorako.
*q:* kontuan hartutako egoerak eragindako populazioa.
*z:* batez besteko pobrezia-lerroa (edo ongizate-gabeziarena).

Adierazle horrek adierazten du prekarietate-egoeran dauden etxekoen unitate edo pertsona multzoak metatutako distantzia, kontuan hartzen diren pobrezia- eta prekarietate-atalasearen ondoan. Ehunekotan neurtzen da.

## 1.5. Erabilitako sarrera kontzeptua

Mantenu-pobrezia eta -prekarietatea kalkulatzeko eta neurtzeko, honako honi egiten dio erreferentzia etxekoen unitateen sarreren edo errenta erabilgarriaren kontzeptuak, PGDIk erabilitakoak: lau iturritatik datozen diru-sarrera gordinen baturari, hilabeteka kalkulatuta. Hona hemen iturriok:

a) Diru-sarrera propioak, lanetik eta kapitalaren etekinetatik etorritakoak.

Lanetik eta kapital propioa ustiatzetik etorritako mota guztietako diru-sarrera gordinak sartzen dira, Ogasunaren ordainketei edo itzulketei lotutako doikuntzak barne.

b) Gizarte Segurantzaren prestazioetatik etorritako diru-sarrerak eta antzekoak.

Honako hauek sartzen dira: erretiroagatiko, alarguntzagatiko, zurztasunagatiko, familiarteko mesedeagatiko edo baliogabetasunagatiko Gizarte Segurantzaren prestazioak, ordaindutakoaren araberakoa edo ordaindutakoaren araberakoa ez dena; erretiroa aurrez hartzeagatiko prestazioak; langabeziagatiko prestazioak edo subsidioak, lanbide heziketari, enplegu-sustapenari, mugikortasuneko subsidioei eta berrinstalazioari lotutakoak barne; eta familia zaintzeagatiko (jaiotza, amatasuna, haur edo helduen zaintza) eta norberaren kargura dauden seme-alabak zaintzeko aldizkako prestazioak.

c) Gizarte-laguntzatik etorritako diru-sarrerak eta beste gizarte-laguntza batzuk.

Honako hauek sartzen dira: Oinarrizko Errentatik eta Gizarte Larrialdiko Laguntzatik datozen diru-sarrerak; Emantzipazioko Oinarrizko Errenta; jaiotzagatiko edo adopzioagatiko ordainketa bakarreko prestazioak; ikasketa-beken, adingabeentzako laguntzaren eta bestelako laguntza asistentzial publikoen (udalek, aldundiek eta abar emandakoak) ondoriozko diru-sarrerak.

d) Gizarte zibilaren laguntza osagarrietatik etorritako diru-sarrerak.

Honako hauek sartzen dira: senideek, lagunek edo bizilagunek zuzenean emandako laguntzetatik etorritako diru-sarrerak, bai eta laguntza-erakunde partikular edo pribatuek (Cáritas, Gurutze Gorria eta tankerakoak) emandakoetatik etorritakoak ere.

Kontaketa egiteko, etxekoen unitatea (edo etxekoen unitatearekin pareka daitekeen etxekoen unitatea) hartzen da aintzat, oro har. Horrekin loturik, hertsiki pertsonalak diren sarreretan oinarritutako berariazko adierazleak eskaintzen direnetan izan ezik, honako prozedura hau jarraitzen du PGDIk banakako adierazleei dagokienez: pertsona bakoitzari etxekoen unitateko kide guztiei dagokien errentaren zati proportzionala ematen dio. Pertsona bakoitza pobrezia edo prekarietateren arriskupean nola, hala egongo da etxekoen unitatea bere osotasunean.

### 1.6. Adierazleak, gizarte-transferentzien aurretik eta ondoren

Adierazleek gizarte-transferentzien aurretik eta ondoren duten eraginari buruzko informazioa ematen du PGDIk. Hori horrela, honako hiru egoera hauetarako adierazleak ematen ditu, diru-sarrerak izateko aukeren arabera:

a) Hasierako errenta: Adierazleak diru-sarrera propioekin (edozer transferentzia mota baino lehen)

Kasu honetan, zuzeneko jarduera ekonomikoren batekin lotutako diru-sarrerak hartzen dira kontuan. Hala, pobreziaren eta ongizate-gabeziaren adierazleak diru-sarrera propioen gainean aplikatzen dira zentzu hertsian, edozer motatako gizarte-transferentzia, transferentzia publiko, edo pribatu deskontatuta.

b) Bitarteko errenta: Diru-sarrera propiodun eta pentsiodun adierazleak

Kasu honetan, pobreziaren eta ongizaterik ezaren adierazleak diru-sarrera propioen eta honako gizarte-transferentzia hauen baturaren gainean aplikatzen dira:

* Zahartzeagatiko edo erretiratzeagatiko prestazioak.
* Aurretiazko erretiroengatiko prestazioak, betiere enpresen birmoldaketa-prozesuetatik ondorioztatzen direnean izan ezik.
* Biziraute-prestazioak (alarguntza, zurztasuna, edo ahaideen alde).
* Ezintasunagatiko prestazioak 65 urtetik gorako pertsonen kasuan.

Hala, hasierako errentari erretiro-pentsioen eta biziraute-pentsioen transferentziak gehitzen zaizkio.

c) Azken errenta: Adierazleak guztizko diru-sarrerekin

Kasu honetan, pobreziaren eta ongizaterik ezaren adierazleak diru-sarrera erabilgarri mota guztietan aplikatzen dira, eta, beraz, partikularren transferentziak nahiz sistema publikoko gainerako transferentziak biltzen dira, bai gizarte-asistentziari dagokionez (DBE, GLL, eta abar), bai gizarte-segurantzari eta langabeziari dagokionez (langabeziagatiko prestazioak, familiarentzako babesa, seme-alaba kargura izateagatiko prestazioak, gaixotasuna, ezintasunagatiko prestazioak 65 urtetik gorakoen kasuan, eta enpresa-birmoldaketagatiko edo berregituraketagatiko aurretiazko erretiroak).

Logikoa denez, azken errentaren adierazle hau bat dator PGDI metodoak erabiltzen dituen pobreziaren eta ongizaterik ezaren adierazle orokorrekin.

Txosten honetan Europarekin egindako konparaketetan, transferentzien aurreko errenta bitarteko errentarekin parekatzen da; hortaz, pentsioak sartzen ditu.

## 1.7 Gabetze-adierazleak

**Elikadura egokia izatekoa arazoak**

a) USDAren (FSS) adierazleak

2000. urtean, «Short Form of the 12-month Food Security Scale» (FSS) eskala erabiltzen hasi ziren, eta hori aplikatzearen ondorio dira adierazleok. Estatistika-metodo hori Ameriketako Estatu Batuetan diseinatu zuten komunitate jakin baten elikadura-arazoak neurtzeko eta Estatu Batuetako Nekazaritza Sailak (USDA) puntualki erabiltzen du herrialde horretan[15]. Metodoa erraz erantzuteko sei galderaz osatuta dago, eta helburua hiru biztanle-kategoria handi mugatzea da, elikadura-premien estalduran izandako segurtasun-posizioaren arabera. Hona hemen kategoriak:

* Elikadura-premien estalduran segurtasuna duten etxekoen unitateak.

* Segurtasunik gabeko etxekoen unitateak, baina elikadura-premien sarbideari dagokionez muturreko estaldura-gabeziako egoera bat (elikadura-arazo larriak) islatzen duten elkarturiko adierazlerik gabeak.

* Segurtasunik gabeko etxekoen unitateak, elikadura-premien sarbideari dagokionez muturreko estaldura-gabeziako egoera bat (elikadura-arazo larriak) islatzen duten elkarturiko adierazleekin. Errealitate hori gose-egoeren edo oso gertuko egoeren pertzepzioarekin lotzen da (elikadura-arazo oso larriak).

Azken bi kategoriek elikadurari lotutako segurtasunik ezeko arazoak dituzten etxeen (etxeko pertsonen) osotasuna definitzen dute.

Kategoriak definitzeko, inkesta egin aurreko urteko egoera hartzen da aintzat.

FSS galdetegia aplikatzeko, gosearen pertzepzioari zuzenean lotutako galdera bat aurreikusten da: *Gose izanik, geratu zarete jan gabe behar adina janari lortu ez izanagatik?*

[15] USDA (United State Department of Agriculture) Mark Nord eta Margaret Andrews-ek (Economic Research Service) zehaztutako metodoaz, Gary Bickel-i (Food and Nutrition Service) eskatutako argibideez, eta Stephen J. Blumberg (National Center for Health Statistics), Karil Bialostosky (National Center for Health Statistics), William L. Hamilton (Abt Associates) eta Ronette R. Briefel-ek (National Center for Health Statistics) aurrera eramandako ikerketaz baliatzen da kasu honetan. Informazio horren laburpen bat nahi izanez gero, begiratu hemen:
http://www.ers.usda.gov/briefing/foodsecurity/surveytools/FS_SHORT.pdf
Beste aukera bat Bickel-ek aurkeztutako sintesi-lana aztertzea da (Bickel *et al.*, 2000).

b) EU-SILCen adierazlea

2004ko eragiketaz geroztik, elikadura-segurtasunik ezaren arazoetara hurbildu gara; horretarako, Europako EU-SILCen sartutako elikadura-adierazle nagusia hartu dugu aintzat. Adierazleak bi egunez behingo funtsezko otordu bat ordaindu ezin duen populazioaren proportzioa jasotzen du.

PGDIn, adierazle hori lortzeko, honako galdera hau hartu da oinarri:

*Ba al duzu bi egunean behin haragia, oilaskoa edo arraina duen otordu bat egiteko adina diru (edo baliokidea, barazkijale izanez gero)?*

Adierazle hori buruzko informazioa inkesta egin aurreko urteari ere aplikatzen zaio.

**Zorpetze-arriskua**

Zorpetze-arriskua ageri den egoeretan, honako baldintza hauek betetzen dira:

* Etxekoen unitateko hileko gastuak diru-sarrerak baino handiagoak dira.
* Ez dago hurrengo hileko ohiko gastuei aurre egiteko aurrezkirik, edo aurrezkiak ez dira nahikoa.

**Gabetze-adierazle sintetikoa**

Adierazle honek populazioa taldeka banatzen du, azken urteko mantenu-dimentsioko gabetze-egoerari dagokionez:

* Oso prekarioa
  Pertsona hauen etxekoen unitatean honako arazoetako batzuk ageri dira:
  - Oinarrizko beharrak asetzeko arazo orokorrak.
  - Hiru adierazle arazotsu edo gehiago betebeharren estalduran (edo oinarrizko beharren estalduraren eta betebeharren estalduraren arteko baturan).
  - Etxekoen unitateak ezin die biziraupen-gastuei aurre egin.

* Prekarioa (oinarrizko alderdiak)
  Aurreko taldean sartuta ez dauden etxekoen unitateetako pertsonak, baldin eta bi adierazle arazotsu edo gehiago ageri badira betebeharrak asetzean (edo oinarrizko beharrak asetzearen eta betebeharrak asetzearen arteko baturan).

* Prekarioa (hain oinarrizkoak ez diren alderdiak)
  Aurreko taldeetan sartuta ez dauden etxekoen unitateetako pertsonak, baldin eta ez badago adierazle arazotsurik oinarrizko beharrak edota betebeharrak asetzen, baina baldin eta bi adierazle arazotsu edo gehiago badituzte aisialdia izateko.

* Ez hain prekarioa (ahalik eta gehien doitzea)
  Aurreko taldeetan sartuta ez dauden pertsonak, baldin eta honako arazoetako batzuk ageri badituzte:
  - Elikadura-arazoak, gose-arriskurik gabe eta elikadura orekatua eta askotarikoa lortzeko aukerekin lotutako zailtasunik gabe.
  - Ahalik eta gehien doitzeko beharra, aisialdi-beharrak asetzeko.

* Prekarietaterik ez
  Oinarrizko beharrak eta betebeharrak asetzeko arazorik ez duten eta aisialdi-beharrak asetzeko konpontzen diren etxekoen unitateetako pertsonak.

Talde oso prekarioa mantenu-pobreziako egoerarekin lotzen da. Gainerako prekarietate-egoerek ongizate-gabeziaren arazoak islatzen dituzte. Hain prekarioak ez diren taldeek edo prekarietaterik ez duten taldeek ongizate-egoerak edo ongizate praktikoaren egoerak islatzen dituzte.

## 2. Metatze-pobrezia eta -prekarietatea (bizi-baldintzak eta erreserbako ondarea).

Estutasun ekonomikoak metatzea diogunean, gure gizartearen ohiko estandarretatik nabarmen beherago dauden bizi-baldintzak aipatzen ari gara. Bizi-baldintza horiek kontsumo iraunkorreko oinarrizko ondasunak (etxebizitza, esaterako) eskuratzeko ahalmenarekin dute zerikusia; ondasun horiek zehazten dute etxekoen unitateen epe luzeko esparrua zer-nola mamitzen den. Horren haritik, metatze-pobreziak bereziki etxekoen unitateen kontsumo iraunkorreko ondasunak —epe luzera bizitza-maila egokia mantentzeko beharrezkoak— eskuratzeko ezintasunarekin du zerikusia.

Epe ertain eta luzeko prekarietate-agertoki izateaz gainera, metatze-pobrezia honekin ere lotzen da: etxekoen unitateek, egoeraren araberako krisialdietan, bizi ekonomiko normalizatuari eusteko edo berariazko kontsumo-moduei (oporraldiak, esaterako) aurre egiteko beharrezko gutxieneko ondare-baliabideak metatzeko dituzten zailtasunak.

Hala, metatze-pobrezia horrek ezaugarri hauek dauzka: batetik, erreserba-ondare eskasa, eta, bestetik, bizitza baldintzen gabeziak –kalitate edo kantitate mailan adierazgarriak–, ohiko etxebizitzaren ezaugarriekin zerikusia duen guztiarekin bereziki (bizigarritasuna, instalazioak eta ekipamenduen maila).

Metatze-pobreziaren egoeretara hurbiltzeko, etxeen egoera aztertzen da PGDIn, bizi-kalitateari dagozkion adierazle batzuk aintzat hartuta; batetik, etxebizitzaren instalazioak eta ekipamenduak aztertzen dira, eta, bestetik, ondare-baliabideak (etxebizitza, bestelako ondare-ondasunak, metatutako aurrezkiak eta hamar urte baino gutxiagoko ibilgailuak). 2012tik aurrera, Europar Batasunak ezarritako gabetze-adierazleen sistema hartzen da kontuan pobrezia- eta bazterketa-adierazleak finkatzean, eta Europako adierazleak hartzen dira aintzat erreserba-ondare eskasarekin edota epe ertain eta laburreko bizi-baldintza prekarioekin lotutako gabezietarako.

## 2.1. Definizioak

a) Metatze-pobrezia

Metatze-pobreziak egoera espezifiko bat baino egoera orokor bat adierazten du; hain zuzen ere, behar adinako bizi-mailari epe ertain eta luzean eusteko beharrezkoak diren kontsumo-ondasun iraunkorrak lortzeko prekarietate-egoera diferentziala, bereziki, etxebizitza egokia eta ongi hornitua lortzeko gaitasunari dagokionez, betiere gutxieneko bizigarritasun-arauak betez. Epe ertainean eta laburrean prekarietate-agertoki gisa, metatze-pobrezia honako hauekin ere lotzen da: krisialdi- edota larrialdi-egoera berezietan, etxekoen unitateek bizimodu normalizatu bati aurre egiten jarraitzeko beharrezkoa duten gutxieneko ondare-bitartekoak metatzea, horrekin nolabaiteko segurtasun ekonomikoa ziurtatuta, baita epe labur eta ertainean kontsumo-modu egokiak bermatzea ere (oporraldiak izatea, urte-kopuru mugatua duen ibilgailua, eta abar).

b) Prekarietatea metatze-dimentsioan

PGDIk hainbat prekarietate-egoera mugatzen ditu metatze-dimentsioan. Honako prekarietate-egoera hau biltzen du: pobrezia-egoeratzat hartzerik ez dagoena, baina eragindakoa ongizate-egoeratik edota ongizate praktikotik albo batera uzten duena.

## 2.2. Metatze-pobreziaren eta -prekarietatearen PGDI adierazleak

### Jatorrizko PGDI adierazlea

Metatze-pobreziaren edota -prekarietatearen jatorrizko PGDI adierazleak populazioa taldeka antolatzen du, metatze-pobreziaren edo -ongizatearen eskalan duten posizioaren arabera:
1. Pobrea (prekarietate handiko egoera).

Etxebizitzarekin loturiko arazo oso larriak dituzten egoerak, eta aldi berean, ondare oso txikia. Pobrezia-egoerak honako zirkunstantzia hauetako batekin loturik daude:

* Autonomia Erkidegoko etxekoen unitateen batez besteko ondarearen % 25etik azpiko ondarea, hamar urte baino gutxiagoko ibilgailu bat eduki edo ez.

* Ondare ertainaren % 50etik beherako ondarea, baldin eta arrazoi ekonomikoak direla medio hamar urte baino gutxiagoko ibilgailurik ez badu.

* Etxebizitza muturreko egoeran egotea, hau da, ur berorik edo instalazio elektrikorik ez izatea, edo batere erosotasunik ez izatea.

* Etxebizitzaren instalazio edo ekipamenduen maila oso eskasa dela adierazten duten bestelako egoerak, honako hauek, esaterako:

  - Komun-ontzirik eta bainu-ontzirik edo dutxarik ez izatea.
  - Instalazioen gabeziak nabarmen metatzea, eta ondorioz etxebizitzaren erosotasun-maila eskasa izatea.
  - Arrazoi ekonomikoak direla-eta, oinarrizko ekipamenduei dagozkien gabeziak nabarmen metatzea: hozkailua, sukaldea, garbigailua edo labea, edo oinarrizkoa ez izanagatik ere, arrazoi ekonomikoak direla medio halakorik ez izateak prekarietate-egoera larria adierazten duen oro (koloretako telebista, adibidez).

Gainera, metatze-pobreziaren egoerak aipatutako ondare-arazoetako bat ez ezik, etxebizitza-arazo oso larriak ere badaudela adierazten du.

2. Prekarietate-egoera (batez bestekotik nabarmen behera).

Honako egoera hauek biltzen ditu:
* Etxebizitza-arazo oso larria eta ondare txikia edo normala.
* Etxebizitza-arazo larria eta ondare txikia edo oso txikia.
* Etxebizitza-arazo ez hain larria eta ondare oso txikia.

3. Nolabaiteko prekarietate-egoera baina ongizaterik ezaren ebidentzia garbirik gabe (ia erabateko ongizate-egoera)

Honako egoera hauek biltzen ditu:
* Etxebizitza-arazo larria eta ondare normala.
* Etxebizitza-arazo ez hain larria eta ondare txikia.
* Etxebizitza-arazorik gabe eta ondare txikia edo oso txikia.

4. Ongizate-egoeran.

Etxebizitza-arazorik ez duten (edo ez hain larria, behintzat) eta ondare normala duten etxekoen unitateak biltzen ditu.

Prekarietate-adierazleak aurkezteko, 3 eta 4 taldeak ez-prekariotzat jotzen dira.

Pobreziaren eta metatze-prekarietatearen PGDI adierazlea emaitzetan oinarritzen da, hain zuzen ere, bi gabetze-adierazle sintetikoren emaitzetan; adierazle horiek, batetik, etxebizitza-arazoarekin loturik daude, eta, bestetik, ondare-baliabideak lortzearekin.

a) Etxebizitza-arazoen adierazle sintetikoa

Etxebizitzako instalazioekin eta ekipamenduekin lotutako garapen-aldagai espezifikoen tratamendua kontuan hartuta –eta etxebizitzaren baldintzak eta egoera orokorrak ere kontuan hartuta–, PGDIan honako lau posizioak zehazten dira, etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzei dagokienez:

1. Etxebizitza-arazo oso larriak

Honako egoera hauetako edozein biltzen du:
* Ur beroaren instalaziorik ez izatea
* Instalazio elektrikorik ez izatea.
* Komun-ontzirik eta bainu-ontzirik edo dutxarik ez izatea.
* Oinarrizko ekipamenduetan bi gabezia edo gehiago izatea.
* Erantzuna «Ez, inola ere ez», honako galdera honi: Esango zenuke egoera onean dagoen etxebizitza batean bizi zarela, maila eta erosotasun egokiari eta barneko kontserbazioari, dekorazioari eta zaintzari dagokionez? (Etxebizitzaren erosotasunari buruzko galdera).
* Etxebizitzaren erosotasunari buruzko galderari «Ez, ez da egokia» erantzuna, etxebizitzaren instalazioetan bi gabezia edo gehiago izanez gero.

2. Etxebizitza-arazo larriak

Aurreko egoerarik gertatzen ez denean, kategoria honetan honako kasu hauetako edozein sartzen da:

* Etxebizitzaren erosotasunari buruzko galderari «Ez, ez da egokia» erantzuna, etxebizitzaren instalazioetan gabezia bakarra izanez gero.
* Oinarrizko ekipamenduetan gabezia bat.
* Bi gabezia edo gehiago hezetasunarekin, pilaketarekin edo zarata/kutsadurarekin loturiko arazoei dagokienez.
* Hain oinarrizkoak ez diren ekipamenduetan hiru gabezia edo gehiago izatea.

3. Etxebizitza-arazo ez hain larria

Aurreko kasurik gertatzen ez denean, kategoria honetan honako kasu hauetako edozein sartzen da:

* Etxebizitzaren erosotasunari buruzko galderari «Ez, ez da egokia» erantzuna, etxebizitzaren instalazioetan gabeziarik ez dagoenean.
* Gabezia bat hezetasunarekin, pilaketarekin edo zarata/kutsadurarekin loturiko arazoei dagokienez.
* Hain oinarrizkoak ez diren ekipamenduetan gabezia bat edo gehiago izatea.

4. Etxebizitza-arazo larririk gabe

1 eta 3 kategorietan zehaztutako gabeziarik ez duten kolektiboak.

b) Ondare-bitartekoen adierazle sintetikoa

Etxekoen unitatearen ondare-egoerarekiko hurbilketa *per capita* ondarearen balioaren estimaziotik abiatuta egiten da. Ondare-ondasun erabilgarri guztiak eta horien balio estimatua kontuan izanik, ondare-ondasunetarako sarbide-mailarekin loturiko egoerak honela sailkatzen dira:

1. Ondare oso txikia

Kategoria honetan honako bi egoeretako edozein barne hartzen da:

* *Per capita* ondarea ondare ertainaren % 25etik beherakoa.
* *Per capita* ondarea ondare ertainaren % 50etik beherakoa eta, arrazoi ekonomikoengatik soil-soilik, 10 urte baino gutxiagoko ibilgailurik ez izatea.

2. Ondare txikia

   Aurreko egoerarik gertatzen ez denean, talde honetan honako egoera hauetako edozein sartzen da:

   * *Per capita* ondarea ondare ertainaren % 50etik beherakoa.
   * *Per capita* ondarea ondare ertainaren % 100etik beherakoa eta, arrazoi ekonomikoengatik soil-soilik, 10 urte baino gutxiagoko ibilgailurik ez izatea.

3. Ondare normala.

   Orain arte barnean hartu gabeko gainerako ondare-egoerak sartzen dira.

Ondarearen estimazioa egite aldera, honako osagai hauek hartzen dira kontuan:

* Jabetzako etxebizitzaren aitortutako eta estimatutako balioa.

* Gainerako ondare-ondasunen aitortutako eta estimatutako balioa.

* Aurrezki erabilgarrien balio estimatua.

  Aurrezkiei dagokien kalkuluan honako hauek hartzen dira kontuan: ohiko gastuari zenbat hilabetez eutsiko litzaiokeen eta horrelako gastuetarako adierazitako zenbatekoa; bi faktore horiek biderkatu egin behar dira.

Ondare ertaina lortzeko, etxekoen unitate bakoitzeko *per capita* ondare-balioen medianari edo balio zentralari erreparatzen zaio, tamainaren araberako baliokidetza-eskalak kontuan izan gabe.

**PGDI 2012 adierazlea**

AROPE adierazle-sisteman gabeziarekin lotura duten alderdiak balioetsi izanak bide berriak ireki ditu PGDIn pobreziaren eta metatze-prekarietatearen azterketa eguneratzeko premiazko prozesuan. AROPE sistema aintzat hartzeak bide ematen du, bereziki, pobreziarekin hertsiki lotuta ez dauden ongizate gabeziako hainbat egoera hobeto bereizte aldera aurrera egiteko. Errealitate berri hori kontuan harturik, metatze-pobreziako eta -prekarietateko PGDI adierazlea eguneratu da, 2012ko eragiketan.

Adierazle berriak mugatutako kategoriak ondorengo arrisku egoera hauen presentziaren edo presentzia ezaren arabera ezarri dira, pobreziari eta prekarietateari buruz dagoen gizarte pertzepzioarekin duen erlazioa aztertu ostean:

* ARRIS1
  Etxebizitzan zenbait **oinarrizko instalazio** edukitzea balioesten du: ur beroa, argindar instalazioa, komuna eta bainuontzia edo dutxa.
  1eko balioa hartzen du etxebizitzak instalazio horietakoren bat edo gehiago ez badauzka.
* ARRIS2
  Ondorengo **oinarrizko ekipamenduetakoren** baten gabezia balioesten du: hozkailua, sukaldea (etxetresna), arropa-garbigailua, labea edo mikrouhin labea, telebista edo telefonoa.
  2ko balioa hartuko du esandakoetatik bi elementu edo gehiago falta badira, eta 1eko balioa, bat falta baldin bada.

* ARRIS3
  Ondorengo alderdi hauekin zerikusia duten **etxebizitzako beste arazo batzuen** presentzia balioesten du: hezetasun-arazoak (itoginak; hezetasunak horma, zoru, sabai edo zimenduetan; usteldurak leiho-markoetan, ateetan edo zoruan); etxebizitzaren azalera kide kopurua bider 20 $m^2$ baino txikiagoa izatea; zarata eta kutsadura arazoak; eta etxebizitza iluna, nahiko argirik gabea, edo argi natural urrikoa izatea.
  1eko balioa du aipatutako gabezia horietako bi edo gehiago izanez gero.
  2ko balioa hartuko du, aurreko baldintza betetzeaz gainera, ongi ekipatutako, zaindutako eta kontserbatutako etxebizitza baten baldintzak inondik ere betetzen ez dituen etxebizitza baldin bada.
  Era berean, 2ko balioa izango du bi gabezia edo gehiagoren presentzia betetzen bada, komun eta/edo bainuontzi/dutxa ez edukitzearen arazo erantsiak kontuan hartuta. Aipatutako gabeziak nahikotzat har ez daitekeen etxebizitza bati lotzen zaizkio (ongi ekipatutako, zaindutako eta kontserbatutako etxebizitza den edo ez iriztean).
* ARRIS4
  **Hamar urtez azpiko ibilgailu bat** ez izatea balioesten du.
  1eko balioa du, ezaugarri horietako ibilgailu bat, gutxienez, ez baldin badu, arrazoi ekonomikoengatik.
* ARRIS5
  Epe ertaineko nolabaiteko aurrezte maila metatzeko ahalmenaren adierazle den neurrian, **ohiko bizilekutik kanpo astebeteko oporraldia** gutxienez izatea balioesten du.
  1eko balioa du horrelako oporraldirik izan ez bada, azkeneko 12 hilabeteetan, arrazoi ekonomikoak direla medio.
* ARRIS6
  Erreferentzia unitateak zenbat hilabetez eutsi ahal izango liokeen ohiko gastu-mailari eskuragarri dituen aurrezkiekin eta ondasunekin, ohiko etxebizitza salbuetsita (**erreserba-ondarea**).
  1eko balioa dauka, baldin eta aurrezkiekin gastuari eusteko gaitasuna 3 eta 13 hilabete artekoa bada.
  2ko balioa dauka, baldin eta gaitasunik ez badauka edo 3 hilabeterako baino gutxiagorako badauka.

Bazterketa-arrisku horiek eta esleitutako balioak kontuan izanik, honako egoerak zehazten dira pobrezia-ongizatea eskalan:

1. Pobrezia

Pobrezia-egoerak honako arriskuetako baten presentziarekin lotzen dira, edo arriskuen konbinazioarekin, aurretik definitu ditugun moduan:

* ARRIS1 = 1.
* ARRIS2 >= 2.
* ARRIS1 + ARRIS2 + ARRIS3 >= 3.
* ARRIS1 + ARRIS2 + ARRIS3 + ARRIS4 + ARRIS5 + ARRIS6 >= 6.
* ARRIS1 + ARRIS2 + ARRIS3 + ARRIS4 + ARRIS5 + ARRIS6 = 5 ETA [(ARRIS4 + ARRIS5 >= 1 Y ARRIS6 = 2) EDO (ARRIS4 + ARRIS5 = 2 ETA ARRIS6 = 1)].

Horrek esan nahi du metatze-dimentsioan pobrezia-egoerak honako egoerekin edota zirkunstantziekin lotuta daudela:

* Etxebizitzaren oinarrizko instalazioetan gabeziaren bat agertzea.
* Etxebizitzaren oinarrizko instalazioetan bi gabezia edo gehiago agertzea.

* Oinarrizko instalazioetan, oinarrizko ekipamenduetan edota etxebizitzaren beste arazo batzuetan, 3ko balioa edo handiagoa.
* Adierazlea eraikitzeko kontuan hartzen diren gabezia multzoan 6 puntuko edo gehiagoko balioa.
* Adierazlea eraikitzeko kontuan hartzen diren gabezia multzoan 5 puntuko balioa, gehi honako hiru zirkunstantzia hauek ere agertzea:
  - Ohiko gastu-mailari urtebetez baino gehiagoz eusteko behar beste erreserba-ondare ez edukitzea;
  - Etxebizitzaren instalazioekin eta ekipamenduarekin lotuta ez dauden epe ertaineko eta luzeko kontsumo-ondasun eta -zerbitzuak izateko oinarrizko gabezia bat, arrazoi ekonomikoak direla-eta (hamar urte baino gutxiagoko ibilgailua edota etxetik kanpora gutxienez hamar eguneko oporraldia egiteko aukera);
  - Eta 3 puntuko edo gehiagoko balioa azkena aipatutako ondasun eta zerbitzu mota horiek izatearekin eta erreserba-ondarearekin lotutako adierazle multzoan.

2. Ongizate-gabezia

Metatze-dimentsioan ongizate-gabeziarekin lotutako arazoak aurreko kategorian bilduta ez dauden arrazoiekin dute zerikusia, eta etxekoen unitateko arrisku-metatzen honen presentzia erakusten dute:

* ARRIS1 + ARRIS2 + ARRIS3 + ARRIS4 + ARRIS5 + ARRIS6 <= 4 ETA [(ARRIS4 + ARRIS5 >= 1 ETA ARRIS6 = 2) EDO (ARRIS4 + ARRIS5 = 2 ETA ARRIS6 = 1)].

Arazo mota hori ageriko da, baldin eta adierazlea eraikitzeko kontuan hartzen diren gabezia multzoan 4 puntuko balioa gehi honako hiru zirkunstantzia hauek ageri badira:

- Ohiko gastu-mailari urtebetez baino gehiagoz eusteko behar beste erreserba-ondare ez edukitzea;
- Etxebizitzaren instalazioekin eta ekipamenduarekin lotuta ez dauden epe ertaineko eta luzeko kontsumo-ondasun eta -zerbitzuak izateko oinarrizko gabezia bat, arrazoi ekonomikoak direla eta (hamar urte baino gutxiagoko ibilgailua edota etxetik kanpora gutxienez hamar eguneko oporraldia egiteko aukera);
- Eta 3 puntuko edo gehiagoko balioa azkena aipatutako ondasun eta zerbitzu mota horiek izatearekin eta erreserba-ondarearekin lotutako adierazle multzoan.

3. Gutxieneko ongizatea

Metatze-dimentsioan gutxieneko ongizate egoera batera iristen garela esango dugu, baldin eta aurreko kategorietan adierazitako zirkunstantzia problematikoak ageri ez badira baina adierazlea eraikitzeko kontuan hartzen diren gabezietako bat gutxienez ageri bada, betiere honako baldintza hau beteta:

ARRIS1 + ARRIS2 + ARRIS3 + ARRIS4 + ARRIS5 + ARRIS6 >= 1.

4. Erabateko ongizatea (gabeziarik gabe).

Metatze-dimentsioan bada erabateko ongizate-egoera bat, aztertutako arrisku-adierazleetan batere gabeziarik ez dagoenean, osagaiak honakoak izanik:

ARRIS1 + ARRIS2 + ARRIS3 + ARRIS4 + ARRIS5 + ARRIS6 = 0.

## 3. Benetako pobrezia eta prekarietatea

Baliteke batzuetan metatze- eta mantenu-pobreziaren adierazleek arrisku-egoera ez erakustea, konpentsatzeko joera ager baitaiteke hainbatetan; adierazle horiek ez bezala, benetako pobrezia- eta prekarietate-adierazleek **oinarrizko beharrak asetzeko benetako eskasia-egoeratzat har daitezkeenak** zehazten dituzte –gizartearen ikuspegi orokorra aintzat hartuta–. Kasu horietan, pobrezia edota prekarietatea bizitzea errealitatea da gizartean nagusi diren kontzepzioak aintzat hartuta (baina ez nahitaez eragindako pertsonen pertzepzioaren arabera).

### 3.1. Definizioak

Pobrezia errealtzat hartuko ditugu honako zirkunstantzia hauek: oinarrizko premiak asetzeko ezintasunaren arrisku-egoera nabari denean eta egoera hori ez denean behar beste konpentsatzen biztanleen eguneroko bizimoduan, ez, behintzat, gutxieneko ongizate-mailara iristeko moduan, pobreziatik kanpo.

Gainerako benetako prekarietate-moduek beste egoera batzuei egiten diete erreferentzia: hain zuzen, gutxieneko ongizate-maila bat izateko errealitateaz hitz egiteko beste elementu osagarri ageri ez direnean, eta ongizate-gabezia egoera benetakoak islatzen direnean (ez nahitaez pobrezian bizitzearekin lotuta).

### 3.2. Benetako pobreziaren PGDI adierazleak

#### Jatorrian erabilitako PGDI adierazlea

Benetako pobrezia aztertzeko 2008ra arte erabiltzen zen adierazlea, batez ere dimentsio ebolutiboan, **benetako pobreziaren adierazle objektiboa da, zirkunstantzia berezietara doitua.**

Adierazle honek honako etxekoen unitateak hartzen ditu benetako pobrezia-egoeran:

* Metatze-pobrezia egoera batek jotako etxekoen unitateak.

* Mantenu-pobreziako arazoek jotako etxekoen unitateak, eta metatze-dimentsioan ongizate-egoerak edota ongizate praktiko egoerak konpentsatzen ez dituenak.

Nolanahi ere, adierazleak hainbat egoera hartzen ditu kontuan, eta horietan sailkapen objektiboaren eta pertzepzio subjektiboaren arteko distortsioa askotan gehiegizkoa da. Hauek dira onartutako doikuntza-elementuak:

* Ez-pobretzat jotzen dira metatze-pobreziaren egoera baten eraginpean egonik, egun, mantenuari dagokionez, ongizate-egoeran bizi direnak, betiere erreferentziako etxekoen unitatea ekonomikoki egoera erosoan badago.

* Aldiz, pobretzat jotzen dira mantenu-pobreziaren egoera baten eraginpean daudenak, metatzeari dagokionez ongizate-egoeran edo ia erabateko ongizate-egoeran egonagatik ere, baldin eta beren burua pobretzat edo oso pobretzat jotzen badute, edo, beren burua pobre samartzat jo arren, oinarrizko premiei aurre egiteko beharrezkotzat jotzen duten gutxienekoaren azpiko diru-sarrera erregularrak badituzte.

* Pobretzat jotzen dira, halaber, mantenuari dagokionez ongizaterik ez duten lagunak —baina pobreak ez direnak—, eta metatzeari dagokionez prekarietate-egoera argian daudenak —baina pobreak ez direnak—. Kasu horretan, ezinbestekoa da beren burua pobretzat jotzea eta ohiko diru-sarrera erabilgarriak oinarrizko premiei aurre egiteko gutxienekotzat jotzen dutena baino txikiagoak izatea.

Adierazi behar da, jatorrizko gerturatzean, arretagunea batez ere benetako pobrezia dela. Benetako prekarietatearen azterketaren gerturatzeari askoz ere modu lausoagoan heltzen zaio, aurreko kasuan bezalako elaborazio xehaturik gabe, eta batez ere ongizate praktikoko egoerarik ez izatea zehazten da, mantentu- eta metatze-dimentsioetan.

PGDI 2012 adierazlea

PGDI 2012 adierazleak 2012ko metatze-pobreziaren adierazle berria kontuan hartzen du, eta gerturatze hertsiki objektiboa aukeratzen du benetako pobrezia- eta prekarietate-egoerak mugatzeko garaian.

Adierazlea eraikitzeko, mantenu- eta metatze-adierazleen posizioaz gain, tankerako beste prekarietate-elementu batzuk ere kontuan hartzen dira. Esanguratsuena azken urtean agertutako gabetze-egoerak agertu izana da. Gabetze-egoera horiek gertatzeko, honako zirkunstantziek agertu behar dute:

* Elikadura-arazo oso larriak.
* Elikadura-arazo oso larriak, bigarren eskuko jantziak eskuratu beharra edota negu-partean etxebizitzan hotza izatea arazo ekonomikoak direla-eta, guztia ere oinarrizko gastuak murriztearekin lotuta.
* Elikadura-arazo oso larriak, bigarren eskuko jantziak eskuratu beharra edota negu-partean etxebizitzan hotza izatea arazo ekonomikoak izan ez, baina oinarrizko gastuak murriztu beharra edukitzea.

Beste prekarietate-adierazle batzuk ere ikusten dira: oinarrizko beharrak asetzeko etxekoen unitatean behar dena baino ohiko diru-sarrera txikiagoak izatea, edota zorpetzeko arriskudun egoerak.

Kontuan hartu beharreko egoera posible bakoitzaren inguruan nagusi den gizarte-pertzepzioa ikusirik, benetako pobrezia- edo prekarietate-adierazlean definitutako kategoriak, eta haietako bakoitzak bildutako egoerak, honako hauek dira:

1. Benetako pobrezia

Honako egoera hauek biltzen ditu:

* Mantenu- eta metatze-pobrezia biak agertzea.
* Mantenu-pobreziako egoera bat eta metatze-dimentsioan ongizaterik ez izateko arazoak.
* Mantenu-pobreziako egoera bat eta gutxieneko ongizate-errealitateak metatze-dimentsioan, errealitate hori azken urteetan izandako gabetze-arazoekin lotuta datorrenean. Horietan ohiko diru-sarrerak ez dira oinarrizko beharrizanak asetzeko edota zorpetzeko arrisku bati erantzuteko bestekoak.
* Mantenu-ongizaterik gabeko eta metatze-pobreziako egoera bat.
* Mantenu-pobreziako egoera bat eta metatze-pobrezia, errealitate hori azken urteetan izandako gabetze-arazoekin lotuta datorrenean. Horietan ohiko diru-sarrerak ez dira oinarrizko beharrizanak asetzeko edota zorpetzeko arrisku bati erantzuteko bestekoak.

2. Benetako ongizate-gabeziaren beste era bat

Pobrezia-kategorian kontuan hartutako egoerak albo batera utzita, kategoria honek honako egoerak biltzen ditu:

* Ongizate-gabeziako egoera bat agertzea mantenu- eta metatze-dimentsioetan.
* Metatze-pobreziadun beste mantenu-ongizateko egoera batzuk, benetako pobrezia-kategorian bilduta ez daudenak.
* Ongizate-egoera bat mantenu-dimentsioan eta metatze-dimentsioan ongizate-gabeziarekin lotutako arazoak, errealitate hori azken urteetan izandako gabetze-arazoekin lotuta datorrenean. Horietan ohiko diru-sarrerak ez dira oinarrizko beharrizanak asetzeko edota zorpetzeko arrisku bati erantzuteko bestekoak.

3. Ongizate- eta arrisku-elementuak

Pobreziarik eta ongizate-gabeziarik ez da gertatutako, ongizate-elementu nagusiekin baina arrisku-elementuekin, baldin eta aurreko kategorietan kontuan hartu gabeko zirkunstantzia hauek ageri badira:

* Metatze-dimentsioan gutxieneko ongizate-errealitatedun mantenu-pobreziako beste kasu batzuk, aurreko kategorietan bildu gabeak.
* Mantenu-pobreziako eta erabateko ongizateko egoera bat metatze-dimentsioan.
* Mantenu-ongizaterik gabeko egoera bat, gutxieneko ongizate-mailarekin edota erabateko ongizatearekin metatze-dimentsioan.
* Metatze-dimentsioan ongizate-gabeziako arazoak eta mantenu-dimentsioan ongizate egoera ageri duten beste kasu batzuk, aurreko kategorietan bildu gabeak.

4. Ia erabateko ongizatea

Kategoria honetan, mantenu-ongizatearen egoera bat gutxieneko ongizate-mailarekin lotuta ageri da (baina ez erabateko ongizatea) metatze-dimentsioan.

5. Erabateko ongizatea.

Kategoria honetan, mantenu-ongizatearen egoera bat erabateko ongizatearekin lotuta ageri da metatze-dimentsioan.

## 4. Pobrezia estalia (independizatzeko arazoak)

Independizatzeko arazoek pobrezia-errealitateen eta ongizate potentzialaren gabeziaren azterketa izaten dute ardatz; errealitate eta gabezia horiek ezkutuan geratzen dira, bizimodu independentea izateko prozesuak blokeatzearen ondorioz. Azterketak, batez ere, mantenu-dimentsioan estalitako arazoak aztertzen ditu.

Estalitako pobrezia eta prekarietatе mota honen gerturatzea PGDIn honako galdera hau txertatuta egiten da: Nahiko al luke etxekoen unitateko kide batek etxebizitza independente batean bizi, nahiz eta ezin duen bitarteko ekonomikorik ez duelako? Erreferentzia-kolektiboari, orduan, inkesta osagarri bat aplikatzen zaio, hautemandako arazoarekin lotutako zirkunstantziak neurtzeko.

Estalitako pobrezia- eta prekarietate-adierazleak etxekoen unitate bat osatzeko beste bitarteko ez dutela dioten pertsonentzat lortzen dira, eta analisia bideratzen da, urtebetean etxekoen unitate bat osatzeko behar beste baliabide ekonomiko pertsonal baleukate, hala osatuko luketela (seguru aski edo ziurrenik) dioten kasuetara. Horrelakoetan, pobrezia-egoera edota ongizate-gabezia ageri ote den neurtzen da, etxekoen unitate berria osatuko luketen pertsonek eskuragarri dituzten diru-sarrerak aintzat hartuta. Horrenbestez, mantenu-adierazleak lortuko dira PGDI metodoarekin bat oro har finkatutako atalase-sistemen arabera kalkulatuta.

Era berean, metatze-dimentsioarekin lotutako adierazleak ematen dira, batez ere etxebizitza propioa edukitzearen inguruan; halaber, ekipamendu-maila ere kontuan hartzen da, baita aurrezkiak eskuragarri izatea ere.

## 5. Desberdintasun-adierazleak

PGDIk, era berean, gizarte-desberdintasuneko adierazleak ere ematen ditu, eskuragarri duten errenta aztertuta batik bat.

Hauek dira PGDIk kontuan hartzen dituen desberdintasun-adierazleak:

a) S80/S20 erlazioa

Errentaren banaketan *per capita* errenta baliokidearen maila handiena duten pertsonen % 20ren eta errenta txikiena daukatenen % 20ren arteko erlazioa.

b) Gini koefizientea

Errentaren arabera banatutako populazioaren pisu metatuaren eta eskuragarri duten errentaren pisu metatuaren arteko erlazioa, formula honen arabera lortua:

$$G = \left| 1 - \sum_{k=0}^{k=n-1} (X_{k+1} - X_k)(Y_{k+1} + Y_k) \right|$$

Osagaiak ondokoak izanik:

*X:* eragindako populazioaren proportzio metatua.

*Y:* errentaren edo diru-sarreren proportzio metatua.

Koefizientearen balioa 0 eta 1 artekoa da: 0 erabateko berdintasun-egoera litzateke, eta 1, berriz, desberdintasun maximoko egoera. PGDIn, datuak ehunekotan ematen dira.

# 2. ERANSKINA: Datuak termino ebolutibotan doitzea

Epe luzera pobreziaren eta prekarietatearen azterketa egiteko, ezinbestekoa da datu alderagarriak edukitzea (baliokideak, horrenbestez), aztertu behar diren denbora-tarteetarako. Alderdi horrek garrantzi bizia du mantenu-pobrezia eta prekarietatea PGDI metodoaren bitartez neurtzeko, oso sentikorra baita gizarte-egituraren aldaketetara eta ongizatearen pertzepzioetara[16].

PGDIn pobreziaren eta prekarietatearen zifrak doitzeko prozedura bat txertatu da 2008tik aurrera, bilakaera termino alderagarrietan aztertu ahal izateko; prozedura hori hobetu egin da 2012an, ongizatearen pertzepzioan izandako aldaketak ere kontuan izateko. Horri esker, mantenu-pobreziaren eta -prekarietatearen azterketari 2012ko pobreziaren eta ongizate-gabeziaren atalaseei doitutako terminotan heldu zaio. Prozeduraren helburu nagusia atalaseon balioa PGDItik edota ESSDEtik ateratako informaziodun denbora-tarteetara doitzea da; hala, landu beharreko atalase-baliook iraunkorrak direla egin genezake azterketa.

Erabilitako prozeduraren bitartez, 2012aren aurreko PGDIaren edo ESSDEaren operazio bakoitzerako, 2008ko PGDIaren bitartez lortzen diren mantenu-alorreko pobreziaren eta prekarietatearen atalaseen balioa egokitzen duen indize bat ezartzen zaie operazioak egin diren urteen zirkunstantzia propioei. Prozeduraren ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

1. Sei doikuntza-indize espezifiko lortzen dira 2012 aurreko ESSDEaren edo PGDIren fase bakoitzerako. Etxekoen unitateko buruaren adinaren arabera definitzen diren taldeei dagozkie indizeak, mantenuko PGDI atalaseak lortzeko prozesuan aurreikusten direnak: 45 urtez azpiko, 45-64 urteko eta 65 urtetik gorako bizikide nagusiak. Adin-talde bakoitzarentzat, aintzat hartutako atalase motaren araberako indize espezifiko bat kalkulatzen da: pobreziaren atalasea edo ongizate-gabeziarena.

2. Adin-taldearen eta atalase motaren gurutzatze-kasu bakoitzean, 2012rako estandarizatutako gutxieneko diru-sarreren balioa (*Ymin_est_2008*) egokitzapen-indizea kalkulatu nahi den operazioaren urteko gutxieneko diru-sarreren balioarekin (*Ymin_est_urtea_n*) biderkatzen da. Emaitza, bestalde, zuzenketa-faktore batekin zatitzen da; erreferentzia-urte bakoitzerako ongizatearen pertzepzioarekin lotutako aldaketak hartzen ditu kontuan faktore horrek, eta prezioen bilakaerarekiko urruntze erlatiboko terminotan neurtzen dira aldaketok. (*Fzuz_Ondasuna_Urtea_n*). Horrekin, bizitzaren kostu-aldaketekin zuzenean lotzen ez diren ongizate-beharrizanetan antzemandako hazkundearekin lotutako faktorea neutralizatzen da.
   Gerturatzea ekuazio honekin lortzen da:

---

[16] Hurbilketa horrek, era berean, benetako pobrezia- eta prekarietate-adierazleei eragiten die. Izan ere, adierazleok mantenu-pobreziaren edo -prekarietatearen adierazlean etxekoen unitateek duten posizioaren berri ematen duten funtzioak dira.

*Urteko egokitzapen-indizea_n = (Ymin_est_2012 / Ymin_est_urtea_n) / Fzuz_Ondasuna_urtea_n*

3. Urte bakoitzerako estandarizatutako gutxieneko diru-sarreren balioa (*Ymin_est_Urtea_n*) honako hau izango da: urte bakoitzean garatutako inkesta-prozesuan etxekoen unitate bakoitzaren bizikide nagusiek adierazitako gutxieneko diru-sarreren zifren batez bestekoa, betiere erreferentzia-talde gisa hartuta gizartearen barruan posizio erosoan kokatzen diren lagunak. Batez bestekoaren kalkulua termino estandarizatutan egiten da, bizikide nagusiaren adin-taldearen eta etxekoen unitatearen tamainaren araberako banaketa bakar bat baliatuta. Estandarizatzeko oinarria hau da: etxekoen unitateko banaketa 2012ko bizikideen adinaren eta neurriaren arabera. Kontuan hartutako gutxieneko diru-sarrerak hiru adin-taldeetarako kalkulatzen dira, baita definitutako atalaseetarako ere (pobrezia eta ongizate-gabezia).

   Adierazitakoaz gain, Ymin_est_Urtea_n balioaren kalkuluan ere neutralizatu egiten da etxebizitza eskuratzeko kostuan izandako aldaketen eragina. Hemen ere gerturatzea estandarizatua da, 2012an jabetza eskuratzeko egitura kontuan izanik.

Esan beharra dago adierazitako egokitzapena ohiko prozeduretatik aldendu egiten dela, azken horiek KPIaren bilakaera orokorretik zuzenean eratorritako zuzentzaileen aplikazioan oinarritzen baitira. Hautaketa honek eragingo lukeen doikuntzaren indize bakarra beharrean, iraunkortzat har daitezkeen atalase-baloreak lortzeko doikuntza-indizeen sistema anizkoitza aukeratzen da. Gure gizartean posizio erosoan ez dauden etxekoen unitateek oinarrizko premiak asetzeko eta ongizate-mailara iristeko adierazitako gutxieneko diru-sarreren balioen bilakaeran oinarritzen da sistema, betiere bizitza-zikloaren uneak kontuan hartuta. Eragin diferentzialarekin lotutako zuzenketa-faktoreak ere gaineratzen dira etxebizitza-gastuen aldi bakoitzean, bai eta prezioen bilakaera orokorrarekin lot ez daitezkeen gizarteko kideek duten ongizateari buruzko pertzepzioan izandako aldaketekin lotutakoak ere.

Azkenik, erabilitako prozedura uste honetatik abiatzen da: pobrezia gainditzeko eta ongizatea eskuratzeko helburuak bermatzeko uneoro balio duten ondasunen eta zerbitzuen kostua neurtzeko oinarrizko alderdia, etxebizitza-gastuen presio diferentziala deskontatu ostean eta prezioen aldaketen alorreko interpretagarriak ez diren ongizate-pertzepzioan izandako aldaketekin.

## TXOSTENARAREN AURKIBIDEA

**0. Emaitza nagusien laburpena 2**

**1. Pobreziaren eta prekarietatearen eragin orokorra 15**

1.1. Pobrezia eta prekarietatea mantenu-alorrean (errenta erabilgarria) 15

1.1.1. Gabetze-adierazleak 15

1.1.2. Pobreziaren eta ongizate-gabeziaren adierazleak 23

1.1.2.1. Eurostat adierazleak 23

1.1.2.2. PGDI adierazleak 25

1.1.3. Distantziaren eta desberdintasunaren PGDI adierazleak 26

1.2. Pobrezia eta prekarietatea metatze-alorrean (ondarea eta epe luzeko bizi-baldintzak). 28

1.2.1. Gabetze- eta metatze-adierazleak 28

1.2.2. Metatze-pobreziaren PGDI adierazleak 33

1.3. Benetako pobreziaren eta prekarietatearen adierazle sintetikoak 35

1.3.1. Alderdi orokorrak 35

1.3.2. DBE/EPO/GLL sistemen eragina 38

**2. Arrisku handieneko gizarte-taldeak eta eremuak 41**

2.1. Pobreziak eta prekarietateak gehien eragindako taldeak 41

2.1.1. Benetako pobreziaren arriskupeko talde nagusiak 41

2.1.1.1. Datu orokorrak 41

2.1.1.2. Gerturatze sintetikoa 45

2.1.2. Benetako ongizate-egoerarik gabeko talde nagusiak 47

Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren bilakaera, pertsona nagusiaren ikasketa-mailaren arabera. 2008-2012 Familia-etxebizitzetan bizi direnak Intzidentzia %-tan 53

2.2. Pobreziaren eta prekarietatearen lurralde-inpaktua 57

**3. Ezkutuko pobrezia 61**

**4. Euskadiren egoera Europakoarekin alderatuta 66**

**1.Eranskina: adierazleen eta definizioen glosarioa 73**

1. Pobrezia eta prekarietatea mantenuari edo diru-sarrerei dagokienez 73

1.1. Definizioak 73

1.2. Mantenu-pobreziaren eta -prekarietatearen PGDI adierazleak 75

1.3. Mantenu-pobreziaren eta -prekarietatearen Eurostat adierazleak 76

1.4. Pobrezia- eta prekarietate-adierazleak tratatzeko erabilitako indizeak 77

1.5. Erabilitako sarrera kontzeptua 78

1.6. Adierazleak, gizarte-transferentzien aurretik eta ondoren 79

1.7 Gabetze-adierazleak 81

2. Metatze-pobrezia eta -prekarietatea (bizi-baldintzak eta erreserbako ondarea). 83

2.1. Definizioak 84

2.2. Metatze-pobreziaren eta -prekarietatearen PGDI adierazleak 84

3. Benetako pobrezia eta prekarietatea 92

3.1. Definizioak 92
3.2. Benetako pobreziaren PGDI adierazleak 92
4. Pobrezia estalia (independizatzeko arazoak) 95
5. Desberdintasun-adierazleak 96
**2. ERANSKINA: Datuak termino ebolutibotan doitzea 97**